



Burujabetza teknologikoa: beste aukera batzuk

Alex Gurrutxagari elkarriketa: Euskadi sariduna



## GAZTAROKO IRAGANAZ HARRO

80ko hamarkadako Arrasateko gizarteari begiratu dio Ez Donk Amaitu egitasmoak: berbaldiak, erakusketa eta zinema eta musika emanaldiak antolatu dituzte azarorako / 6



Txerra Bolinaga, Edurne Landaluze, Andoni Zubiaga eta Jon Koldo Lasagabaster, Kulturaten dagoen erakusketan, euren gaztetako musika taldeen argazkiak seinalatzen. XABIER URZELAI ETA ANDONI IÑURRITEGI

**Larramendirako Valogreene-ren hirigintza-baimena balio barik laga du Bergarako Udalak / 24**

### SINADURAK

|                                                                                     |                           |                                                                                     |                       |
|-------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------|
|  | IBAN PEREZ HERNANDEZ / 10 |  | MIGUEL LAZPIUR / 26   |
|  | ITSASO ERRETOLATZA / 15   |  | MANU EGAÑA / 33       |
|  | IDOIA SANCHEZ / 21        |  | ANDER ETXEBERRIA / 48 |

# BLACK FRIDAY

%20ko deskontua  
betaurreko graduatuetan  
+ 2. betaurreko osoa opari



Kontsultatu optikoen kanpainaren ezaugarriak.

Otalora Lizentziaduna, 18  
943 79 29 95  
ARRASATE

Ibargarai, 16  
943 76 15 75  
BERGARA

www.multiópticas.com

**MULTIÓPTICAS**  
50 urte zuen ikusmena zaintzen





Armin Insausti eta Amalia Ormaetxea, liburu eskuan dutela; inguruan, kooperatibako kideak eta Isabel Uribe. MONDRAGON

# Ideiak praktikan jarri zituen, liburura ekarria

Mondragon kooperatibaren lidergoa eraman zuen Josemari Ormaetxeari buruzko solasaldi biografikoa aurkeztu dute asteon Donostian. Armin Insaustik eta Isabel Uribek idatzi dute, Ormaetxearekin izandako elkarrizketak oinarri hartuta

## Hasier Larrea debagoiena

**ORMAETXEA.** Kooperatibismoa, bizitza osoaren ardatz solasaldi-biografia aurkeztu dute asteon liburuaren egileek, Mondragoneko buruek eta protagonistaren familiak, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean eginiko prentsurrekoan.

1956an kooperatibismoaren esperientziako lehen enpresa,

Ulgor Tailerrak, martxan jarri zuen bost sortzaileetako bat izan zen Josemari Ormaetxea (Arrasate, 1927-2019). Arizmendiarraren ideiak errealitatean aplikatzeko lan egin zuen bere 60 urteko ibilbide profesional luzean. Laboral Kutxa, Mondragon Unibertsitatea, Ikerlan, Lagun Aro eta Alecoop kooperatiben inspiratzailea izan zen, liburuaren

ren idazleek azaldu dutenez, "utopian sinisteagatik". Enpresagintzan ardura postuak bete zituen, hala nola Ulgorren gerente, Euskadiko Kutxako zuzendari eta Mondragon Korporazioko Kontseilu Orokorreko lehendakari izan zen.

Beragatik gutxi idatzi zelakoan, elkarrizketa batzuk egiteko eskaera egin zioten Armin Insausti

etik eta Isabel Uribek, baina, hasiera batean, Ormaetxearen ezezkua jaso zuten: "Bere izaeraren erakusle". Iritzi aldaketan haren emazte Maite Zeziagaren eragina funtsezkoa izan zela nabarmendu dute Insaustik eta Uribek.

Ondorioz, hamabost aldiz batu ziren berarekin, 60 orduko grabaketak egiteraino: "89 urte zeuzkan, baina oso argia zen; asko ikasi dugu bere lan eta bizi ikuspegiak entzuten".

## Geroarekin "arduratsu"

Etorkizunarekiko begirada kritiko eta freskoa zeukala nabarmendu dute. Insaustik gogoratu du 60ko hamarkadan kooperatiban lan egiten zuenean zein zen orduan errepikatzen zien esaldia: "Bihar, egun hobea izango da". Eguneroko bizitzak dauz-

kan beharren "ikaslea" eta "sortzaile nekaezina" zela nabarmendu dute, baita kooperatiban erabaki zailak hartu behar izan zituela ere, "helburu kolektiboa pertsonalaren gainetik jarritz beti". Gainera, "esperantza sozializatzearen alde" lan egin zuen, eta liderrek "munduaren ulerkera globala" izan behar zutela zioen.

## Memoria egiteko "beharra"

Insaustik nabarmendu du Arizmendiarrarekin 1941ean heldu zenetik hamabost urtera sortu zituztela Ulgor Tailerrak, lehen esperientzia kooperatiboa: "Tarte hartan, Ormaetxea eta beste langile asko formatzen ibili zen. Jendeak ofizioa zeukan orduan, eskuekin lan egiten zekien, baina ideia kooperatiboak jaso zituzten, bereziki".

## "Pasioz" idatzitako biografia

Aurkeztu berri duten liburuak Mondragon kooperatibaren esperientzia "datuekin ez ezik, bidaia pertsonal baten bitartez" kontatzen duela nabarmendu du Amalia Ormaetxeak, protagonistaren alaba gazteenak. Irakurteraza dela gaineratu du, "mimo eta dedikazio handiz idatzita dagoelako". Horregatik eman dizkie eskerrak bi idazleei: "Nire aitak gustura asko irakurriko zukeen".

Isabel Uribek, berriz, irakurlea "bizi proiektu bat abiatu nahi duen edozein" izan daitekeela eman du aditzera: "Galdera asko planteatzen ditu: *Prest al gaude bizitza aukera bat bezala ulertzeko? Arduradun sentitzen al gara inguruan gertatzen diren injustizien aurrean?* Halako auziak beti zeuden presente Ormaetxearen pentsamenduan, sentsibilitate handiko gizona zelako".



Uribe eta Ormaetxea. H.L.

## Euskararen normalizazioaren aldeko saria Fagor Taldeari

2021eko Abbadia saria jasoko du kooperatiba taldeak, "lan munduan euskararen sustapenaren eredu" delako

## H.L. DEBAGOIENA

Gipuzkoako Foru Aldundiko bozeramaile Eider Mendozak eman du aditzera epaimahaiak hartutako erabakia: Fagor Taldearentzat izango da Anton Abbadia sariaren 22. edizioa.

1996an euskararen normalizazioaren alde lan egiten duten pertsona eta elkarteak saritzeko asmoz sortutako saria da; Mendozak adierazi duenez, "kooperatiba taldea lan munduan euskararen sustapenaren adibide

aurreratua da, zabaldu beharreko eredu".

Azken sariketan Pello Jauregi *Euskaraldia* kontzeptuaren asmatzaile eta teorizatzaileak jaso zuen aitortza. 21 saridunen artean daude, besteak beste, Arantxa Urretabizkaia (2018), Kike Amonarriz (2015), Imanol Urbietta (2007), Antton Olariaga (1998) eta Arrasate Euskaldun Dezagun (1997). Hala, kooperatiba arrasatearra euskararen normalizazioaren alde lan egiten duten pertsona eta elkarteak

saridunen zerrendan sartuko da.


"Sari honekin, Fagor Taldeari aitortza egin nahi zaio, ehunka langile ari direlako euskara batzordeetan ahaleginean eta milaka langile hartzen dituelako ekimenak", adierazi du Mendozak. Izan ere, zortzi kooperatiba eta 4.000 langiletik gora dituen taldean, 70eko hamarkadan abiatutako euskalduntze prozesuan eragiten jarraitzen dute euskara batzordeetan diharduten 150 kideek: "Fagor Taldearen ibil-

bideak eta gaur egun bizi duen errealitateak argi uzten dute erreferentzia bat dela euskararen arloan, egin duenagatik, egiten ari denagatik eta aurrera begira adierazten duen konpromisoagatik".

Ohitura den bezala, Euskararen Nazioarteko Egunaren atarian jasoko du Fagor Taldeak saria; zehazki, abenduaren 1ean, asteazkena. Donostian dagoen Gipuzkoako Foru Jauregian egingo da sari banaketa, Aldundiaren egoitza nagusian bertan.

### Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



### Positibo kasuak eta intzidentzia

|                   | Positiboak<br>aste<br>honetan | Positiboak<br>aurreko<br>asteen | Positibo<br>metatuak | Positiboak<br>biztanleekiko | Intzidentzia tasa<br>14 eguneko,<br>100.000 biztanleko |
|-------------------|-------------------------------|---------------------------------|----------------------|-----------------------------|--------------------------------------------------------|
| Oñati             | 11                            | 13                              | 1.716                | %14,96                      | 209                                                    |
| Antzuola          | 9                             | 0                               | 303                  | %13,91                      | 413                                                    |
| Bergara           | 7                             | 11                              | 1.878                | %12,49                      | 119                                                    |
| Eskoriatza        | 3                             | 2                               | 532                  | %12,97                      | 121                                                    |
| Aretxabaleta      | 2                             | 0                               | 981                  | %13,86                      | 28                                                     |
| Arrasate          | 1                             | 6                               | 3.553                | %16,09                      | 31                                                     |
| Aramaio           | 0                             | 0                               | 245                  | %16,55                      | 0                                                      |
| Elgeta            | 0                             | 1                               | 84                   | %7,43                       | 88                                                     |
| Gatzaga           | 0                             | 0                               | 16                   | %6,40                       | 0                                                      |
| <b>DEBAGOIENA</b> | <b>33</b>                     | <b>33</b>                       | <b>9.308</b>         | <b>%14,36</b>               | <b>101</b>                                             |

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

### Oñatin eta Antzuolan baieztatu dira COVID-19 positibo gehienak

Guztira, 33 kasu hauteman dira bailaran urriaren 25etik 31ra bitartean; aurreko asteko zenbateko bera da

**Uxue Igarza Loiola** DEBAGOIENA  
Urrian gorabeherarik gabe mantendu dira positiboak Debagoie-nean: 33 eta 35 artean asteko. Intzidentzia-tasak, berriz, apurka-apurka gora egin zuen lehe-nengo hamabostaldian, baina

azken bi asteetan 101 eta 106 artean mantendu da. Horrekin lotuta, nabarmentzekoa da bai-larako intzidentzia EAEkoaren gainetik egon dela orain arte, baina azken astean Gipuzkoako tasak hartu dio aurre.

Bestetik, ospitaleratzeei dago-kienez, Erkidegoko gorakada apaldu egin da. Eta Debagoie-neko Ospitalera etorrira, ingre-satuen zenbatekoa antzekoa izan da urrian zehar: bi eta hiru artean egon dira.

DEBAGOIENEN  
GREMIOAK

AROSATEGIAK

AZKARATE AROSATEGIA  
BERGARA / Telleria 19 B02-B03  
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20  
blogak.golena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS  
ARRASATE SL  
ARRASATE / Meatzerreka 30  
Tel.: 943 77 12 26/ 646 29 59 87  
e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA  
ARRASATE / Gipuzkoa etorbidea 39, behea  
Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA / Aranburuzabala 15  
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69  
f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL


ARETXABALETA / Basabe industrialdea B-3  
Tel.: 943 77 19 88  
Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINNTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA  
ARETXABALETA / Basabe poligonoa D-2-1  
Tel.: 943 79 78 45 - 616 96 57 98  
Faxa: 943 79 78 45

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.





Ricardo Huesoren eguazteneko saioa. J.J.M.Z.

# Zientziaz eta teknologiaz zipriztindutako egun eta asteak, han eta hemen

Zientziak, teknologiak eta berrikuntzak ikusgarritasun berezia hartzen duten hilabetea izan ohi da azaroa, zenbait lekutan astetik harago iraun ohi baitute gai horiekin lotuta antolatzen diren egitarauak; Bergaran, urriaren 19tik azaroaren 19ra, zehazki

**Julen Iriondo M. de Zuazo** BERGARA Askotariko ekitaldiek osatu dute aurtengo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza (ZTB) jardunaldiaren programa ere: ekologismo errealek eta planeta babesteko –zientziaren ikuspegitik– egin daitekeenaz hausnartuz hasi ziren jardunaldiak, eta robotika inklusiboaren eta adimen artifizialak ahalbidetu ditzakeen erronka etikoez berbetan jarraitu zuten iragan astean; aste honetan, berri, ekonomia zirkularrari buruzko atzoko mahai-inguruaren aurretik, hitzaldi parek izan zen martitzenean eta eguaztenean. Elhuyar-ko Ana Galarragak bere lankide Egoitz Etxebesteren *Zientziaren izarrek. Emakumeak, itzaletik argira* liburua aurkeztu zuen Seminarixoa –herriar bakan batzuk baino ez ziren joan, baina, saioa *streaming*-ez ere ema-

ten zenez, egin egin zen–, eta Zientzia Fisikoetan doktore Ricardo Hueso bizkaitarrak *Perseverance Marte planetan; Lurretik harago, bizitzaren bila* izeneko saioa egin zuen toki berean, biharamunean.

## 'Zientziaren izarrek'

Emakume zientzialarien gaineko liburua da *Zientziaren izarrek. Emakumeak, itzaletik argira* izeneko, hiruzpalau orriko kontakizun biografikoak biltzen dituen, "oso modu pertsonalean kontatuak, irakurterazak, gazteentzako ere aproposak", Ana Galarragaren esanetan: "Helburua da ereduak edukitzea, eza-gutzeko emakume zientzialariak ere egon direla eta aurre egin behar izan dietela egiturazko arazoei"; sarri, ikusgaitz edo ikusezin bihurtu dituzten egiturazko arazoei. "Zientzia ez da

beste eremuetatik aparte dagoen zerbait; gizartea matxista den modura, zientzia arloa ere oso da matxista, elitista den moduan eta...", dio Galarragak; eta orainaldian hitz egiten du, egoerak kaxkarra izaten jarraitzen duela, alde horretatik.

Askotariko emakumeak, zientziaren arlo guztietakoak, biltzen ditu Etxebesteren lanak, "bizipen oso desberdinak izan dituztenak, eta gaur egungo emakume zientzialarietara arte".

## Bergara eta zientzia

Zientziarekin lotutako ekimenak, azaro buelta honetan bezala, gero eta gehiago egiten direla aitortuta ere, horietako askoren funtsaren gainean zalantza du Elhuyarko zientzia komunikatzaileak: "Askotan, ez dakit ez ote den, baita ere, zuriketa, gertatzen den moduan, adibidez,



Ana Galarraga hitzaldia egiten, martitzenean. J.J.M.Z.

feminismoarekin lotutako gauzekin, modan bezala jartzen direla; antolatzen da eta listo: 'Egin dugu! Konplitu dugu!'. Eskoletatik-eta egiten dira gauzak, baina gero ez dakit kultura zientifikoari ematen zaion behar adinako garrantzirik. Pandemia garaian ere ikusi dugu ze indar daukan pentsamendu antizientifikoak. Ez dakit itxurakeriatik ere, batzuetan, ez ote dagoen. Hala ere, dena da ongiatorria, eta Bergaran, gainera, oinarri bat badago, eta oso ondo egiten dira gauzak. Baina Eureka museoarena ere oraintxe jakin berri dugu eta... argi-itzalak ikusten ditut.

ZTB jardunaldietarako Bergaran prestatu duten egitarauari dagokionez, begi onez ikusten du Galarragak: "Publiko guztietarako gauzak daude, era guztietakoak, entzutekoak eta praktikakoak, tailerrak eta. Egitarau osoa da". Eta Elhuyarrek Bergararekin pozik kolaboratzen duela ere badio; Bergararekin, euren erakundearen izenarekin hain lotura estua duen herriarekin: "Pentsa, Elhuyar anaiek taula periodikoko elementu bat isolatu zuten Bergaran, eta guztetako berezia da hemen egotea".

## Marten bizitzarik ba ote?

Eguaztenean, Ricardo Hueso astrofisikariaren txanda izan zen; kasu honetan bai, aretoa itxura politarekin, bertaratutakoen jakin-mina asetzeko balio izan zuen saioak, eta jendeak gozatu egin zuen Huesoren azal-

penekin eta azaltzeko moduarekin. *Perseverance Marte planetan; Lurretik harago, bizitzaren bila* zen hitzaldiaren izenburua.

Aurtengo otsailaren 18an pausatzen zen Marte planetan –arrakasta osoz– NASAk bidalitako azken *rover* edo *astromobila*: *Perseverance* robota. *Perseverance* da beste mundu batzuetara inoiz bidalitako robotik aurreratuena. Helburu nagusiakoa: Marteko arroken laginak biltzea, iraganen bizitzarik izan ote zen aztertze.

Laboratorium museoko arduradun Rosa Errazkinen esanetan, "oso interesgarria" izan zen Huesoren hitzaldia: "Nola kontatu duen robotaren iritsiera, bidaiaren azken zazpi minutuak, ze arrisku zeuden Marteratze horretan eta nola poztu zen talde osoa; oso dibulgatzaile ona da, eta gazteak ere oso gustura geratu direla esango nuke. Maila handiko gertakari baten berri emateko Bergarara horrelako dibulgatzaile bat ekartzea oso aberasgarria da".

Gaztea, eskolen bidez iritsitako ikasle jendea, izan zen, bai, saioiko publikoaren zati bat, baina haiekin batera izan ziren Goienagusiko kideak ere. Goienagusikoek euren urte amaiera arteko egitarauaren barruan ere bazuten eguazteneko hitzaldia –Laboratoriumekin duten hitzarmenari esker–, eta haiek ere gozatu egin zuten, euren baten aitortzen zuen modura: "Askoz gertuagotik eta modu animatuan eta grafiko, argazki eta bideoekin bikain dokumentatutakoan ezagutu ahal izan dugu gizateriaren historian zehar Marteri buruz ikasten joan garena". Eta datu bitxi moduan gehitu zuen robotaren zati bat Elgoibarko AVS enpresan egin dela ezagutu izana.

**MARTERI BURUZKO SAIOA OSO INTERESGARRIA IRUDITU ZITZAIEN GAZTEEI ETA NAGUSIEI**



Goienagusiko zuzendaritza batzordeko kide Jose Mari Erañaren arabera, askotariko gaiak izaten dute arrakasta elkarteko kideen artean, baita zientziarekin eta teknologiarekin lotutako ere; ezarrita egon daitekeen pentsaeratik harago, gai horiek ere badira aproposak adin batetik aurrerako jendearentzat: "Zientziarekin eta teknologiarekin lotutako gaietan jakin-min handia egoten da, eta jende asko joaten da entzutera. Gaur egun, zientziaz eta teknologiaz dakitenak, oro har, aldi berean dibulgatzaile onak izaten dira. Guk ekartzen ditugun asko irakasleak izaten dira, eta ohituta daude gaiak egokitzen publikoak ondo bereganatu ditzan. Horrez gain, jende nagusia ere gero eta gehiago da jende prestatua, dezentziaz datorrena edo lantegietan postu espezializatuak izan dituenak, adibidez. Baina hori izan ez duena ere... Gizartean gero eta informazio gehiago dago, gizartea gero eta kultuagoa da".

#### Hemendik aurrerakoak

Aste honetako ekintzen ostean, beste hainbat geratuko dira oraindik Bergarako ZTB jardunaldietan, azaroaren 19ra bitartean: hiru hitzaldi, mahai-inguru bat, barnetegi teknologikoa eta Wolfram Encounter topaketa izango dira, euskarazko ahotsen grabaketa maratoiarekin batera. Hitzaldietan-eta jorratuko dituzten gaien artean askotarikoak izango dira: fisika kuantikoa, adimen artifiziala eta burujabetza teknologikoa, besteak beste; eta genero ikuspegia eta hizkuntzarena, euskararena, ere kontuan izango dute.

#### Garaia eta MGE

Garaiak eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoak ere antolatutako Arrasaten Zientzia eta Teknologiarekin Aste ospatzeko ekintzak. Datorren astelehenetik eguenera egunero egingo dituzte teknologia arloan Debagoiengan trebatutako pertsonen online elkarrizketak, eta mahai-ingurua egingo dute egubakoitzean.

## EUSKARAREN ETA GENEROAREN GAIK ERE KONTUAN IZANGO DITUZTE BERGARAKO JARDUNALDIETAN

## "Oso pozik nago Sydneyko emaitzekin"

ITSASO ARRAYAGO KATALUNIako UNIBERTSITATEKO IKERLARIA

Bere herriko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza jardunaldiak ixteko ardura izango du Itsaso Arrayagok (Bergara, 1987), Debagoieneko beste ikertzaile gazte batzuekin batera: *Bailarako ikertzaile gazteak etorkizuneko mundua moldatzen* izeneko saioa egingo dute azaroaren 19an. Kataluniako Unibertsitate Politeknikoan Bide, Ubide eta Portuetako ingeniariak ikasketak egin zituen, eta bertako Egitura eta Materialen Analisi eta Teknologia Taldean egin zuen doktoretza gero. Han jarraitzen du gaur egun, irakasle eta ikerlari, besteak beste, eraikuntzan erabiltzen den altzairu herdoilgaitzarekin lanean. Sydneytik itzuli berria da; punta-puntako ikertzaile gazteei munduko unibertsitate hoberenetara joateko aukera ematen dien Europako Komisioak finantzaturako proiektu batekin izan da han bi urtez.

#### Zein da altzairuzko egiturekin dagoen arazoa eta zein bidetatik joan behar du etorkizunak?

Egituren erresistentzia estimatzeko orain ditugun kalkulu araudi tradizionalak zenbait ekuaziotan oinarritzen dira, gehienbat; ez bakarrik altzairuzko egiturentzako, baita hormigoizkoentzat ere. Hala ere, azken urteotan egituren diseinurako softwaretan eta ordenagailuetan izan diren aurrerapenei esker, orain posible da egitura hauen portaera modu zehatzean



ITSASO ARRAYAGO

aurreikustea, betiko ekuazioekin beharrean, materialak guztiz aprobeztatzeko eta egitura merkeagoak ahalbidetuz. Kalkuluetarako metodo berriak, beraz, ordenagailu bidezko simulazioetan oinarrituko dira, baina, horretarako, beharrezko dira, lehenengo, ikerketa lanak, metodo horiekin diseinatutako egiturak seguruak eta fidagarriak izango direla ziurtatzeko.

#### Emaitza onak eman al ditu Sydneyko egonaldiak?

Egia esan, oso pozik nago lortutako emaitzekin. Garatu dugun metodo berriarekin altzairu herdoilgaitzez egindako egituretan %10eko material aurrezpena lortu dugu. Baina, batez ere, diseinu prozesua ikaragarri arindu dugula uste dut. Ingeniariei lana izugarri erraztuko du etorkizuneko metodo honek, eta Europako ingeniariak bulegoen lehiakortasuna indartuko du, kalkulu araudi berrietan ezartzen denean. Orain, Sydneyn ikasitako Europara ekartzeko momentua da; beraz, proiektu berean arituko naiz beste urte batez, metodo berria guztiz garatzeko eta kalkulu araudi berriak prestatzeko, eta baita egin dudana lan guztia eta ikasi dudana Europako unibertsitateetara hedatzeko ere: eskolak eta hitzaldiak emango ditut, eta kolaborazio berriak bilatuko ditut.

#### Dibulgazioari garrantzi handia ematen diozu.

Uste dut oso garrantzitsua dela, alde batetik, gizarteak jakin dezan diru publikoarekin zein arazo konpondu nahi ditugun ikertzaileok, kontziente izan daitezen esfortzu izugarria egiten dugula etorkizunerako prestatzeko eta baita hainbat arlotan etorkizuna moldatzeko ere; bestetik, uste dut herritarrek zeresan handia dutela arazo guztien artean lehentasuna zerk izan behar duen erabakitzerakoan, eta, horretarako, dibulgazio ekitaldiak ezinbestekoak dira, herritarrei tresna kritikoa ematen dizkiogulako eta beraien ahotsa gugana iristeko foro ezin hobea direlako: batez ere, herritarren eguneroko bizitzatik eta berrietatik urruti diruditen gaietan, gizarteak modu kritikoan pentsatzeko oinarritzeko tresnak baldin baditu, hobeki prestatua egongo da zer gertatzen den ulertzeko eta nori kasu egin erabakitzeko.

## Belaunaldi arteko oinordekotza aztergai ISEaren jardunaldian

"Talentuaren kudeaketa" izango da kooperatibak antolatuta egingo den saioko beste ardatz nagusia

**Julen Iriondo M. de Zuazo** ARRASATE *Talentuaren kudeaketa eta belaunaldi arteko oinordekotza: marko teorikoa, erreferentzia modeloak eta kasu praktikoak* deritzon jardunaldia antolatuko du ISEAk datorren eguaztenerako, hilaren 10erako –10:30etik 13:00etara, LKS eraikinean, Garaia Parke Teknologikoan–.

Enpresa zerbitzu aurreratuetarako berrikuntzan diharduen Mondragon taldeko kooperatiba da ISEA, eta antolatu duen saioak hiru hizlari izango ditu: Ikerkuntzaren Kudeaketarako eta Promoziorako Agentziaren (Deiker-Otri) zuzendaria da Fernando Diez, eta Deustuko Unibertsitateko Publikazio arloko eta Deusto Fundazioaren zuzendari laguntzailea, eta berea izango da gaiaren testuinguru teorikoaz eta dauden ebidentziez jarduteko ardura; talentuaren kudeaketaz eta belaunaldi oinordekotzarako erreferentzia ereduak Alecopeko Berrikuntza zuzendari Nieves Alkainek jardungo du; eta kasu praktikoak azalduko ditu, azkenik, Fagor Ederlan Groupeko Pertsonen Garapenaren arduradun Jose Miguel Romanek.

#### Gai garrantzitsuak

ISEAren Ikerketa eta Garapen arloko koordinatzaile Maria Ruiz esanetan, jardunaldia hiru atal horietan banatu eta aipatutako hizlariak aukeratu izanaren arrazoia da gaiaren "ikuspegi holistikoa eskaini ahal

izatea ekitaldira joango diren enpresa eta ikerlariari".

Maria Ruiz bera ere izango da hizlari: "Lehen ordu erdian gaiaren inguruko testuingurua azaldu eta datuak emango ditut, justifikatzeko belaunaldi arteko oinordekotzaren garrantzia Gipuzkoan, eta aditzera emango dut Diputazioan zein Eusko Jaurlaritzan gai honekin dagoen ardura. Eta enpresen, unibertsitateen eta gure artean elkar-lanean I+D proiektuak garatzeko aukera azpimarratuko dut datuen bitartez".

Ruizen hitzartzearen ondoren, hizlari bakoitzak 40 minutu izango ditu; 30 aurkezpenetarako eta hamar galderak erantzuteko.

Jardunaldirako izena eman dutenen artean daude: unibertsitateak, ingeniariak dibisioko enpresak, fundazioak, garapen agentziak, esparru industrialeko zenbait enpresa eta komunikazioarekin eta pertsonen kudeaketarekin lotutakoak.

#### Familia enpresak

Belaunaldi arteko oinordekotzaren garrantzia ulertzeko, argigarriak dira zenbait datu: Gipuzkoan, enpresen %70 familia enpresak dira, eta lurraldeko Barne Produktu Gordinarekin %65 eragiten dute; familia enpresen %70ek ez dute lehen belaunaldia gainditzen, %15 bigarren eta hirugarren belaunaldiaren artean desagertzen dira eta %15ek baino ez dute bizirik irauten hortik aurrera.



ISEAko Ikerketa eta Garapen arloko koordinatzaile Maria Ruiz. ENEKO AZKARATE



Ez Donk Amaituren lantaldeko zenbait kide, 2008tik itxita egon den Biona tabernan, egitasmoa aurkezten. JOKIN BEREZIARTUA



RIPeko Yul -ezkerretik 1.a-, Portu -2.a- eta Txerra -txamarra gorriarekin-, lagunekin. EDA

Hasier Larrea DEBAGOIENA

1980. urtea berezia izan zen Arrasaten. Gerora RIP bezala ezagun egingo zen Doble Cero taldea indartsu azaldu zen agertokietan, eta berehala bilakatu ziren taldekideak eta euren jarraitzaileak punk mugimenduaren herriko erreferente. Txinparta hark sekulako oihartzuna eduki zuen, Arrasaten bakarrik punk rock estiloko 30 talde sortu baitziren, gutxienez, hurrengo 10 urteetan.

Baina, musikaz gain, borroka molde berriak sortu ziren, transizio garaia osteko belau-naldi gazteak zeukan askatasun grinaren baitan: "Antimilitarismoak, antinuklearren aferak, feminismoak, okupazioak, kontraintormazioak eta euskararen aldeko mugimenduak eztanda egin zuten, eta irudipena daukat agian kontu horiek ahaztu egin direla, punk mugimendua mitifikatu den neurri berean". Andoni Iñurritegi *Pottoko*-ren hitzak dira. Bera ibili da Kulturaren azaroaren 27ra arte ikusgai egongo den erakusketako material grafiko guztia paneletan ahalik eta modu txukunenean kokatzen.

#### "Erradiografia osoa"

Hain zuzen, aipatu dituen gaiekin lotutako argazkiekin, kar-telekin eta egunkari-zatiekin egingo du topo bisitariak, baita garaiko artelanekin, drogarekin lotutako kontuekin eta zenbait bitxikeriarekin ere: "Orduko kontaketa ahalik eta modu zabalenean osatzeko asmoz". Adi-

## Nostalgiatik baino gehiago, harrotasunetik egindako lan kolektibo eta osatua

2020an bete ziren 40 urte Arrasaten punkak lehen pausoak eman zituenetik. lazko azaroan ospatu nahi zuten urteurrena kontzertu-omenaldi batekin, baina hura bertan behera gelditu eta denetariko ekintzekin atondu dute Ez Donk Amaitu egitasmoa

bidez, 80ko hamarkadan Arrasateko ingurune urbanoa nolakoa zen azaltzen duten argazkiak daude; panel horrek memoria freskatzeko balioko die garai hura bizi izan zutenei, eta harridura eragingo die, ziur asko, gerora jaio zirenei. Baina guztiak etorriko dira bat kaleak ere ez diola ihes egiten denboraren joan-etorriari. Ezta ere erakusketaren tokiak berak; orain Kulturateko klaustroa deritzona frantziskotarren *kalistroa* zen lehen, eta gazteen galekua, baita ere. *Orduan kalean egoten ginen beti*, dio panelaren alboan dagoen oharra, egungo joerei keinu bat eginez, bide batez.

Bestalde, orduko kontzertu ugarien testigantza jasotzen duten karteletz apainduta dago paretaren zati bat. Horiek biltzen Musakolako auzotar batek lagundu zien, bereziki, digitalki artxibatuta baitzeuzkan kartel

asko. Eta bada izkina batean kokatu duten beste kartel bat, kontzertuekin baino gehiago, 1986ko sanjuanen aurkezpenarekin lotuta dagoena. Hara zein den material horri aparteko izaera ematearen arrazoia, bertan ondo azalduta dagoen lez: "Kepa Altubek egindako kartel hau Udalak zentsuratu egin zuen, Mondragoeren erreketaz aldatzen zelako. Gero, Biona taberna itxi arte bertan egon zen jarrita".

Bestalde, 80ko hamarkada hasi baino urtebete lehenagokoa izan arren, Ez Donk Amaitukoek sindikatuen etxeko okupazioaren gertaera ere ekarri nahi izan

**ERAKUSKETA  
ASTELEHENETIK  
ZAPATURA DAGO  
IREKITA, 28RA ARTE,  
ARRATSALDEETAN**

dute gogora. Sindikatu gehienetako ordezkariak Falangeak hartuta zeukan Grupo San Juaneko sindikatu etxea okupatu zuten, eraikina mugimendu sozial askoren elkargune izan zedin.

Eta drogaren gaineko pasarteak ere ezin falta, ondo baitakite herriar askok zer-nolako hondamena eragin zuten arantzaz betetako *gozoki* berriek. Nabarmenezkoa da Jose Luis Etxeberria *Porru* udaltzainburu ohiak emandako elkarrizketaren egunkari-zatia, zeinetan Arrasatera iristen zen heroinaren jatorria guardia zibilaren Intxaurrondoko kuarteletik ekartzen zutela argi uzten duen.

#### Erdigunean, musika

Kalera irten eta edonori belau-naldi hartako musika talde bat izendatzeko galdetuz gero, RIP taldearen izena etorriko zaie

gehienei burura. Euren gerizpean ernaldutako punk-rock talde ugari egon ziren, ordea, Arrasaten. Banda horiei dedikatutako panel bat atondu dute klaustroan, eta izenak zein baino zein bitxiagoak dira: Matrona Impudica eta Discipulos de Don Pablo, esaterako. Deigarria da argazki zaharren alboan kokatuta dagoen QR kodea; baten batek pentsatuko du anakronismo baten aurrean dagoela. Bada, inoiz argitaratu gabeko erreproduzio-zerrendara eramaten du QRak, paneleko taldeen kantu bana entzuteko gonbidapena eginda. Harribitxi bat da Ez Donk Amaitukoek egindako lan hori, kantu batzuek ez dutelako orain arte sekula argirik ikusi.

Zergatik hartu, baina, halako lan nekezik? "Antolatzaileok zerbaitengatik mugitu bagara, punk-rock musika maite dugulako izan da", azaldu du Iñurritegik. Eta ondo dago proposamen modernoak egitea, baina klasi-koek ere badute tokia egitarauan, noski. Musikari buruz hitz eginda, kontzertuek. Gaztetxean gaur gauerako antolatu duten musika emanaldia da horren lekuko. Perlata eta Zero taldeak izango dira taularatuko direnak, eta azken horretan jotzen du batera Txerra Bolinagak, gaur-gaurkoz RIP taldetik bizirik dagoen bakarrak. Jakina da banda mitikoaren 40. urteurrenaren aitzakian antolatu dutela egitarau osoa Ez Donk Amaitukoek, pandemia aurretik





Seber Altube plazaren itxura, 80ko hamarkadan. EZ DONK AMAITU

beste asmo batzuk zituzten arren. Izan ere, iazko azarorako, bi urtean behin egiten duten kontzertu-omenaldi berezia antolatzea zeukaten begiz jota, baina laster ohartu ziren ezingo zutela plan horrekin aurrera jarraitu. "Orduan, Txerrak berak aipatu zigun polita izango zela RIPengan hainbeste zentratu beharrean, hamarkada haren ertzak modu batean edo bestean gogora ekartzea".

Pandemiako lehen hilabetetan imajinazioa suspertzeko denbora egon bazegoenez, ideia

hori nola gorpuztu erabakitze-ko batzen hasi zen dozena bat lagun inguruko lantaldea. Inguruko jendearen inplikazioa baliatuz, erakusketa, fanzinea, udal liburutegian maileguan eskatzeko liburu-zerrenda, zinema-zikloa eta mahai-inguruak egitea posible zela ikusi zuten, eta hala joan ziren egitarau oparoa zehazten.

#### Dakitenengandik ikasteko

Garrantzitsua iruditu zitzairen ekarpen interesgarriak egin zitzaizketen pertsonen esanak

## Gaurtik datorren barikura bitartean

Musikaz, mahai-inguruaz eta pelikulez gozatzeko hitzorduak daude programatuta datozen zazpi egunetan. Bionako bisita gidatuak gaur zortzi hasiko dituzte, bestalde.

- **Gaur, hilak 5, kontzertua: Perlata eta Zero**, gaztetxean, 22:00etan hasita, 5 euroren truke. Perlatak, 2015ean sortutako talde arrasatearrak, hiru disko argitaratu ditu dagoeneko, eta laugarrena laster aterako du kalera. Zeroko lau kideetatik bi ere etxekoak dira, Txerra Rodriguez eta Jon Zubiaga, hain zuzen; gaur gauekoa euren ibilbideko hirugarren kontzertua izango da, eta diote ilusio berezia egiten diela bertan parte hartzeak.
- **Domekan, hilak 7, *Good Vibrations* pelikula**, gaztetxean, 18:00etan hasita. 70eko hamarkadan Belfast hiriko barrunbeak astintzen dituen mugimendu musikal *underground*-a azaltzen du.
- **Martitzenean, hilak 9, *Stiv* pelikula**, Amaia antzokian, 19:30etan hasita. Dead Boys and The Lords of The New Church taldeetako abeslari izandako Sitv Barorsen bizitzari buruz.
- **Eguaztenean, hilak 10, *Rocka eta euskara, zozoak beleari ipurbeltz? mahai-ingurua***, 19:00etan, Kulturaten. Unidad Alavesa taldeko Haritz Artola abeslaria, Garbiñe Ubeda idazle eta diseinatzailea eta Josu Ximun Billelabeitia Belako eta Lukiek taldeko gitarra-jolea izango dira hizlariak.



Sindikatuaren etxea okupatu zutenekoa, Maalako biribilgunetik aterata. EZ DONK AMAITU

herritarrei gerturatzea, eta horretarako antolatu dute rockaren bizipenetatik abiatuko den solasaldi sorta. Euskararen eta musikaren arteko erlazioari buruzko mahai-ingurua izango da jorratuko duten lehen gaia, hilaren 10ean. Hasiera batean, Josu Zabala Hertzainak taldeko sortzailea zen gonbidatuetakoa bat, baina, azkenean, ezin izango da etorri, eta haren lekua Haritz Artolak hartuko du.

90eko hamarkadan hasi zuen goierritarrek musika ibilbidea, besteak beste, aurreko belau-naldiko rock taldeetatik edatearen ondorioz: "Orduan entzuten genituen %60k ingelesez egiten zuten, %30ek gazteleraz eta %10ek euskaraz". Dio horregatik irteten zitzaiela "natural" erdaraz idaztea, baina denborarekin jarrera aldatu zuela: "Euskarazko talde asko irten dira azken urteetan, eta ohartzen zara, posible izateaz gain, hautu hobia dela".

Hala ere, jakitun da oraindik euskaldun askok baztertzen dutela euskaraz abestea: "Esango nuke Espainiara eta nazioartera irteteko gogoagatik egiten dutela, baina konplexu kontua da, Berri Txarrak taldeak erakutsi baitu mundura modu duinean joan zaitezkeela".

Hurrengo mahai-inguruan feminismoa izango dute helduleku. Bertan egongo da bere bizipen eta pentsamenduak kontatzen Itziar Ziga aktibista eta kazetaria. Ultimo Resorte

ko abeslariarekin, Silvia Resortearekin, bat egiten du punkak "iraungitze datarik ez" duela baieztatzerakoan. Era berean, dio mugimendu horrek "generoen arteko nahasmena" erraztu duela: "Neska punkek egurra banatzen zuten, eta, mutil askok itxura makarra zeramaten arren, kontatu zaigun baino *marikoneo* gehiago egon zen".

Zigak honela alderatu ditu garaiak, generoa aintzat hartuta: "Orain ez da erraza, baina lehen zailagoa zen homosexuala edo transa izatea; urteekin ikusgarriago egin da gaia".

Azken solasaldiari izenburu irekia jarri diote: *Rokanrola drogier donk*. Arrasaten behin baino gehiagotan jotako Tahures Zurdos talde nafarreko Aurora Beltran abeslaria entzuteko aukera egongo da, besteak beste, mahai-inguruan. Euskal Rock Erradikala izenez bataiatu zuten mugimenduaren parte izan zen. "Gure gurasoek errebindikatu ezin izan zutenari eta gure inguruan gertatzen ari zen guztiari soinu banda jarri genion, modu bortitzean. Ezinezkoa zen beste modu batera egitea, iragan bortitz batetik

## BIONAKO BISITEK IKUSMINA SORTU DUTE; ORAINDIK EMAN DAITEKE IZENA KULTURATEN



Maileguz har daitekeen liburu bat.



Kepa Altuberen 86ko kartela.

gentozelako", adierazi du Beltranek.

Belaunaldi gazteak nola ikusten dituen galdetuta, dio ez dutela iraganarekiko interes handirik erakusten, "agian, deserosoa" egiten zaielako. Horregatik, ez du "amonaren baitailatxoak" kontatzera etorri nahi, zerbait eraikitzailea egi-tera baizik: "Baina hori lortzeko, aurrean dagoenak entzuten eta enpatizatzen jakin behar du, bestela ez baitu ezer ikasiko; eta besteek norberaregandik ikastea nahi duenak eredu garria izan behar du".

Iraganetik ikasteko beste modu bat da Kulturateko liburutegian jarri duten 57 liburuko gida, lurrean jarri dituzten zapa-marken bidez aurkitu daitekeena. Sortarik Iker Barandiaran *10 elkarrizketa*, Marian Porcelen *Todo saldrá bien*, Arrasateko gaztetxeari buruzko *XXX hiru hamarkada luze*, zazpi emakume musikariren biografia biltzen duen *God Save the Queens: pioneras del punk* eta *Larga vida a RIP* tituluak nabarmendu daitezke, adibidez.

Nahiz eta garaiak aldatu diren, punka amaitu dela baieztatzea ausarkeria dela ondoriozta daiteke. Baina amaitzekotan, noiz izango da? Hementxe Inurragiren erantzuna: "Punka gustuko duen azkena hiltzen denean". Bien bitartean, "mugimendu bortitz" horren izena, izana, jatorria eta geroa ziurtatuta egongo dira.





GKSk Bergaran egindako ekitaldi bateko irudia. 'GEDAR.EUS'

# GKSren Leintz bailarako aurkezpena, Arrasaten

Gazte Koordinadora Sozialistak gaur eta bihar emango du bere buruaren berri, kapitalismoaren eta "faxismoa borrokatzeko estrategien" gaineko bi hitzaldirekin. Egitaraua amaitzeko, Streetwise, Crap eta Herdoil taldeek joko dute gaztetxean

**Julen Iriondo M. de Zuazo** ARRASATE Gaur, egubakoitza, 19:00etan Kulturaren egingo duen hitzaldiarekin hasiko du GKSk Leintz bailarako aurkezpenarako prestatu duen egitaraua. *Gazteak eta bizi eredu kapitalista* izango da izenburua, eta erakundeko kideek honela azaldu dute gaiaren funtsa: "Bizi eredu jakin bat bizitzera bideratzen du burgesiak gazteria, eta, bizi eredu horretatik, burgesiak lortzen duena da gazteriarekiko kontrola eta etekin ekonomikoa ateratzea".

Biharko hitzaldia, berriz, 11:30ean izango da, hori ere Kulturaren. "Faxismoa borrokatzeko estrategien inguruan" izango da: "Krisi garaietan faxismoak gorakadak izaten ditu beti, eta hori izaten da faxismoak askotarik jendearengana heltzeko. Horren aurrean, proletario masarengana heltzeko alderdi politikoen ezintasuna ikusten da; horiek ez dira identifikatuta sentitzen alderdi politikoei sal-

tzen dizkieten politikekin, eta, faxismoaren diskurtsoa errazena denez, bertara jotzen dute". Hitzlariak "mugimendu sozialistako kideak" izango dira bi hitzaldietan.

Egitaraua amaitzeko, bihar, 22:00etan hasita, kontzertuak izango dira gaztetxean, Crap arrasatearrek eta Streetwise eta Herdoil iruindarrekin. Sarrerak emanaldia hasi aurretik salduko dituzte han bertan, bost eurotan.

**Erakundearen nondik norakoak** Gazte Koordinadora Sozialistak "klaserik gabeko gizartearen eraikuntza" dauka helburu, bai eta "zapalkuntza eredu guztiak gainditzea" ere: "Horretarako

**BURGESIAK GAZTERIA BIZI EREDU JAKIN BATERA BIDERATZEN DUELA DIO GKS-K, KONTROLERAKO**

bitarteko politikoa proletario-tzaren antolakuntza komunista dela defendatzen dugu, burgesiaren independentzia politikoan antolatu behar dena".

Gazteen esparruko antolakuntza da, gazteen artean "botere burgesaren askotariko dinamikak borrokatzeko eta, aldi berean, gazteria antolakuntza komunista batzen joateko" asmoz diharduena: "Alde horretatik, askotariko lan dinamikak jartzen ditugu martxan: askatasun politikoen aurkako erasoak salatzeko dinamikak; gazteriaren formakuntza politikoa bultzatzeko ekimenak; unean uneko auzien inguruan hausnartzeko jardunaldiak; militantzia politikorako beharrezko espazioak ondo jartzeko lan egunak; eta abar, eta abar".

GKSren lana "euskal estatu sozialista lortzera eta proletario-tzaren antolakuntza komunista eskala eta esparru guztietara zabaltzera" dago bideratuta, diotenez.



Garaian bertan 2016an egindako Tokikom Jardunaldiak. GOIENA

## 'Hala bazan' saioa, Tokikom sarietako finalisten artean

Hilaren 12an ezagutuko dira sarituak, nazioarteko gonbidatuekin egingo diren jardunaldien barruan

**J.I.M.Z. ARRASATE**

Espainiako *elDiario.es*-eko, BBC-ko eta Flandriako *Het Belang van Limburg* egunkariko esperientziak ezagutzeko aukera egongo da datorren egubakoitzean Arrasateko Garaia Parke Teknologikoan egingo diren Tokikom Jardunaldietan.

Esther Alonso izango da lehen hizlaria: aditua da estrategia digitaletan eta berrikuntza eta marketin sozialean, besteak beste; *elDiario.es*-en kideztza programaren estrategia definitzeko eta gauzatzeko ardura du, kide berriak eta erabiltzaile erregistratuak eskuratzetik hasi eta konbertsio eta atxikipen estrategietaraino. Komunitatearen lanketaz jardungo du jardunaldietan.

Flandriatik iritsiko da, berriz, Arno Schepers, eta bere egunkariak dituen euskarrietan -papa, webgunea eta aplikazioa-

kideen figura uztartzeko egingo dako lanketa sakona izango du hizpide bigarren hitzaldian.

Azkenik, BBCren eta toki komunikabideen artean josi duten komunitateaz jardungo du Matthew Barraclough-ek.

**Lau sari ere bai**

Hitzaldiekin batera, Tokikomeko hedabideetako azken urteko lanik onenak saritzeko ekitaldia ere izango da gaur zortzi Garaia Parke Teknologikoan. Publikoaren erabakiz emandako Komunitatearen Sariarekin batera, azalik, edukirik eta ikus-entzunezko onenaren sariak banatuko dituzte, epaimahaiaren ebazpena ezagututa. 57 lan aurkeztu dira, denera, eta hiru sarietako bederatzi finalistek artean dago Goienaren *Hala bazan* saioa, 90eko hamarkadako Arrasate Telebistaren artxiboko materialarekin egindakoa.

## Bilborako dei egin dute Goieskolako eskola publikoek

Bailarako ikastetxeek herritarrak gonbidatu dituzte Euskal Eskola Publikoaz Harro! Topaguneak bihar, zapatua, Bilbon egingo duen manifestaziora; eskola publikoaren aldekoa eta pribatizazioaren aurkakoa izango da, eta guraso elkarteek autobusak antolatu dituzte Oñatitik, Arrasateetik, Bergaratik, Aretxabaletatik eta Eskoriatzatik.



Ipintza institutuko kideak. IPINTZA





# DEBAGOIENeko OSASUN ZERBITZUAK



## DENTISTAK

### ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behe / 943 79 95 60

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behe / 943 76 00 23

### ANE LASAGABASTER

Arrasate / Oñalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.  
943 79 13 68

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

### BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

### GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iralabarri 15 / 943 53 42 63

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

### SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

### TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behe  
943 79 20 18 / 620 12 48 43

## DIETETIKA

### BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

## ENTZUMEN ZENTROAK

### INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68  
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## MASAJISTAK

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

### AGUSTIN SAGASTA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

### BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

### MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3  
943 79 44 22

## PODOLOGOAK

### ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk.  
943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g  
943 76 07 84

## PSIKOLOGOAK

### NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

### VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

### IÑAKI MADARIAGA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11



ZABALIK

IBAN PEREZ HERNANDEZ

## Ordu aldaketa egitea desiratzen...

Berriro ere orri zuriaren aurrean nago, baina, oraingoan, neguko ordu aldaketa egin denean tokatu zait zutabe honetarako hitzak idaztea. 2021. urtean, gainera, zubi batean egitea tokatu da.

Ez zait gustatzen urtero jasan behar dugun aldaketa hau; badakit, gero udan berriro aldatuko dute ordua, eta, orduan, beranduago ilunduko du; baina, hala ere, hori kontuan izanda ere, ez zait gustatzen oraingo aldaketa.

Gainera, egun batetik bestera ezberdintasunak izugarriak dira. Egia da ordubete lehenago iluntzen duela, baina ordubete denbora luzea izan daiteke, 3.600 segundo bakarrik diren arren.

Denbora ondo aprobetxatuz gero, denok dakigu gauza asko egin daitezkeela, nahi izanez gero.

Datu etsigarri bezala, gainera, iluntzen duen ordua punturik altuenera iritsi arte, oraindik egun batzuk igaro behar dira.

### GAUR EGUN, ESKU-ESKURA DITUGU HAMAIIKA BALIABIDE OSO ENTRETENITUTA EGOTEKO

Baina ez gaitezen negatiboak izan, zerbait ona izango duelako... Gure etxean elektrizitate kontsumoa

handitu egingo da, kalean arratsaldean ibiltzea desatseginagoa izango da... Ez, oso zaila egiten zait aldaketa honi zerbait ona ikustea.

Bere garaian komentatu zidaten orokorrean energia kontsumoa ez hain handia izateko zela aldaketa hau, baina oraindik konbentzitu gabe jarraitzen dut.

Zerbait ona aurkitzen badiot honi... Izan daiteke aitzakia dugula kalera ez ateratzeko eta sofán eserita manta azpian kultura ordu luzez kontsumitu ahal dugula. Gainera, denok dakigu gaur egun oso eskura ditugula hamaika baliabide oso entretenituta egoteko, giro hobea heldu arte.

Beraz, jarraituko dugu murgilduta gauden proiektuetan eta kaletik alenduko gara denbora batez, baina itzuliko gara, zutabe honetara noizean behin itzultzen naizen bezala.

Hurrengo zutabera arte, negu giro on!

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Zaharrago ikasgurago

BLANCA URGELL  
'BERRIA'-N ARGITARATUA  
[HTTPS://LABUR.EUS/7J2HP](https://labur.eus/7J2HP)

Halako batean, ez bat ez bi, iristen da zaharra sentitzen zareneko eguna. Ez "señora" esan zizuten lehen aldian bezala, ez "gazte horiek" esateko moduan, ezta belaunek edo begiek ondo erantzuten ez dizutenean bezala ere, baizik eta barru-barrutik. Norbaiti txiolandian irakurri diodanez, zeure zaharkitze programatuaren berri zehatzaren jakitun. [...]

Eta zer da zaharra izatea, etimologikoki hitz eginik?

Ingeleseztik *old* eta alemanez *alt* aitzingermanikoko *\*aldaz*

'hazia, heldua' partizipiotik omen. Latinez bi hitz zeuden, *vetus* eta *senex*, nondik gaztelaniaz *vetusto*, *senectud* eta frantsesez *vétuste*, *sénescence* datozen, besteak beste. *Senex* 'zaharra' adierako indoeuropearazko erro batetik omen dator. Bera da latinezko *zahar* zaharra, beraz; *vetus* 'urtea' adieratik 'zaharra'-ra aldatu zen beste batetik, osteraz.

Euskaraz, bazter ditzagun lehenik *zar*, *xar* eta *txar* aldaerak, jatorritik askatu eta adiera gaitzesgarria hartu dutenak. Lergako *Ummesahar* Erroma garaiko pertsona-izenaren esangura asmatzen gaitza bada ere ('ume nagusia' ez ote?), begi-bistan dago ez

dela txarra. Bada, *EHHE*-koak zuzen baleude, are positiboagoa litzateke etimologiaren arabera: *\*zah-ar* zatituz gero, hasieran *\*zan* geneukake, hala *zain* 'erroa' (*\*zan-i*) nola *izan* aditza sortu zituzkeena. Honi (*k*)or atzizkia gehituta, *\*zahor* > *zahar* gertatu zela egin genezake, asimilazioz, *hazkor* > *azkar* bezalaxe.

*Zaharra* 'zain-korra' litzateke, hortaz, 'zainak botatzeko joera duena'-edo. Herenegungo *Berria*-n Elena Urizek zioenez, "proiektuak dituzun bitartean bizia eta gaztea zara". Aspaldiko *Refranes y Sentencias*-ek ez zuen okerrago definitu: "Zaharrago ikasgurago".

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkartea  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**  
Monika Belastegi.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.  
**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Igone Osinarte.

**Sailkatzaile arduradunak**  
Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
**Maketaziora**  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.  
**Publizitate**  
Mireia Larrañaga,  
Ziortza Martín,  
Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**  
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[harpidetza@goiena.eus](mailto:harpidetza@goiena.eus)

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
[publi@goiena.eus](mailto:publi@goiena.eus)  
**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 19.000 ale  
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**



## BERBAGAI

# "Aspaceko erabiltzaileei ere gustatzen zaie kalera irtetea"

ENEKO ZIARSOLO GIPUZKOA ASPACEKO ZUZENDARITZA BATZORDEKO KIDEA

**Larraitx Zeberio Lekuona** BERGARA

Aurten beteko ditu 50 urte Aspace elkarteak. Batzordekidea da Eneko Ziarsolo (1970, Bergara). **Elbarritasun zerebralak dituztenei eta haien familiei babesa eskaintzea da elkartearen xedea.**

Bai, halaxe da. Gure kasuan, 11 urteko semea dugu eta Aspaceko eskola batean dago; Eskoriatzako Luis Ezeiza Herri Eskolako tximeleta gelan. Urte eta erdi ingururekin hasi zen arreta goiztiarra jasotzen. **Zer aurkitzen du Aspace elkartearen bertara gerturatzen den familia batek?**

Alde batetik, laguntza profesionala eta espezializatua topatzen ditu. Bestetik, laguntasuna, elkartasuna... Hurbiltasuna eta goxotasuna ere bai.

**50 urte dira guraso talde batek Aspace sortu zuela. Gizartea oso bestelakoa izango zen orduan.** Zalantzarik gabe. Orduan ez zegoen garun paralisiaekin



Eneko Ziarsolo. ASPACE ELKARTEA

zein antzerako gaixotasunekin lotutako zerbitzurik ematen zuen erakunderik. Eskoletan ere ez zegoen laguntza handirik horrelako kasuetarako. Gehienak etxean geratuko ziren.

**Baliatuko duzue urteurrena ibilbide honetan egindako lana ezagutzera emateko eta gaur egungo aldarrikapenak ikustarazteko.**

Garrantzitsua da, bai. Gehienetan eguneko

zentroetan eta eskoletan egoten gara, baina guri ere kalera irtetea gustatzen zaigu eta gure erabiltzaileek laguntza behar dute horretarako. Boluntarioen laguntzari esker irteten dira kalera, nahiz eta pandemia sasoian zailagoa izan zen. Nahi dugu urteurrena baliatu egiten dugun lana gizarteratzeko. Eguneko zentroetan, esaterako, saskigintza egiten dugu, eta saski horien salmentatik gure erabiltzaileek soldata bat jasotzen dute... Halakoak ere ezagutzera eman nahiko genituzke, bai.

**Gipuzkoan hamabost zentro ditu Aspacek; tartean, bailarakoak. Presentzia hori edukitzea garrantzitsua da?** Debagoienari dagokionez, Bergaran eta Arrasaten gaude. Bergaran eskola eta eguneko zentroa ditugu. 40 bat urte izango dira eguneko zentroa zabaldu zela, eta eskolan zerbitzua jasotzen dute 3-21 urte arteko erabiltzaileek. Arrasaten, berriz, eguneko zentroa eta etxebizitza ditugu. Arrasateko egoitza izango da tamainaz handienetakoa, eta duela 15 bat urtetik dago zabalik. Gero, Eibarren ere baditugu beste zentro bat eta eskola; Debabarrenean, alegia.

**Elkarrekin gai + gara lelopean ospatuko duzue 50. urteurrena. Gure bailarara ere helduko da?** Azaroaren 23an ekitaldi bat egingo dugu Kulturaten. Prestaketa lanetan dihardugu oraindik, baina helburua da Debagoieneko lehenengo erabiltzaileen familiak elkartzea eskerrak emateko. Horrez gainera, guk lau zutabe ditugu: erabiltzaileak, familiak, profesionalak eta boluntarioak, eta horiei guztiei ere aitoriza egin nahi diegu. Ekitaldi xumea izango da, baina uste dugu polita izango dela.

**Aurrera begirako erronkak ere izango dituzue. Zeintzuk dira nagusiak?** Inklusioarena azpimarratuko nuke nik. Eibarren eta Arrasaten ikastetxeetan ditugu gela egonkorak. Hala, gure erabiltzaileek egunero dituzte hartu-emanak gainerako ikasleekin. Bergaran, aldiz, gure eskola burbuila moduko bat da, eta erabiltzaileak isolatuta bezala daude. Gure helburua litzateke institutu baten barruan egotea. Eibarren antzerako zerbitzu gertatzen zaigu: eskola baten ondoan daude, baina ez barruan. Lanketa horretan hasita gaude. Erronka garrantzitsua da guretzat.

## ITURRI ONETIK

### Jon Olivares, Netflixen azken lanean

Jon Olivares –*Patria, Altsasu...*– aktore bergarra jo eta su lanean ari da azkenaldian. Madrilen, oraingoan. Netflixen *Sagrada familia* ari da grabatzen. Manolo Caro mexikarraren zuzendaritzapean, urrian hasi dituzte grabaketa lanak. Olivaresek Najwa Nimri eta Alba Flores izango ditu lankide. Hartara, Netflixek lan horretan batuko ditu berriro *La casa de papel*-eko aktore protagonistetako bi. Alex Garcíak eta Macarena Gomezek ere osatzen dute aktore-taldea.

## ALBISTE IZAN ZEN

2013-11-02

### Azken agurra Miguel Gonzalez Bastidari

Miguel Gonzalez Bastida Bergarako Musika Bandako zuzendaria hil zen 2013ko urriaren 31n, Bergaran, 93 urte zituela, eta haren omenezko hileta elizkizunak egin zituzten San Pedro elizan azaroaren 2an. Bandako kideek eroan zuten hilkutxa. Bergarako Bandak Chopinen *Hileta martxa* jo zuen gorpua elizara sartzen zuten bitartean, eta elizkizuna bukatu ostean, Gonzalez Bastidak berak moldatutako *Agur jaunak* pieza.



GOIENA

## HAU BE BADOGU!

### 'Trending topic' izan da Arimen Gaua

@enekogara: "Beldurgarriak dira argindarraren, gasolinaren eta erosketaren prezioak #ArimenGaua".

@dantzan: "Euskal Herrian aspalditik ospatu izan da Halloween, baina hemen, Arimen Gaua deitu izan diogu. Orain dela urte gutxira arte ospatu izan dugun festa da, baina ohitura alde batera uzten joan gara".

@jaimealtuna: "Arimen Gaua: gaztainak, janaria, mozzorak, basaldunak, kalabazak... Iluntasuna eta argia, beldurra etapoza... Musika, dantza, bertsoa... Haurrak, gazteak, helduak, herria... Euskara. Biba zuek!".

## Ni ez naiz inor zure etxean sartzeko...

ASIER ELORZA GURRUTXAGA  
BERGARA

Gutun honen xedea Jon Molinak urriaren 29an idatzitako gutunari erantzutea da.

Ez dut uste inor "iraindu" dudarik; "ironizatu" egin dut eta hitz jokoak erabili ditut errealitate bat aurkezteko –hori da nire idatzien estiloa–, eta, bide batez, nire iritzia eman eta irakurleen hausnarketa eragin nahian.

Baina ikusten dudanez batzuek ironia ulertzen ez dutela, eta argudioak eskatzen dituzunez, hementxe doaz nire zutabeen esan nahi nituenak modu aseptikoan, galdera formatuan:

Zergatik emakumeak ezin dira ama santu izan? Eta apaiz?

Zergatik ditu Elizak pribilegio fiskal eta ekonomikoak?

Zergatik inmatrikulatu dituzte herri askotako eraikin eta terrenoak?

Zergatik kristautu izan dute mundu erdia indarrean?

Zergatik Erromako mandamasek, urre artean bizi diren

bitartean, kontrakoa predikatzen dute?

Zergatik esan izan dute homosexualitatea gaixotasun bat dela?

Zergatik ezkutatu eta babestu dituzte pederastia kasu pila bat? Portzietto, non dabil Kakux?

Zergatik...? Uf, kabreatzen hasi naiz...

Galdera hauei guztiei –eta beste askori– erantzun logiko bat emateko gai bazarete... argi dago nirekiko mundu paralelo baten bizi zaretela.

(Honaino, serio formatua; hemendik

aurrera, ironiara bueltatuko naiz)

Seguru inkisizio santuari gustatuko litzaiokeela esaldia: "Ezberdin pentsatzen dugunon arteko elkarrizketa aberasgarria eta bizikidetzaz oztopatzen...".

Fisioterapia eta masaje saio ederra emango lidakete lehenengo; eta ondo *txurraskatu* ondoren infernura bidali. A, ez. Orain, Elizak esan omen du infernua ez dela existitzen, eta linboa ere ez... Honi

*torkemado* usaina hartzen diot.

"Ezberdinen arteko bizikidetzaz baketsua eta elkarrizketa sustatzearen premia"? Homosexualak barne? Edo *komodiosmandakoak* direnak bakarrik? Beldur gabe kanta dezagun.

Galdera deseroso hauek egin ondoren, gutxienez deskomulgatu egingo nautela uste dut... A, ez. Hori ere ia ezinezkoa dela, inskribatu kopurua ez jaistea komeni zaielako?

Ni munduko erregea banintz... Kristo erruki!

## Txertoen gaineko eztabaida

JOSU GARITAONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT'  
EGITASMOAREN ARDURADUNA  
BERGARA

Aurtengo irailaren 18an egin zen COVID-19aren gaineko debata. Alde batetik, iritzi orokorra defendatzen dutenak: Maria Luisa Carcedo, Osasun ministro izandakoa; eta Manuel Martinez-Selles, Madrilgo Sendagileen Eskolako lehendakaria. Beste aldetik, bertsio ofiziala zalantzan jartzen duten hiru sendagile, nahiz eta, eztabaidaren erdian, ofizialtasuna defendatzen zutenak altxatu eta joan.

Hala ere, oso aberasgarria iruditu zait, pila bat gustatu zitzaizkidan Juan Jose Martinez sendagile gipuzkoarrak esandakoak; ikustera animatzen zaituztet: La Clave Cultural TV: <https://la.clavecultural.wixsite.com/my-site>. Ea zer iruditzen zaizuen..

Federico Ruiz de Lobera kazetariaren lana goraipatzekoa da; bukaera esan zuen gizarte bezala hobetu nahi badugu iritzi desberdinak dituzten pertsonak entzuten eta lasai eztabaidatzen ikasi behar dugula.

## Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna


Idatzi zure gutuna eta bidali  
***gutunak@goiena.eus*** helbidera!

## Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / [gutunak@goiena.eus](mailto:gutunak@goiena.eus)

## HAUXE BAI JENEROA!

GARBIÑE UBEDA





# **Okm:** *batzen gaituen distantzia*

**Egin zaitez goienakide!**

**goiena<sup>“</sup>  
kide**



[www.goiena.eus/kideak](http://www.goiena.eus/kideak)







Agustín Aranburu Zabaleta, Gregorio González Rubio eta Jesús Uranga Urrutia. INTORTA 1937 KULTUR ELKARTEA

## Memoriaren Egunarekin batera, aitortza ekitaldia

Arrasateko udalbatzako alderdi guztien ordezkariak duen Bizikidetzak batzordeak erabakita, Arrasateko Udalarekin lotura zuten Jesús Uranga Urrutia, Agustín Aranburu Zabaleta eta Gregorio González Rubio omenduko dituzte azaroaren 10ean udaletxean

### Eneko Azurmendi ARRASATE

Jesús Uranga Urrutia udal-hautetsia eta bigarren erregidorea izan zen Arrasateko Udalean; Agustín Aranburu Zabaleta, udaletxeko kontu-hartzailea; eta Gregorio González Rubio, gaueko guarda. Hirurak 1936ko altxamendu frankistaren ondorioz hil zituzten, eta batzordeak erabaki du hirurak izatea protagonista

nista azaroaren 10ean, Memoriaren Egunean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan egingo duten ekitaldian, 19:00etan.

Aurreko agintaldian, memoria eta bizikidetzak lantzeko bideari ekin zion Arrasateko Udalak. Ordutik, Udalean ordezkariak politikoa duten alderdien lankidetzarekin, 1936-2018 urteetan herrian jasandako indarkeriaren

eta giza eskubideen urraketen memoria berreskuratzeko urratsak egin dituzte, eta biktimak guztiak oroitzeko eta aitortzeko bideari hasi. Lehenik, Isaias Carrasco ETArekin biktimari egin zioten aitortza; iaz, German Agirre eta Iñaki Etxabe omendu zituzten, Inkontrolatuen eta Batallón Vasco Españolen biktimak. "Senitartekoak eta udal orde-

### Adierazpen instituzionala

Oroimen eta aitortza ekitaldia, erail zituzten Jesús Uranga Urrutia, Agustín Aranburu Zabaleta eta Gregorio González Rubioren alde, udal hautetsi eta udal langile zirenak 1936ko irailaren 26an tropa frankistak Arrasaten sartu zirenean.

### Azaroaren 10ean, Arrasateko osoko bilkuren aretoan

Arrasateko Udalak erabaki du hautetsi bat eta udal langile bi oroitu eta aitortzea, udalarekin lotura zuzena zutenak eta erailak 1936an tropa frankistak Arrasaten sartu zirenean, bertan ordezkariak duten alderdi politiko guztien arteko kontsentsuari esker. Ekitaldi honen bitartez, Bizikidetzak batzordeak bere egin nahi du aurreko legealdian hartutako konpromisoa, hartu zena aitortzaren bide honi jarraitzeko. Legealdi honetan, azaroaren 10a biktimen memoria eguna izanik, adostu dugu data hau baliatzea gure herriko biktimak oroitzeko. Ekitaldi hau antolatzerakoan ere, oinarri hartu dira Intxortak Argituzek egindako liburuak, alderdi guztien oinarritzko kontsentsua dutenak. Bertan jasotzen dira euren giza eskubideak urratuak ikusi zituzten biktimak, eta horiek oroitu gura ditugu hemen.

Jakinda altxamendu frankistaren ondorioz Arrasaten biktima asko izan direla, oraingo honetan, erailak izandako Jesús Uranga Urrutia udal zinegotzia, eta Agustín Aranburu Zabaleta eta Gregorio González Rubio udal langileak oroitu eta aitortu gura ditugu. Ekitaldi honen bitartez, Arrasateko Udalak jarraipena ematen dio orain hiru urte udal ordezkariak aitortza adierazteko abiatutako bideari.

Ekitaldi honek zuzenean bilatzen du hildako hiru biktimen aitortza eta euren senideen erreparazioan laguntzea, bai eta beste urrats bat ematea ere Arrasateko bizikidetzaren alde.

Eta bide batez Arrasateko Udalak arrasatear guztiak gonbidatzen ditu ekitaldi honetan parte hartzea.

kariok bakarrik egon ginen. Izan ere, pandemiaren eraginez, ez zen posible izan aretoa jendez betetzea", azaldu du Bizikidetzak batzordeko kide Anuska Ezkurak. "Orain, ez dugu mugarik, eta espero dugu aretoa betetzea", gaineratu du. Herritarrei gerturatzeko dei egin die.

### Hiru helburu ditu ekitaldiak

Ekitaldia antolatzeko, aurreko agintaldian Intxorta 1937 kultur elkarteak eta Argituz elkarteak egindako liburuak hartu dituzte oinarri. "Euren giza eskubideak

urratuta ikusi zituzten biktimak jasotzen dira, eta horiek gogoratu nahi ditugu". Hiru helburu ditu ekitaldiak: hildako hiru biktimen errekonozimendua, biktima horien eta haien senideen erreparazioa eta bizikidetzarako beste urrats bat egitea.

**AZAROAREN 10EAN, UDALETXEKO OSOKO BILKUREN ARETOAN EGINGO DUTE SAIOA, 19:00ETAN HASITA**

## Osoko bilkura presentziala egin dute asteon, urtebeteren ostean

2020ko urrian egin zuten azkenengoz modu horretan, eta, ordutik, telematikoki egin dituzte, pandemiagatik

### E.A. ARRASATE

Martitzeneko osoko bilkuran, San Juan etxe multzoko eraikinak babesteko dokumentua onartu zuten; egun indarrean dagoen historia eta arkitektura katalogoaren dokumentazio osa-

garria izango da. "Bizilagunekin elkarlanean, auzo horretarako babes baldintza batzuk onartu ditugu. Esaterako, ze kolorez margotu daitezkeen fatxadak, leiho-ateek nolakoak izan behar duten eta abar", azaldu zuen

Maria Ubarretxena alkateak. EH Bildu eta Elkarrekin Arrasate abstenitu egin ziren, Udal Gobernuak *Ekobulebar*-aren baitan bizilagunekiko izan duen jarrera dela eta: "Proiektutik atera dituzte, arkuak botatzaren kontra mobilizatu zirelako".

Bestalde, onartuta geratu zen Arrasaten eguzki-energia hartzeko sistemak instalatzea arautuko duen ordenantza, eta hor ere abstenitu egin ziren bi koalizioak: "Gaia ez da ganoraz landu oposizioarekin".



Urtebeteren ostean, osoko bilkura presentziala egin zuten martitzenean. E.A.



# TAO sistema abenduaren 4an jarriko dute martxan

Bi hilabetez proba modura funtzionatuko du, hau da, isunik gabe; kontrako hainbat ahots entzuten ari diren arren, erabakia irmoa da. "Arrasatear askok eta askok parte hartu duten parte-hartze prozesua errespetatu egin behar da", azaldu du alkateak

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

"Oso prozesu luzea izan da, 2016an hasitakoa. Aho batez onartu genuen Mugikortasun Planak aurreikusten zuen TAO sistema ezartzea. Gerora, prozesu parte-hartzaile izugarri bat egin genuen, hilabeteak iraun zuena. Bilera irekiak ere egon dira eta arrasatear askok eta askok hartu dute parte. Beraz, uste dugu prozesu hori errespetatu egin behar dela", nabarmendu du Maria Ubarretxena alkateak.

**Biteriko txartela, "pribilegioa"**

Martitzeneko osoko bilkuran, TAO sistemaren harira, Biteriko aparkalekuko txartelen gaia atera zuen oposizioak. "21 zinegotziok daukagu txartel hori, ez ordaintzea ahalbidetzen diguna. Alde horretatik, pribilegiatuak gara. Beraz, oposizioko alderdiok uko egin diogu, baina Udal Gobernuak zinegotziek erabiltzen dute", azaldu zuen Elkarrekin Arrasateko Eva Abuinek.

EH Bilduko Maider Morrased gaineratu zuen eurek ere uko egin diotela txartelari: "Herriarrek dituzten kargak guk ez edukitzea ez litzatekeelako bidezkoa". Nerea Hernandez zinegotziak badaukala onartu zuen Morrasedek, "badaezpada, berandu irits daitekeelako lanetik, baina azken urte eta zortzi hilabeteetan ez du erabili".

Alkateak adierazi zuen Udal Gobernuak kideek lanerako bakarrik erabiltzen dutela txartela, eta ez dutela "inongo arazorik" hori erakusteko, eta zera gaineratu: "Aspalditik, agintaldiz agintaldi, egon den aukera bat da. Gobernuan sartu ginenean, erregulatutako egin genuen txartelen erabilpena, aurretik ez zegoelako erregulatuta. Ordutik, matrikula eman behar da eta agerian jarri zertara zoazen. Beraz, datuak aterako ditugu, noiztik erabiltzen diren txartelak eta ze zinegotzik erabili izan dituen".



Udal langileak, TAO makinak jartzen, Otalora Lizentziaduna kalean. JOKIN BEREZIARTUA



Martitzenean udaletxeko arkupeetan egon ziren sinadurak batzen. E.A.

## Sinadura bilketa, TAO ezeztatzeko

TAOren harira, "herriarren haserre" bideratzeko taldea sortu dute zenbait arrasatearrek. Udal Gobernuak ezarri nahi duen sistema "inposizioa" dela salatu dute, eta sinadurak batzen hasi dira, TAOren moratoria eta erreferenduma eskatzeko. 415 sinadura batu dituzte eta gaur, egubakoitza, Arimazubi plazan egongo dira, 17:00etan –taberna eta komertzioetan ere badaude orriak–. Datorren astean auzoetan jarriko dituzte mahaiak, eta horietan boluntario lanak egiteko deialdia egin dute. Hala, interesa duenak [EraginArrasate@gmail.com](mailto:EraginArrasate@gmail.com) helbidera idatzi dezala.

Herriar guztien ahotan dago aparkatze sistema. Hain zuzen, herriar bat Gobernuari zuzendu zitzaion osoko bilkuran: "Ez duzue herriarregan pentsatu. Izugarrizko nahasmena da, hainbeste koloreekin. Arazoak konpondu egin behar dira, eta ez sortu".



NIRE USTEZ

ITSASO ERRETOLATZA

## Apaltasuna. Anbizio justua

Baliabide mugatuek agintzen dute ekonomia errealean, ez dago gehiago dirua fabrikatzerik; beraz, sormena aplikatu beharko da herria diseinatzerakoan. Proaktiboak izan erreaktiboak beharrean. Geltoki inprobisatua adibide. Birritan eraiki beharrean, alde aurretik plan urbanistikoan ondo pentsatua balego, merkeago denontzat.

Zenbat diru kostatzen da bidegorri sarea espaloi gainetan... Deskarbonizazioaren bidean, hirian 30 km/h abiaduran, bizikletaz ere errepidetik joateko bi marra margotzea besterik behar ez denean, mapa osoa berehala osatuz.

Aisialdia, diseinatu al da gura dugun eredua? Ideia batzuk: terrazetatik at adin guztietarako kirol eta kultur esparru irekiak eta anitzak nahieran aritzeko, aterpeak ere bermatuz...

Probestu ditzagun parkingak, azokarena bera ere. Prezio berean, hobe aterpean aparkatu, eta kaleak oinezkoentzat hedatu.

Bizikletak alokairuan nonahi jarri. Naturarekin konektatu, parkeak irisgarri egin, gozatzeko diseinatu.

Hirigintzatik hasten baita herria eraikitzen.

## GORA ETA BEHERA



E.A.

## Ferixalekuko igogailua, hondatuta

Ferixalekuko igogailuak zerbitzuz kanpo darama hainbat aste, eta herriar batek ardura azaldu du: "Urri amaierarako martxan jarriko zutela esan zuten. Noiz konponduko dute igogailua?".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.

**GALLAS**  
Leiho eta pertsiana  
konponketak

PVC eta aluminioa  
Ardatz aldagarriko leihoak  
Pertsiana motorizatuak

617 81 38 02  
[gallasleiho@gmail.com](mailto:gallasleiho@gmail.com)



Mondravember ekimeneko kideek joan den egubakoitzean atondu zituzten biboteak, King's ile-apaindegian. MAIDER ARREGI

# Biboteak prest, azaroan aldarria ikusarazteko

Prostatoko eta barrabiletako minbiziaren gainera sentsibilizazioa eta kontzientziak helburu duen Mondravember ekimenak hilabete osoarako egitaraua osatu du aurten ere, gaitz horien ikerketarako dirua batzeko; azaroaren 27a izango da egun handia

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Ohiturari jarraituz, King's ile-apaindegian elkartu ziren joan den egubakoitzean Mondravember ekimeneko hainbat kide, bibotea atontzeko. Hain zuzen, ile-apaindegi horretan azaroan egiten dituzten bizar-mozketa guztiekin batutako dirua prostatoko eta barrabiletako minbiziaren ikerketara bideratuko dute, Arkaitz Carracedok zuzentzen duen laborategira, eta helburu bera izango dute hilabete osoan egingo dituzten ekintza guztiek ere.

Azaroaren 12an, esaterako, bisita gidatu bat egingo dute Arantxa Otadui historialariaren eskutik, Erdi Aroko Arrasate ezagutzeko, 18:30ean, alde zaharrean. 36 pertsonak hartuko dute parte, bakoitzak 3 euro ordainduta, eta diru kopuru hori Mondravemberri emango dio Feel Euskadi enpresak –sarrerak agortuta daude jada–.

Azaroaren 13an, Taxkan afari solidarioa egingo dute. 45 per-

tsionarendako lekua zegoen, bakoitzak 30 euro ordainduta, eta sarrerak agortu egin dira.

**Bailarako topaketa, Elorregin**

Azaroaren 20an, Debagoieneko bigarren topaketa egingo dute Elorregin, eta salda eta txorizoa eroango dituzte. "Halaber, *merchandising*-a ere edukiko dugu salgai", dio Mondravemberko kide Iban Arroiabek.

**Azaroaren 27a, egun handia**

Lehenik, 09:00etan, mendi irteera egingo dute, Kurtzetxikira. "Gero, 12:00etan, paella prestatzen hasiko dira Ondarroatik etorritako lagun batzuk". Izan ere, 14:30ean, paella-jana egingo dute Seber Altuben. Doan eskainiko

**IBAI-ARTEKO  
KOMERTZIOETAKO  
ERAKUSLEIHOETAN  
BIBOTEAK IKUSIKO  
DIRA AZARO OSOAN**

dute paella, baina borondatea uzteko kuxkak jarriko dituzte. Gainera, txosna irekiko dute.

Aurrez, 13:00etan, Herria Korrika egingo dute alde zaharrean. "Herritarrak gurekin korrika egitera animatuko ditugu. Lagunarteko korrika saio bat izango da, saririk gabekoa, ekimena herrian ikusarazteko".

13:30ean, Aitor Sarriegi eta Unai Agirre bertsolariak ariko dira giroa alaitzen Seber Altuben. "Aspaldiko bizikleta bat atontzen ari gara, Mondravemberko logoarekin eta abar, eta asmoa da bizikleta enkantean ateratzea. Bertsolariek lagunduko digute hori gauzatzen".

19:00etan, kontzertuak egongo dira, hauek ere Seber Altuben: Wood Strings, La Ultima Bala eta Ixxy Iroi.

Azkenik, egunean zehar gargardo artisau dastatzea egongo da: Baias (Araba), Cosa Nostra Beer (Valentzia) eta Castello Beer Factory (Castello). Etekinen %20 bideratuko dute ikerketara.



Martitzenean inauguratu zuten erakusketa. HASIER LARREA

## Lan duinari buruz hausnartzeko erakusketa, hilaren 13ra arte

Martitzenean ireki zuten, Debagoieneko Ezker Kultur Gunean, eta astelehenetik zapatara egongo da ikusgai

**E.A. ARRASATE**

Debagoieneko Ezker Kultur Guneak eta Paz Y Solidaridad fundazioak elkarlanean antolatutako erakusketak kontzientziak sustatzea du helburu. "Hamabost argazki aukeratu ditugu, Gipuzkoako eta El Salvadorko lan-baldintzak ikusgarri egin eta horren inguruan hausnartzeko", azaldu dute Ezker Anitzeko kideek. "Lan-baldintzetan dauden desberdintasunak kuestionatu behar ditugu, ingurumen alorretik eta genero eta sexu aniztasunetik begiratuta".

CCOO sindikatutik sortutako Paz Y Solidaridad fundazioak globalizazioarekin lotutako gaiak jorratzen ditu: "Autonomo faltsuak eta lan munduan inposatutako logika liberala gabiltza lantzen orain", adierazi du Mikel Arevalok, fundazioko kideak.

**Astelehenetik zapatara**

Martitzenean egin zuten irekiera ekitaldia eta azaroaren 13ra arte egongo da ikusgai erakusketa. Astelehenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:00etara egongo da irekita eta zapatuetan, berri, 12:00etatik 14:00etara.

## OHARRAK

### 'Bizi testamentua' hitzaldia astelehenean

Iñaki Peña barneko medikuak hitzaldia egingo du azaroaren 8an, Kulturateko areto nagusian, 17:30ean.

### Iturrigorriara irteera Sasoibiderekin

Azaroaren 11rako, eguna, Iturrigorriara irteera antolatuta du Sasoibidek. 09:00etan irtengo da autobusa Arrasatetik.

### 'Arrasateko altzairua' hitzaldia egunean

Arrasate Zientzia Elkartek antolatuta, Arrasateko altzairuari buruzko hitzaldia egingo du Beñat Ugalde oñatiarrak, Kulturateko areto nagusian, 19:00etan.

### Ibai-arte, modelo bila hilaren 27ko desfilerako

Sei gizon, sei emakume eta sei ume behar dituzte. Interesatuak *whatsapp* bat bidali beharko dute 688 73 41 49 zenbakira.

### Santamasetako padel eta tenis txapelketak

Martitzenera arte egongo da izena emateko aukera, *ake.padel@gmail.com* edo *ake.tenis@gmail.com* helbideetara mezu bat bidalita, datu hauekin: izen-abizenak, helbide elektronikoa eta telefono zenbakia. Azaroaren 13an hasiko dituzte partiduetak.



# Astoaren arrantza ozen entzungo da berriro ere

Musakolako jai batzordeak auzoan giro alaia jartzeko apustua egingo du hemendik eta urte amaiera arte. San Isidroko jaietan egin ohi duten estiloko kontzertua antolatu dute biharko, 19:30ean. San Silvestre lasterketa eta kantu-poteoak ere bueltan dira

**Hasier Larrea** ARRASATE

Musakolako auzotarrei luze egin zaie urte eta erdian kaleko ekitaldirik ezin ospatu izana. Iazko San Isidro egunaren bueltako jai ofiziala etxetik ospatu behar izan zuten, eta aurren eragozpenak izan dituzte maiatzaren erdialdean gorritz markatutako datan kaleko ekitaldiak egiteko.

Txanponaren beste aldeari dagokionez, berriz, jai batzordeak iazko eta aurtengo diru-partidak mantendu egin ditu: "Urte amaieran bukatzen zitzaigun aurrekontua gastatzeko epea, eta, oporretatik bueltan ekitaldiak egiteko aukerak izango genituela ikusi genuenez, azaroan eta abenduan garatzeko ekintza-plan bat aurkeztu genuen Udalean, *Musakola bizirik!* izenpean", adierazi du Mikel San Miguelek, Musakolako jai batzordeko kideak.

## Indartsu hasteko, kontzertua

Udal agintariak begi onez ikusi zuten jai batzordetik proposatutakoa. Behin baimena lortuta, egitarauaren irekiera rock kutsuko emanaldia izateko lanean jarri ziren, jaialdia Ziorla Fest izendatuta: "Taldea lotzea ez da erraza izan, mugimendu handia dagoelako oraingo testu-



Musakolako jai batzordeko kideak, Ziorla Fest jaialdiko karteekin. MIKEL SAN MIGUEL

guruagatik". Hala ere, sona handiko bi banda, The Capaces eta Cobra, eta duela gutxi sortu den tokiko talde bat, Los Zarrios, ekartzea lortu dute, Bomber Booking musika-agentziako Zuhaitz de Indaren laguntzarekin. Auzoko jaietako kontzertu nagusiari ematen dioten antzeko itxurako kartela osatu dute modu horretan, "beti" saiatzen baitira herriko talderen bat eta kanpoko zenbait talde interesgarri ekartzen.

Izan ere, Jimmy Lamentosen gitarra, Aitor Akizuren harmo-

nika eta Jon Nevadoren garbitzeko taula dira Los Zarrios osatzen duten hirukotearen musika tresnak, baina azken horren soinua faltako da bihar-ko saioan, Berlinera joango baita Nevado. Nolanahi ere, jatorri amerikarreko country, folk eta blues doinuez gozatu ahal izango dute ikus-entzuleek. Hain zuzen ere, ingelesezko bertsiok eta gaztelaraz eta ingelesez egindako kantu propioak eskainiko ditu kontzertuari hasiera emango dion Los Zarrios taldeak.

## Txiki eta nagusiendako ekitaldiak

### Azaroan

- **Oliver magoa**, hilaren 13an, 17:30ean, Musakolako herri eskolan.
- **Kikikomoko pailazoak**, hilaren 20an, 17:30ean, Musakolako herri eskolan.

### Abenduan

- **San Nikolas eguna**, hilaren 6an, 12:00etan, Musakolako herri eskolan.
- **Baserritar eguna**, hilaren 18an, trikitilarien egun osoko kalejirak lagunduta.
- **Gabon eguna**, hilaren 24an, gaiteroen egun osoko kalejirak lagunduta; 19:00etan hasita, kantu-poteoa herriko tabernetan.
- **San Silvestre lasterketa**, hilaren 31n, 12:00etan, Legarre plazatik hasita.
- **Gabon zahar eguna**, hilaren 31n, gaiteroen egun osoko kalejirak lagunduta; 19:00etan hasita, kantu-poteoa herriko tabernetan.

Lamentosek dio modu "etxekoi eta naturalean" sortu zutela hirukotea, pandemiaren hasieran: "Nevado eta biok bizilagunak garenez, elkarrekin bazkaltzeko ohitura hartu genuen; nik abesti batzuk jotzen nituen, berari perkusioarekin jarraitzeko gogoia sartu zitzaion, baina ez zekien nola. Garbitzeko taula erosteko gomendatu nion, eta hala hasi ginen elkarrekin jotzen. Gero batu zitzaigun Aitor, bere harmonikarekin".

Musakolako publiko aurreko hirugarren emanaldia izango dute, "egurra ematen duten bi talderekin batera". Kataluniako hard-rock estiloko The Capacesi eta Berri Txarrak eta Kokei-neko kidez osatutako Cobrari buruz ari da Lamentos.

Honenbestez, San Isidro elizaren aurreko plazan izango da kontzertua, eta 19:30ean eman- go dio hasiera Los Zarrios-ek.

Gainera, auzoko tabernariak kudeatuko duten txosnak bere tokia izango du Ziorla Fest jaialdian, eta salmenten etekinak beraientzat izango dira, "hila-bete hauetan jasandako galerei erantzun bat eman nahian".

## Esentziari eutsi guran

Jai batzordeak ahalegin berezia egin du urtean zehar auzotar guztiei begirako ekitaldiak aurrera ateratzeko, eta joera horri eutsi nahi izan diote. *Zigarrola bizirik!* kartela ikusi besterik ez dago. Gazteenei begirako hiru ekitaldi antolatu dituzte datorren zapatuan hasi eta San Nikolas egunera arte. Familiendako, bestalde, Baserritar Eguna berreskuratzeko dute, "Santamas aurretik ere giro berezi hori sor dadin". Eta Zigarrolaren zigilua daraman lasterketa ere ez da faltako urteari behar bezala agur esateko.

## Hazi eta hazi ari den kluba

Mondragon CFk familia eta kategoria guztien talde argazkia ateratzeko baliatu zuen azaroaren 1a, Domu Santu eguna. 1913an sortutako futbol kluba hamabost taldek eta futbol eskolako hiru adin tartek osatzen dute. Ahalegin berezia egiten ari da harrobiko entrenatzaileen formakuntzan, aginduak ematen dituztenak ere etxekoak izan daitezela.



MONDRAGON CF

## The Van taldearen rock-and-rollera Kooltur Ostegunetan

2016an Berrizen sortutako banda gazteak ordutik lortutako garapena erakutsiko du datorren egunean 22:00etan gaztetxera hurbiltzen diren aurrean. 60ko eta 70eko hamarkadan goia jo zuten The Doors, Led Zeppelin, Jimi Hendrix eta Deep Purple banda mitikoetatik edaten dute, gitarra elektrikoak maisuki dominatuz eta bateria eta baxu

linea txukunak eginez. Iaz kaleratutako *Grow* diskoak ingelesez eta euskaraz konposatutako sei kanta ditu, eta, horiek aurkezteaz gain, hippy garaien usaina darien bertsiok bat edo beste jotzeko ohitura dute zuzenekoetan.

Bost urtean hainbat aldaketa izan ditu musika taldeak. Orain, behin-behinean bada ere, Cristian Coello arrasatear gitarra-jolea dabil orain dela zenbait astetik sei sokak astintzen. Ikuskizuna nahi dutenak abisatuta daude.





Dantzariak eltzearen inguruan dantzan.



Gaba Baltzerako prestatutako edabea banatzen.



Gaztetxoak Gaba Baltzerako mozorrotuta. IMANOL SORIANO

## Mozorroak, dantzak eta edabea Gaba Baltzean

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO Txirritola euskara elkarteko kideak pozik daude Gaba Baltzak emandakoarekin. Orain dela bi urte egin zutenarekin alderatuta, aurten aldaketa nabaritu dela diote. "Ikusi dugu umeak etorri direla jantzi zaharrez mozorrotuta, eta ez bestelako mozorroekin", dio elkarteko kide Itziar Blazquezek.

Egubakoitz iluntzean "oso giro polita" egon zela dio, eta eguraldiak ere lagundu zuela.

### Ohitura sortzea

Herriaren inplikazioa ere nabarmendu du: "Orain dela bi urte eskolako umei bideratutako jaia izan bazen ere, oraingoan herriko beste eragile batzuk ere inplikatu dira". Eta gaineratu du: "Badirudi bagabiltzala ohitura sortzen". Lana egin dute bestelako eragileengana heltzeko; eta, ondorioz, Gaba Baltzean

nerabeek eta erretiratuek ere parte hartu zuten.

Mozorro tailerrarekin hasi zuten ospakizuna: kultura etxean elkartu ziren eta egoki nola jantzi erakutsi zuten. Etxetik ekarritako arropekin mozorro poliak egin zituzten gaztetxoek. Horrez gain, herriko gaztetxoendako ipuin kontalariak egon ziren: Aitor Vinagret eta Ane Arrugaeta.

### Pertsonaiak

Gaba Baltzerako propio prestatuko pertsonaiak eta edabea izan ziren gauerako antolatutako sorpresak: "Parrokiako eskailetan piano bat jarri genuen eta herriko gazte batzuek jo zuten". Farmazia ondoan ohe bat jarri zuten, eta pertsonaia batek sustoak eman zituen; herrian zehar, erremintak eskuetan zituztela ibili ziren beste batzuk gaztetxoak beldurtzen.

Herriko kaleak kalabazekin apaindu zituzten eta zuziak eskuetan zituztela kalejira egin zuten. Plazan dantza ekitaldia egin zuten.

### Dantza eta edabea

Eltze handi baten inguruan ibili ziren dantzan Gure Artean dantza elkartekoak. Julen Alonso trikitilariaren *Sutan dantzan* abestiari jarritako koreografia dantzatu zuten. Kalejirak eta dantzak iraun zuen bitartean plazako argiak itzalita izan zituzten.

Gainera, dantzak amaitutakoan, eltze barruan zegoen edabea banatu zuten herriarren artean: "Zukua zen, baina eltzea kearekin atondu genuen... edabe magikoa irudikatuz".

Blazquezek dio zapore goxoa utzi diela aurtengo ekitaldiak eta hurrengo Gaba Baltza antolatzeke ilusioz daudela.

## Zurbano eta Etxebarria omendu dituzte Erretiratuen Egunean

lazko etenaldiaren ostean, gogotsu hartu dute herritarrek berriro ere Erretiratuen Eguna ospatzea

### A.E.G. ARAMAIO

Erretiratuen Eguna jai preziatua izaten da Aramaion; herri guztiak parte hartzen du. Eta zapatuan ospatutakoa ere halakoa izan zen. Eguraldiak lagundu ez zuen arren, jende ugari ibili zen Nardeaga kalean gora eta behera, postuak ikusten eta jeneroa erosten.

"Pandemiaren ostean, eskertzen da horrelako azokak egitea berriro ere", zioten erakusmahai atzean jarritakoek. Eta "gogoia zegoen" izan zen asko entzun zen beste esaldi bat. Izan ere,

iazko etenaldiaren ostean, gogotsu hartu dute herritarrek erretiratuen azoka: herritarrek eta baita beste herri batzuetatik joandakoek ere.

### Omenaldia

Udalak herriko emakume eta gizon nagusienak omentzen ditu urtero. Hala, aurten, iaz bezala, Fermin Etxebarriak eta Mari Karmen Zurbanok jaso dute Udalak emandako oroigarria. Lierni Altuna alkatearen eta Cristina Etxenautia zinegotziaren eskutik jaso zuten oparia.



Zurbano eta Etxebarria, oroigarriak jasotzen. ARAMAIOKO UDALA

## 2021eko kontu orokorra onartu zuen udalbatzak egunean

Urriko osoko bilkuran hartu zuten erabakia; horrez gain, HAPOn bigarren aldaketa puntuala ere onartu zuten

### A.E.G. ARAMAIO

Urriko ohiko osoko bilkura egin zuten egunean. 2021eko kontu orokorra onartu zuten; hau da, 2021. urte fiskaleko kontu fiskal guztiak. "Ekainaren 30ean aurkeztu zen, eta ez da alegaziorik egon. Orain, udalbatzari dagokio onartzea eta euskal kontuen epaitegira bidaltzea", azaldu zuen alkateak.

Bestalde, behin-behineko onarpena eman zitzaion HAPOn bigarren aldaketa puntualari. Batetik, Patrimonioak eskutatako aldaketa bat dago: Matxin

kaleko etxe baten; bestetik, IB07 eremua bi zatitan banatzea. Osteta kalean, orain arte eginda dauden familiabakarrak eta aparkalekua bi zatitan banatu eta bi hirigintza eremu banatzea. "Aparkalekuan ez doaz familiabakarrak, pisuak joango dira. Orain arteko legearekin, bederatzizko etxebizitza aurreikusita zeuden, eta orain, hamabi egiteko aukera dago", azaldu zuten. Azkenik, kiroldegi atzeko lursaila kirol ekipamendu izatetik zerbitzuetako gune bihurtzeko asmoari ezetz esan dio Urak.



# Lagun artean futbolaz gozatzeko gogoz daude

Zilarrezko ligan jokatzeko dute aramaioarrek. Ligako lehenengo jardunaldia etzi, domeka, izango dute. "Taldea ona" dutela diote, goiko postuetan egoteko modukoa. Etxeko partidua irabazi eta kanpoan puntuak lortzea izango da denboraldiko gakoa

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO  
Aramaio Tropikala futbol taldeak domekan hasiko du 2021-2022 denboraldia. Gasteizen jokatu du, Otso Gorri taldearen aurka. Aramaio taldea irailaz geroztik dabil entrenamenduetan.

Zilarrezko mailan jokatzeko dute aramaioarrek. Gaur-gaurkoz, ez daukate entrenatzailerik, eta hamar jokalarik dute fitxa eginda, baina gehiago egiteko aukera ere badute.

## Entrenamenduen ardura

"Astelehenetan eta ostegunetan entrenatzen gara", dio Jon Ander Eriz jokalaria. Taldekideak arduratzen dira entrenamendu saioak prestatu eta taldearen antolaketa egiteaz. Hala ere, taldekide beterranoenak hartzen dute taldearen pisua edo ardura.

Iazko denboraldian ez zuten ligarik jokatu, eta 2019-2020 denboraldia martxoan eten behar izan zuten gainontzeko liga guztiak bezala. Ordutik ez dute partidua ofizialik jokatu Aramaio-

ko jokalariek. Horrek nola eragingo dien ez dakite, baina argi dute eurak ondo daudela: "Ekipo ona dugu". Erizek nabarmendu du 2019-2020ko denboraldia eten zenean sailkapenean goian zeudela, lider.

Talde ona daukatela nabarmendu du Erizek, eta, euren asmoa "ondo pasatzea eta disfrutatzea" izango den arren, sailkapeneko goiko postuetan egoteko asmoa dute.

## Etxean, indartsu

Aramaioarren indargunea etxeko partidua izango dira. "Zaila izaten da Aramaion irabaztea", dio Erizek. Taldeak indartsu jokatzeko dute etxeko partiduetan, eta horri zaleen babesa gehitu

behar zaio. Ondorioz, etxeko puntuak etxean geratzea eta etxetik kanpo ahalik eta puntu gehien irabaztea izango da helburua. "Jokalarik gazteak ditugu", gehitu du Erizek.

Domekan hasiko dute liga, 12:00etan, Gasteizen: "Ez dugu ezagutzen Otso Gorri taldea, lehenengo aldiz jokatu dugu euren aurka. Liga osatzen dugun hamabi taldeetatik bi bakarrik ezagutzen ditugu". Ligako bigarren jardunaldia etxean jokatu dute, azaroaren 13-14ko aste bukaeran, Futbol Klub Kerembas taldearen aurka. Ligak maiatzerara arte iraungo du, eta ondoren, Arabako Kopa jokatu dute.

## Jokatu eta ondo pasatu

Garai batean futbol taldea egon bazen ere, desagertuta zegoen azkenaldian elkarteak; hala, orain dela urte batzuk hartu zuen berriro ere taldea martxan jartzeko ardura gazte kuadrilla batek, eta horretan dihardu: kirola eginez ondo pasatzen.

**DOMEKAN HASIKO DUTE LIGA: GASTEIZEN JOKATUKO DUTE, 12:00ETAN, OTSO GORRIEN AURKA**



Aramaio Tropikala futbol taldeko kideak, orain dela bi denboraldi. ATFK

## San Martin pilota txapelketako finalak bihar jokatu dituzte

Zortzi final jokatu dituzte; horien artean, infantil A mailan, Eñaut Moto eta Julen Fernandez aramaioarrek

### A.E.G. ARAMAIO

San Martin pilota txapelketa azken txanpara iritsi da. Bihar, zapatua, finalak jokatu dituzte Maider Unda pilotalekuan. Kadete B mailakoak hasiko dira lehiarekin: Txukun Lakuako Sergio Ritu eta Andoni Bazan Egoi Riberaren eta Aldai Nuñez aurka lehiatuko dira; infantil B mailan, Txukun Lakuako bi bikote lehiatuko dira: Jokin Bazan eta Oier Biain, batetik, eta Aner Mendizabal eta Iñaki Elejalde, bestetik; alebin B mailan, Aguraingo Erlantz Saez de Asreasu eta Eñaut Espada Amurrioko Aritz eta Alain Gaviñaren aurka lehiatuko dira; alebin A mailan, Herriaren elkarteko Aiert Oribe eta Eder Mancha Txukun Lakuako Ager Beobiderek eta Urko Murgiarekin lehiatuko dira; benjamin B mailan, Legutioko Agirre eta Ortiz

de Zarate Txukun Lakuako Anartz Morenoren eta Erlantz Conderen aurka lehiatuko dira; benjamin A mailan, Adurtzako Martin Jimenez eta Oinatz Lopez de Muniain Txukun Lakuako Iker Sanchez eta Jioritz Arroyoren aurka lehiatuko dira; infantil A mailan, aramaioarren txanda izango da: Txukun Lakuako Aimar Ruizen eta Aritz Arruizen aurka jokatu dute Eñaut Motok eta Julen Fernandezek; eta kadete A mailan, Amurrioko Ander Diaz eta Markel Pikatza Txukun Lakuako Xabi Ruizen eta Asier Uriarteren aurka lehiatuko dira.

### Zazpigarren aldia

Aurtengo pilota txapelketa zazpigarrena izango da. Irailaren 17an hasi zituzten partidua, eta, ordutik, egubakoitzetan eta domeketan jokatu dituzte lehiak.

## Tolosako lehiaketa irabazi dute Izagak eta Azurmendik

Euskal Herriko Abesbatzako kide dira Maria Izaga eta Idoia Asurmendi aramaioarrek, eta Tolosako Abesbatza Lehiaketa irabazi zuten aste bukaeran, polifonian eta folklorea. Hala, 2023an egingo den Europako Abesbatzen Sari Nagusian parte hartzeko izendapena irabazi dute. Aitor Biain eta Basilio Astulez dira zuzendariak.



Asurmendi eta Izaga taldekideekin. M.I.

## Barazkiekin hartituak egiteko tailerra antolatu dute

Barazkiekin oinarritzako hartituak egiteko ikastaroa izango da datorren egunean, azaroaren 11n. Herriar talde batek antolatu du, eta Nerea Zorokiain Garin izango da irakaslea. Parte hartu nahi duenak telefonoz eman beharko du izena, 665 70 21 92 telefono zenbakian; 20 euro izango da tailerra, eta plaza mugatuak izango dira.

## Azkoagako elizpean bi antzerki emanaldi egingo dituzte

*Antzokoh!* egitasmoak landa eremuetara arte eszenikoa eramatea du helburu. Hala, etzi, domeka, Azkoagako elizpean Pez Limbo antzerki taldeak bi emanaldi egingo ditu: *Txilin hotsak* eta *Bittor & Franky*. Emanaldiak euskaraz izango dira, eta 20 bat minutu iraungo dute. Emanaldiaren ondoren, solasaldia izango dute.



Ibarra kiroldegiko igerilekuan hainbat herritar. IMANOL BELOKI

## Bueltan dira pandemia aurreko abonatu gehienak

Ibarra kiroldegiak bazkideen %80 berreskuratu ditu eta 2.565 dira, guztira; horietatik %42, Aretxabaletan erroldatu gabekoak. Bestetik, aurten abian jarritako hogeikastaroetan 569 pertsonak eman dute izena eta hainbatetan oraindik badute lekua

### Mirari Altube ARETXABALETA

Ibarra kiroldegiaren jarduna %100era itzulita dago azken hilabeteotan, eta irailean abian jarritako kirol jarduerak ere hartu dute martxa. Horiek lagun, ia pandemia aurreko abonatu zenbakietara hurbildu dela adierazi dute Udaleko Kirol Zerbitzuek.

### Erretiratu guztiak itzuli ez

2.565 pertsona dira 2012ko irailean inauguratutako kirol instalazioetako bazkideak. Datu horiekin, koronabirusa agertu aurreko bazkideen %80 inguru berreskuratu direla jakinarazi dute. Aretxabaletan erroldatuta ez dauden kopuruak gora egin du, eta kopuru osoaren %42an dago, gaur-gaurkoz. Gainera, abonatuak %46 emakumeak dira; hau da, 1.180 lagun.

Bestalde, 65 urtetik gorakoei dagokienez, zenbakiak "oso onak" direla adierazi dute. Hala ere, gaineratu dute 2020ko martxoa baino lehen bazkide ziren adin

tarte horretako abonatuak %59 bakarrik itzuli direla kiroldegira: 162 abonatuak, 96.

Kirol jardueren kasuan, hogeibaino gehiago eskaini dira denboraldi honen hasieran, eta 569 lagun daude izena emanda. Kopuru horiek epidemiaren aurreko garaian erregistratutako %78,9 dira, eta horren zergatia zein izan daitekeen azaldu dute: "Eskaintza zabalagoak eta normaltasun handiagoko egoerak izen-emate kopurua handitzeko aukera eman dute".

Kiroldegitik azaldu dutenez, haurrentzako igeriketa ikastaroetan plaza guztiak bete dira, eta gainerako jarduerak izan duten harrera "oso positiboa" izan da. Hala ere, badirela orain

**65 URTETIK GORAKOEI  
DAGOKIENEZ,  
BAZKIDEEN %59  
BAKARRIK ITZULI  
DIRA KIROLDEGIRA**

dik bete barik dauden ikastarobatzuk jakinarazi dute: areto bizikleta –astelehen eta asteazkenetan, 07:15etik 08:00etara–; hipopresiboak –astearte eta ostegunetan, 08:15etik 09:00etara–, *core training*-a –astearte eta ostegunetan, 16:00etatik 16:45era– eta *aquagym*-a –astearte eta ostegunetan, 10:00etatik 10:45era–.

### Korrikalarien taldean lekua

Denboraldiko berritasunen artean, haurdun dauden emakumeentzako igeriketa ikastaroa –matronazioa– dago. Saioak astelehen eta asteazkenetan izaten dira, 14:15etik 15:00etara, eta oraindik badute lekua.

Emakume korrikalarien taldea ere berria da, eta oraindik ez dagoela beteta jakinarazi dute. Ekimen horren helburua jarduera fisikoa egitea da, *running*-a asteko errutinan sartuz. Hitzordua ostegunetan da, 19:00etatik 19:45era. Zerbitzua doakoa da kiroldegiko abonatuentzat.

## Igerilekuen kontuarekin aurrera egitearen alde agertu da EH Bildu

Beste kokapen bat behar dutela ondorioztatu dute, eta Plan Orokorren prozesuaren baitan eztabaidatzeko utzi

### M.A. ARETXABALETA

Urkuluranzko bidegorriaren alboan igerilekuak egitea proposatu zuen EH Bilduk irailean, Hiri Antolamenduko Plan Orokorren (HAPO) testuinguruan. Herritarren iritzia jakin gura izan zuen, Plan Orokorra idazteko mahaira eraman edo ez erabakitzeke: "Proiektua onartzen dutela adierazi digute gehienek, horrelako azpiegitura batez hornitzearen egokitasunari dagokionez". Kokapenaren kasuan, oster, askotariko iritzia egon direla aitortu dute, eta abeltzain-

tza-sektorean, esaterako, proiektua mehatxutzat hartu dela.

"Gehienek esandakoa errespetatzea" erabaki dute, eta "inoren kontra" doan proiekturik ez jartzea abian: "Kanpoko igerilekuen beharri buruzko eztabaidarekin jarraitzea merezi duela uste dugu, eta hori Plan Orokorren eztabaida-prozesuaren esku uzten dugu. Hala ere, planteatutako kokapena ez dugu baliozkotzat jotzen, babesten dugun sektore bati mehatxu egin diezaiokeelako". Beste kokapen bat eta "horien inpaktuak" aztertzea proposatu dute.

## Karmele Igartua sorkuntza lehiaketa abian, narrazioekin

Lanak bidaltzeko azken eguna azaroaren 30a da eta irabazleak 2.500 euroko diru saria jasoko du

### M.A. ARETXABALETA

Karmele Igartua idazlearen omezezko XI. sorkuntza lehiaketa deitu dute Aretxabaletako Udalak eta Bergarako Idazle Eskolak, eta aurten narrazioak eskatu dituzte. Euskaraz idatzita egon beharko dute horiek eta gaia librea izango da. Narrazio luze bakarra edo narrazio-bilduma aurkeztu ahal izango da, parte-hartzaile bakoitzak bakarra.

Lanak bidaltzeko azken eguna azaroaren 30a da. Posta arruntez bidali ahal izango dira udaltxera –Otalora kalea 1–, edo

bertan aurkeztu; posta elektronikoz ere helarazi ahal izango dira, helbide honetara: [kultura@aretxabaleta.eus](mailto:kultura@aretxabaleta.eus).

Epaimahaia izendatuko du Idazle Eskolak eta erakunde horretako kideek eta literatura munduko hainbat lagunek osatuko dute. Jasotako lan guztiak aztertu ondoren aukeratuko dute irabazlea, eta erabakiaren berri urtea bukatu aurretik eman; lan horren egileak 2.500 euro jasoko ditu sarritzat. Argibide guztiak Udaltzaren webgunean –[aretxabaleta.eus](http://aretxabaleta.eus)– kontsulta daitezke.

## 'Harira' saioan izango dira Unai Elkoro eta Ion Albizu, martitzenean

Goiena telebistako *Harira* saioan izango dira Unai Elkoro alkatea eta Ion Albizu EH Bilduko bozeramailea hilaren 9an (21:00 eta 23:00). Eneko Azkaratek bidartuko du mahai-ingurua eta herritarrek ere izango dute galdarak bidaltzeko aukera: [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) eta Whatsapp edo Telegram bidez: 688 69 00 07. Azken eguna domeka da.

## Open Oztopo txapelketa jokatu dute etzi trial parkean

Oztopo trialsin elkarteak txapelketa antolatu du domekarako (10:00). Trialsinean diharduten kideak elkartuko dira, orain arte aukera gutxi izan dutelako txapelketatan jarduteko. Gainera, luxuzko gonbidatuak izango dituzte lagun; besteak beste, Madrildik, Zaragozatik eta Kataluniatik datozen goi mailako ziklistak.



# "Zenbaki borobilarari kolorea eman nahi diot"

GOIO ARRIETA ARMENDARIZ ARTISTA

'Hiru (H)Arri' proiektuaren buru da, eta horren bueltan sortutako '1961' musika ikuskizuna eskainiko du, bi lobak lagun eginda, zapatuan eta domekan, Arkupen

Mirari Altube ARETXABALETA

Hiru eskoriatzar, hiru senide, hiru Arrieta izango dira Arkupeneko oholtzan bihar eta etzi (19:00) 1961 bakarriketa eta musika ikuskizuna eskaintzeko: Beñat Arrieta Umerez, Gari Barandiaran Arrieta eta Goio Arrieta Armendariz. Azken horrek sortutako proiektu pertsonala da, eta oraingoan, zuzeneko musikak egingo dio lagun.

**Eskoriatzako estreinaldiaren ondoren, badator Aretxabaletoa...** Bira mundiala egingo dugula diogu guk; izan ere, niretzat bi herri horietan dago munduaren erdigunea. Aurretik Pasai San Pedron egon ginen proba gisa, etxekoen eta ezezagunen aurrean jardunda. Eta oso gustura itzuli ginen; hango publikoaren berotasuna hona ekarri beharko genukeela aipatu genuen gure artean.

**Hotzagoak dira debagoiendarrak?** Hango publikoa gaztea zen eta beldur gabe jardun zuten, oso animatuta. Hemengo ikusleak helduagoak izango direnez, giro hura sortzea zaila izango dela badakigu. Dena den, aldezturik ez dago eta emanaldi bakoitza zeharo ezberdina izan daiteke.

**60 urte betetzean izan ohi den kriak eragin du ikuskizuna?**



Goio Arrieta artista, ikuskizunerako gertu. MIRARI ALTUBE

## "BARRUAN DITUDAN KONTUAK ATERATZEN DITUT IKUSKIZUNEAN, ETA ON EGITEN DIT HORREK"

Ez da krisi kontua. Zenbaki borobilarari kolore apur bat eman gura izan diot. 50en bueltan ere egin nituen bakarriketak, orduan hiru ezberdin; oraingoan, baina, bakarrarekin nahikoa. Musika estilo oso antzekoa dakart; hala

ere, ezberdintasun handi bat dago: zuzeneko musika. Erronka handia da hori, baina askoz aberatsagoa ikuslearendako.

**Eskarmentu handiko musikariak eta etxekoak; luxua da?**

Bai horixe. Gazteak izan arren, nire aldean eskarmentu handia dute. Entseguetan ikusi ditut eta aparteko gaitasuna dute, abestiak hartzeko sekulako erraztasuna. Batzuetan pentsatzen dut: "Non sartu naiz?". Baina, era berean, esaten dut: "Zein polita den gazteekin lan egitea eta haiek ere pozik ikustea..."

**1961era itzultzea proposatzen duzu musika bidez?**

Neure jaiotza-urtea denez, orduko kontuak ekarriko ditut. Lehenengo, bakarriketa saio txo bat egingo dut, ordukoak gogora ekarri: pertsonaiak, gertakariak... Herriko kontuak ere aipatuko ditut. Eta gero, hamahiru abesti abestuko ditut, eta gehiago ez noa aurreratzera.

**Zeure gustuko musika? Euskal abestiak?**

Denetik dago; izan ere, gure bira mundiala da! Aitortzen dut kantuen aukeraketa egitea ez dela samurra izan.

**Gertatze lanak luze joan dira?**

Lehenengo, neure lana dago; zer gura dudana zehaztea. Horri denbora asko eskaini diot, edozein abesti ezin dudalako aukeratu: musikariendako egokia izan behar du, publikoak ezagutzen duena... Musikari baten milaka abestitatik 48 aukeratu nituen eta hortik lau. Uztailean pasatu nien musikariei eta irailean hasi ginen entseguetan; zazpi edo zortzi egin ditugu.

**Zeure ametsa betetzen zabilta?**

Ez dakit ametsa den, baina oso gustura nabil. Barruan ditudanak ateratzeko modua da; ume-tako kontuak, adibidez. Niri on egiten dit horrek eta etxekoek ere gustura ikusten dute. Eta entzuleren bati ere on eginez gero, ezin gehiago eskatu!

**Ikusleak zerekin gera daitezen nahiko zenuke?**

Ikusle bakoitzari proposatuko nioke norberaren jaiotza-urtearekin ikerketa txiki bat egiteko eta zeresana izan duen kantaren bat aukeratzeko; ikusiko dute ez dela batere samurra.

**70 urte betetzean beste bat?**

Orain gura dudana bakarria da emanaldiak pasatzea, behar den moduan lo egiteko.



NIRE USTEZ

IDOIA SANCHEZ

## Ez da ezer

Ez da ezer. Lasai. Beti berdin.

Fisikoki zein psikologikoki ahalegin eta denetariko arduraldiak eskatzen dituzten ekintzen aurrean behin eta berriz luzatzen ditugun erantzunak dira hauek. Nire kasuan bai, behintzat. Zorionez, bidearen zatitxo bat egin dudala esan dezaket, kontzientzia hartzen hasia bainago. Tira, aldaketa bidean pauso bat.

Euskaraz bada, baina, esfortzuaren aurrean eskerrak jaso eta gero erantzutekorik, norberaren ekintzak ez gutxiesteko ederra, gainera: ez horregatik.

Eskerrik asko zure denbora nire beharrik asetzerak bideratzeagatik.

Ez da ezer. Irribarreia.

Ai, aldatzeaz gogoratu ere ez.

Eskerrik asko eginbehar hura bukatzen laguntzeagatik.

Lasai. Eta irribarreia.

Ui, ea hurrengoan.

Eskerrik asko min eman dizun hori identifikatzen erakusteagatik.

Ez da e... horregatik.

Bingo!

Izan ere, norberarentzat kostua badu, bada, eta balioa eman behar zaio. Behar diogu.

Orain, hitzak ekintza bihurtzera.

GOIENA TELEBISTA  
SASOI BERRIA



BESTELAKO  
OLATUA!

HARIRA  
ARETXABALETA

UNAI ELKORO (ALKATEA)  
ION ALBIZU (EH BILDU)  
AZARDAREN 9AN, MARTITZENEAN,  
21.00ETAN ETA 23.00ETAN

BIDALI ZUK ERE GALDERA:

berriak@goiena.eus

688 69 00 07

goiena

Zu hemen zaude.





# "Errekonkista istorio bat kontatzen du lanak"

XABIER OIANGUREN IDAZLEA

'Assugeko erregea' izeneko liburua argitaratu du eskoriatzarrak, eta azaroaren 11n egingo du idatzitako lanaren aurkezpena, 19:00etan, kultura etxean

Imanol Beloki ESKORIATZA

Urteak daramatza idazten Xabier Oianguren eskoriatzarrak, eta gehien maite duen generoa fantasiazko eleberria da. Hori horrela, bere lehenengo liburua argitaratu berri du Letrame argitaletxearekin elkarlanean. Bere literatura gustuei jarraituz, *Assugeko erregea* izeneko liburua idatzi du, eta bertan kontatzen den istorioa fantasiazko mundu batean girotuta dago. Abentura izugarri batean murgiltzen da protagonista; mende-kua, erredentzioa, adiskidetasuna eta kendutako erreinua berreskuratzeko borroka nahastu dituen abentura batean, hain zuzen ere.


**Zer-nolakoa da argitaratu berri duzun *Assugeko erregea* liburua?**

Fikziozkoan oinarritutako lan bat da, eta pertsonaia askoz beteta dago. Assugen gertatzen da istorioa, eta kolore askotariko hamabi zaldun daude. Horieta-ko baten laguna da protagonista, eta hark hotzez hiltzen ikusten ditu bere gurasoak. Hotzez hiltzen utzi dituenaren mende-ku bila hasten da protagonista. **Zenbat denboran ibili zara liburua idazten?**

Iaz, Aste Santuaren bueltan hasi nintzen liburua idazten, eta bi hilabete inguru aritu nintzen lan horretan; lehenbizi, eskuz idatzi nuen, eta gero, ordenagailuz. Denbora laburrean egingo dako lana dela dirudi, baina pertsonaiei forma emateko lan-keta egiten aurretik hasi nintzen. Guztira, ehun ale argitaratu ditut.

**Zertan inspiratu zara fikziozko lan hau egiteko?**

*Eragon*, *Juego de tronos* filmaren saga eta *Eraztunen jauna* bezalakoak argitaratu zirenetik oso gustuko izan ditut, eta horietatik badu apur bat eleberririk. Gerraz eta intrigaz betetakoa da, besteak beste. Hala ere, pertsonaiak eraikitze



Xabier Oianguren eskoriatzarra liburua idazten. X.O.

## "FANTASIAZKO BESTELAKO LANETAN AGERTZEN EZ DIREN EZAUGARRIAK BATZEN DITU ELEBERRIAK"

garaian, fikzioa alde batera utzi, eta errealtatean ere zentratu naiz, modu batera edo bestera. Adibidez, yogan aritu izan naiz, eta pertsonaietako batek halako ezaugarriak ditu; beraz, nire sentimendu edo izaeraren zertzeladak baditu protagonistetako batek. Errealitateko pertsonaiak ere sartu ditut eleberrian; liburuko pertsonaiak dira, esaterako, nire hiru lagun.

**Zer du berezia liburu honek? Zergatik irakurri beharko genuke?**

Istorio oso polita da *Assugeko erregea* liburuan kontatzen dena, eta fantasiazko bestelako liburuetan agertzen ez diren ezaugarriak ikusteko aukera izango dute irakurleek. *Juego de tronos*-ekin alderatuta, esaterako, protagonista batzuk ezin dira hil bortizki. Horrekin batera, istorioan agertzen diren heren-

sugeak berpiztutako gizakiak dira... Berezitasun asko dituela esan daiteke.

**Istorioa liburu honekin amaitzen da edo izango du jarraipenik?**

Errekonkista garaian oinarritutako istorioak kontatzeko asmoa dut, eta, trilogiak barik, liburu gehiago idatzi beharko nituzke kontatu nahi dudan guztia kontatzeko. Izan ere, liburu honetan ez da oraindik errekonkista hasten, eta hori da asmoa datozenetarako. Amaiera ere badut buruan, baina idatzi ahala aldatu egin daiteke... Beraz, ezin dut askorik aurreratu. Dagoeneko lanean ari naiz bigarren atal batean, 500 orrialdetik gorako bigarren liburu batean, fantasiazko erresuma honetan girotutako liburuen saga oso bat izan daitekeenaren inguruan...

**Liburua eskuratzeko interesa duenak zer egin behar du?**

Une honetan, ale guztiak etxean ditut; horrenbestez, nirekin zuzenean jarri daiteke harremanetan interesa duena, sare sozialen bitartez nirekin kontaktatuz, edo mezu elektronikoko bat bidalita [kasulnatur@hotmail.com](mailto:kasulnatur@hotmail.com) helbidera.



EHIGE GURASOEN ELKARTEA

## Hezkuntza publikoaren alde

Euskal Eskola Publikoaz Harro! Topagunea osatzen duten eragileek manifestazioa egingo dute bihar, azaroaren 6a, Bilbon. Eta, hain zuzen, ikastetxei argazkiak bidaltzeko eskaera egin diete; Luis Ezeiza Herri Eskolakoek euren bidali dute, *Hezkuntza publikoaren alde. Pribatizazioari ez!* lelopean.

## Zirku tailerra bi domekatan: hilaren 14an eta 21ean

Zirku tailerra bi egunetan izango da, azaroaren 14an eta 21ean, hain zuzen ere, eta akrobaziak eta zirkuko bestelako zenbait ariketa ikasiko dituzte bertara doazenek. Ikastaroa 8 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago, eta saioak euskaraz eskainiko dituztela jakinarazi dute ariketak erakutsiko dizkieten Airean akrobazia taldeko kideek.

Hala, egun bakoitzean bi orduko saioak egingo dituzte, Joseba Iñurrategi frontoiko gimnasioan, eta ordutegia arratsaldeko bostetatik zazpitarako bitartekoa izango da aipatutako bi egun horietan.

Izen-ematea, berriz, Ibarraundi museora joanda egin daiteke, edo 943 71 44 07 telefono zenbakira deituta, eta tailerreko prezioa hamar eurokoa izango da, zirku tailerreko parte-hartzaileek egunean bertan tailerrean ordaindu beharko dutena.



OLAZAR ERRETIRATUEN ELKARTEA

## Egun-pasa zoragarria

Joan den zapatuan, egun-pasa ederra egin zuten Eskoriatzako Olazar Erretiratuaren Elkartearen kideak. Izan ere, Eskoriatzan autobusa hartu eta Tolosako azokan geldialdia egin ostean, Usurbilgo Aginaga sagardotegira bazkaltzera joan zen kuadrilla ederra, eta, bapo jan ostean, Zarautzen paseotxoan egin zuten eta zerbait hartu, etxera bueltatu aurretik.





Eskoriatzako pilota saileko benjamin mailako lau pilotari entrenamendu batean, taldea argazkian. IMANOL BELOKI

# Frontoia bete arte lanean jarraitzeko asmoz

Astelehenetan, martitzenetan eta egubakoitzetan izaten dira eskupilota entrenamenduak, 17:00etatik 19:00etara bitartean, frontoian, eta herriko neska-mutikoak animatu nahi dituzte entrenatzaileek saioetan parte hartzera

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

8 eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzako eskupilota sailak gorakada izan du aurrean; izan ere, haur dezente ari dira entrenatzen Joseba Iñurrategi pilotalekuan, eta bidelagun gisa ari dira Iosu eta Asier Urzelai anaiak eta Mikel Ezeiza eskoriatzarra entrenatzailea.

Hiru mailatan banatuta, benjaminak, infantilak eta alebinak ari dira Joseba Iñurrategi pilotalekuko entrenamendu saioetan, eta kirol hau herrian indartzeko asmotan ari direnek gorakada hau aprobetxatu nahi dute: "Guztira, hoge neska-mutiko inguru arituko dira hiru kategoriatan. Gero, 8 urtetik

beherakoei ez digu entrenatzen uzten Federazioak; beraz, frontoi zati bat utzi, eta zortzi haur inguru aritzen dira beraien kontura eskupilotan jokatzeko", adierazi du Iosu Urzelai, Eskoriatzako pilota saileko entrenatzaileak.

Saiakera egin zuten duela urte gutxi, *Pilota berpiztuz* izenpean, Asier de la Florrek, Txomin Illarramendik eta Asier Urzelai Eskoriatzako pilota saila indartzeko, eta gaur egun lan horrek bere fruituak eman dituela dio Urzelai: "Serio hasi ginen, entrenamenduak ezarri genituen, neska-mutikoak ere animatu genituen, eta frontoia haurrez beteta ikustea ederra

da. Gainera, nire anaia, Asier, *El conquistador del fin del mundo* saioan aritu zen, eta horrek ere eragin du zenbait haur frontoira hurbiltzea".

## Txapelketetarako gertu

Eskuak ez mintzeko takoekin ari dira entrenatzen dagoeneko zenbait haur, eta txapelketetarako gogoz daudela dio Urzelai: "Hasiberriak diren benjaminak ez dituzte partiduetan hasi oraindik, baina baditugu lau pilotari partiduetan arituko direnak. Infantiletan, sei lagun ari partiduetarako prestatzen, eta, hasiera batean, Aretxabaletan jokatu dituzte partiduetak, alboko herriko pilotarien aurka".

## Ardo eta pintxo dastaketa Inkernun egingo da oraingoan

Azaroaren 13an, zapatua, Fernando Eskoriatza plazan beharrean, Inkernu tabernan egingo da

**I.B.** ESKORIATZA

Atxorrotx Kultura Elkartek antolatutako ardo dastaketa hilaren 13an egingo da, 18:30ean. Aurrean, Inkernu tabernan egingo da, Fernando Eskoriatza plazan beharrean, eta, hain zu-

zen ere, txistulariekin erromeria, ardo onduen eta ardo zurien dastatzea eta foie pintxo bereziak izango dira.

"Plazan egitea aurreikusten genuen, baina Inkernun egingo dugu. Izan ere, Pirritx, Porrotx

eta Marimototsen ikuskizuna izaten den egun bererako antolatu izan dugu hitzordua, baina aurrean dataz aldatu dute, eta erabaki bat hartu beharrean geunden. Hori izan da arrazoi nagusia, batetik, eta, bestetik, aurrera begira ardo dastaketaren eguna aldatzea ere planteatzen ari gara; agian, udaberrian, baina ikusiko dugu, eta baita aurrez jakinarazi", adierazi du Juan Luis Zubizarretak, Atxorrotx Kultura Elkarteko lehen-dakariak.



Leintz Gatzagako urriko ohiko osoko bilkuran batutakoak. IMANOL BELOKI

## Zerga eta tasa guztiek %3,3ko igoera izango dute

Gatz Museoak antolatzen dituen bisita gidatuek euro bateko igoera izango dutela adierazi zuten

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako zergak eta tasek %3,3ko igoera izango dute. Salbuespenak ere badira; izan ere, "Ondasun Higiezinak gainera Zergak (OHZ) %2,2ko igoera izango du; Gipuzkoako Foru Aldunditik jasotako balio katas-tralak %1,5 igotzen direlako. Balio katas-tralak igotzen direnez, eta horri aplikatzen zaizkion portzentajearekin, nahikoa dela aurreikusten da %2,2ko igoera, hala, %3,3ko igoera horretara iristen delako", adierazi zuten Gatzagako udalbatzako kideek urriko osoko bilkuran.

**Prezioen eguneraketa**

Gatz Museoak prezioen igoerak ere izan zituzten berbaigai ordonantza fiskalen hasierako onarpena tratatzean. Gatz Museoak mendi ibilbideak, trenarenak eta Hiruerreketako ibilbideak dituzten iraupenarengatik... – hiru ordu – euro bat igotzea proposatu zuten. "Hornigaien eta lehengaien prezioak igotzen ari dira, eta ezin gara atzean geratu. Gure zergekin ordaintzen ditugu beste batzuek erabiltzen dituzten zerbitzu hauek. Beraz, egokitzat ikusten da igoera planteatzea", adierazi zuten.



NEREA ALTUNA

## Argi-itzalen antzerkia gozagarri

Joan den asteburuan, Gaba Beltzaren baitan zenbait hitzordu izan zituzten Gatzagako neska-mutikoek. Egitarauari hasiera emateko, egubakoitzean, argi-itzalen antzerki tailerra izan zuten ludotekan, eta domekan, berri, beldurra emateko moduko mozorroak jantzi, aurpegiak margotu eta etxeko etxe aritu ziren gozoki eskean.



Udalak martitzenean utzi zuen balio gabe Larramendin papergintzako hondakinak tratatzeko planta eraikitze baimena. A. GOITI

# Jarduera argitu arte, baimenik ez

Valogreene BC Paper enpresak Udalean eta Jaurilaritzan aurkeztu zituen proiektuak ezberdinak direla-eta, uztailleko hirigintza-baimena baliorik gabe utzi du Udal Gobernuak; Tapiak asteen esan du prest dagoela Larramendiko plantaz "behar den guztia" argitzeko

## Jokin Bereziartua BERGARA

Larramendiko paper-fabriken hondakinak kudeatzeko plantaren proiektuak berritasun esanguratsu bat bizi izan du asteen. Izan ere, Udalak baliorik gabe utzi du planta bertan eraiki ahal izateko uztailaren 23an eman zuen hirigintza-baimena.

Azaroaren 2an sinatutako alkatearen dekretu bidez utzi zuen Udalak baimena baliorik gabe, eta Udal Gobernuak azaldu du zein izan den horretarako arrazoi nagusia: "Aipatutako txostena egiteko adierazitako jarduera ez dator bat ez ingurumen-baimen integratua lortzeko proiektuan jaso den jarduerarekin ez eta irailaren 23an EAEko Aldizkari Ofizialean jendaurrean jarritako jarduerarekin ere. Ondorioz, sustatzaileari garatu nahi duen jardueraren araberako beste txos-

ten-eskaera bat egin dezala jakinaraziko zaio".

## Artola: "Inkongruentea da"

Gorka Artolak "inkongruentea" izatea leporatu dio Alacanteko Valogreene Paper BC SL enpresari: "Enpresak argitu behar du zein den aurkeztu dituen hiru proiektuetatik aurrera eraman nahi duena". Enpresak hori zehaztu arte eta Udal Gobernuak Hiri Antolamendurako Plan Orokorrearekin bat datorren argitu arte, ez da baimenik eman. Erabaki hori enpresari jakinarazi zaio, eta baita Jaurila-

**TAPIA: "ULERTZEN DITUGU BERGARAKO UDALAREN KEZKAK; PREST GAUDE BEHAR DENA ARGITZEKO"**

ritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariari ere, eta proiektuari alegazioak egin dizkionetari ere erabakiaren berri eman zaie.

## Tapia, "dena argitzeko prest"

Hain zuzen ere, azaroaren 2an bertan egindako gobernu bilerraren ostean egindako adierazpenetan, Eusko Jaurilaritzako Ekonomia Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburu Arantxa Tapiak adierazi zuen Jaurilaritza industria hondakinak tratatzeko "hamar proiektu edo planta" eraikitze aukera aztertzen ari dela 2030era arteko epean. Besteak beste, Tapiak esan zuen hamar planta horien barruan Bergarako dela "guztietan aurreratuen" dagoen proiektua: "Badago proiektu bat martxan dagoena, demostratuta dagoen teknologia batekin

eta Europar Batasunak ondo ikusten duena. Enpresak proiektua europar funtsetara ere aurkeztu du eta, beraz, badauka onespene bat. Ingurumenaren ikuspegitik aztertzen ari gara txostena egitea eta baimen hori ematea. Bergarako Udalak kezka agertu du behin baimena eman ondoren, baina, hala ere, ulertzen ditugu kezka horiek; gure aldetik, prest gaude behar den guztia argitzeko".

## Informazio falta salatu dute

Azken egunotan mugimendu handia dago Bergararren Arre-

**AZAROAREN 8AN AMAITZEN DEN ALEGAZIO EPEA LUZATZEA ESKATU DUTE BIZILAGUNEK**

ta Zerbitzuan, hainbat dira-eta alegazioak jartzera pasatu diren bergararrak. Udalean erregistratu ostean Jaurilaritzara bidaliko dira helegite horiek. Herri-tarren artean "kezka eta haserrea" dira nagusi, eta, bereziki, proiektuaren bueltako informazio falta salatu dute: "Gai hauek oso teknikoak dira guretzat, handi geratzen zaizkigu, baina, Zaldibarren gertatu zena ikusita, oso kezkatuta gaude".

## "Eztabaida sosegatua" nahi

Aurrera begira, "eztabaida publiko eta sosegatua" eskatu du Udal Gobernuak: "Aurrera egingo bada, ziurtasunak eta bermeak behar ditugu, eta hori, sustatzailearen, Jaurilaritzaren, talde ekologisten, herriko beste enpresen eta interesdunen eztabaida publiko eta sosegatu baten bidez soilik lor daiteke".



Bizilagunek deitutako bilera, martitzenean, San Juango ermitan. IBAI ZABALA



# "Harreman eta 'oihal' berriak josi nahi ditugu"

**ANDER ZANGITU ETA JOKIN GURIDI** EHUNGILEAK ETA OLATUKOOP-EKO LANGILEAK Ehundu gidatzeaz arduratuko diren bi bergararrek aurkeztu berri duten dinamikaz dihardute: "Sare indartsua beharko dugu gaurko eta biharko arazo kolektiboetarako"

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Ehundu ekimenerako "ehungileak" eta Olatukoopeko langileak dira Jokin Guridi eta Ander Zangitu bergararrak. Luze eta zabal dihardute urriaren 29an Seminarixoa aurkeztu zen ekimenaz; lehen bilera irekia azaroaren 20an izango dela aurreratu dute: "Gonbidapena egin nahi diogu herritar orori".

**Zertarako sortu da Ehundu?**

Herritarrengana iristeko bitarteko eta tresna berritzailea izango da, herritarren beharrak entzun eta Udalaren zein komunitatearen arteko zubigintza egiteko. Denon artean ehuntzea eta elkarren arteko sareak erakitzea nahi da, denon artean herria eraldatzeko; harreman berriak josi eta *oihal* berriak egin nahi ditugu. Herritar talde baten kezkatik abiatu zen, herritarren beharrak entzun eta horiei erantzun kolektiboa emateko espazio baten beharra ikusi zen eta. Hilabeteetako lanak bere fruituak eman ditu eta oso gogotsu gaude, proiektuak izan duen erantzun bikaina ikusita. Askotariko eragile eta norbanakoek begi onez ikusi dute eta beharra zegoela ikusi da. Denon gaitasunak elkartuz gero, gure gaitasunak handitu egingo dira. **Zein izango da eraldaketarako bulegoaren funtzionamendua?**

Ekimenak bi helduleku izango ditu: bulegoa eta herri dinamika. Dinamikaren bidez herri logika zabala eraikiko da, inklusiboa eta aberatsa, herriko eragile, komertzio, elkarte, enpresa eta norbanakoz osatutakoa. Bulegoa 2022 hasieran irekiko da, Mizpildi eta San Pedro kaleen elkargunean. Bulegoan, formakuntza, aholkularitza, energia fakturen gaineko tailerrak, informazio-gunea... izango dira. Harremanak saretzeko eta komunitatea ahalduntzeko lehen espazio bat litzateke. Helburu nagusia da gaurko eta biharko



Jokin Guridi eta Ander Zangitu, Laboratorium museoaren atarian. EHUNDU

**"HILABETEETAKO LANAK FRUITUAK EMAN DITU; GOGOTSU GAUDE, ERANTZUN BIKAINA IKUSITA"**

korapiloei aurre egiteko tresna eta baliabide praktikoa sortzea. **Ehunduren beharra bazegoela diozue. Zergatik dago behar hori?** Egun pairatzen ditugun arazoak ez dira indibidualak, kolektiboak dira, eta horiei aurre egiteko sare indartsu baten beharra dago erantzun kolektiboa eman ahal izateko. Ekimenetik sare artikulatu eta indartu egingo da. Horretarako, Ehundutik, tokiko proiektu eraldatzaileen bidez datozen aldaketei aurre egiteko tresnak ahalbidetuko dira, komunitatea ahaldunduz. **Adibide zehatz bat ematerik Ehunduren funtsa hobeto ulertzeko?** 1970ean jorratu zen halako mugimendu bat gure herrian, Autogestion Bergara izenekoa, Alkartu Naik, Promocion Culturalak eta Udalak bultzatuta: lehen anbulantzia lortu zen herriarentzat, UNED, Aransgi,

hautzaindegia... Ondare hori ere berreskuratzea garrantzitsua da herriarentzat, erronkak aldatu badira ere. Proiektu burujabeak planteatuko dira askotariko arlotan; esaterako, energian, elikaduran, teknologian, kulturen, etxebizitzan, zaintzan, hezkuntzan... Hala ere, garatze fasean dauden proiektuak dira eta bakoitzak izango du publiko egiteko bere momentua.

**Nola baloratzen duzue atzetik dituzuen bidelagunen babesa?**

Garrantzitsua izan da dinamika honetan hainbat eragilearen laguntza izatea, lankidetzaren marko berri baten adierazle delako. Olatukoopen laguntzarekin formakuntza, ekintza eta harremanen bidez ekonomia sozial eraldatzailean oinarritutako proiektuak bideratu ditzakegu, D2030ek eskualdeko beste eragile, eza gutza eta dinamika batzuekin konektatuko gara eta MU-Lankiren laguntzarekin dinamika beste leku batzuetan erreplika garria izan dadin sistematizatu dugu. Askok eskertzen dugu horrelako bidelagunak izatea, eta, nola ez, Bergarako Udalak hasieratik Ehundurengan jarritako konfiantza osoa.



Zangitu eta Guridi, Ehundu aurkeztu, urriaren 29an, Seminarixoa. U. IGARZA

## Azaroaren 20an, lehen saio irekia

Urriaren 29an egin zen Ehunduren aurkezpen publikoa Seminarixoa, 80 bat herritarren aurrean. Pandemian, herritarren kezka eta beharretatik abiatuta, sortu zen eraldaketarako ekimen bati forma ematen hasteko ideia. Hariak –norbanakoei erreferentzia eginda– irudikatu zituzten aurkezpenean, eta ahulak izan daitezkeela nor bere aldetik joanda; baina hari guztiak batuz gero "sare indartsuak" osatu daitezkeela azpimarratu zuten. Metaforak arrakasta izan zuen bertaratutako herritarren artean, eta Gorka Artola alkatea ere ideia horrekin geratu zen ekitaldiaren ostean: "Oso ondo islatzen da lortu nahi dena. Marko kolaboratibo berria sortzea bilatzen dugu, eragileen, norbanakoen, herri izaerako dinamiken eta erakundeen artean". Aurkezpenaren "harrera onaren" ostean, azaroaren 20an egingo dute dinamikaren lehenengo saio irekia.

**AZKEN EGUNAK**

**DENA 10€-15€-20€**

**LEVIS-ak 40€**

*Eskerrik asko urte guzti hauetan gure ondoan izateagatik!*

**San Pedro kalea 14, Bergara • 943 76 07 55**





MovemBer Gara ekimeneko talde argazkia, artxiboko irudi batean; urtez urte bibote gehiago direla diote. ION ANDUEZA

# Bibotea uzteko hilabetea, osasunari balioa emateko

lazko etenaldiaren ostean, MovemBer Gara ekimenak azaro osorako egitaraua antolatatu du; ekimenaren hiru helburu nagusiak gogora ekarri dituzte: gizonezkoen gaitza ikusaraztea, gaixotasunari aurre egiteko dirua batzea eta bizimodu osasuntsua sustatzea

## Jokin Bereziartua BERGARA

Pandemiak eraginda 2020an ez zuten ezer antolatu, baina aurretan, bueltan dator MovemBer Gara ekimena. "Iaz biboteak utzi genituen batzuek, baina ezin izan genuen egitaraurik antolatu. Aurretan, ez gatz nahiko genukeen bezain indarberrituta, egoera ez delako nahiko genukeen bezain ona, baina egitaraua, gutxienez, antolatu dugu", adierazi du hasieratik ekimeneko kide den Joxu Aranek. Aranek berak nabarmendu du hiru helburu bete nahi dituztela aurretan egitarauarekin: lehen helburua da gizonezkoen osasun arazoak ikusgai egitea –barrailetako eta prostatako minbizia, nagusiki–; bigarren, gaixotasun horiei aurre egiteko diru batzea; eta hirugarrena, aurretan bereziki azpimarratu dutena, bizimodu osasuntsua sustatzea. "Horregatik antolatu ditugu zuzeneko musikaz girotutako spinning saioa eta azken ekitaldia izango den San Martzialerako

buelta; gainera, azaroaren 13an, Crossfit Bergararen laugarren urteurrena ospatzeko egingo den txapelketan bildutako dirua ekimenerako izango da".

## Ekintzei azken ukituak ematen

Egitaraua erabat ixteke dute oraindik, baina honako ekitaldi hauek iragarri dituzte: azaroaren 19an, Azkaiter Peloxen bandak gidatuta spinning saioa egingo dute (18:30) –aurretan, Agorrosinen egin beharrean, plazan egitea ari dira pentsatzen–; azaroaren 20an, Movember Goiena eguna ospatuko dute Elorregin, Bergarako, Arrasateko, Oñatiko eta Antzuolako kideekin, eta musika zein mokadutxo izango dira Sanprubusean; hilaren 25ean, Santa

**AZAROAREN 27AN  
EGINGO DUTE  
BIBOTEEN ENKANTEA;  
BIBOTE "MITIKO" BAT  
ERE MOZTUKO DUTE**

Zezipia eguneko ospakizunean musikarik bibotearekin irtengo dira kalejiran (18:30); eta, azkenik, azaroaren 27an, San Martzialerako buelta egingo dute, dronearekin Surran argazkia atera, eta ondoren, biboteak moztuko dituzte eta bazkari musikatu batez gozatu. Egundorretan egingo dute 2018an eta 2019an oso harrera ona izan zuen biboteen enkantea. "Lotzeke dugu, baina bibote mitiko bat mozteko eta enkantean saltzeko asmoa dugu; azken edizioan, Pol-Poleko Dunitxe Olabarriarena moztu genuen; ea aurretan nori tokatzen zaion..."

Antolatzaileek esker ona adierazi diete Movember Goienaren ekitaldirako txorizoa eman duten Imaz, Bixain, Gorka, Urcelay, Leturia, Antia eta Igarza harategiei, eta baita Konde Panaderokuari ere, ogia emateagatik. Ekimeneko motxilak erosteko eta bibotea bost euroren truke atontzeko aukera egongo da, hil osoan, Pepelu eta Diego Valor ile-apaindegietan.



NIRE USTEZ

MIGUEL LAZPIUR

## Zer ari da gertatzen gure gizartean?

Egunero telebistan, sare sozialetan, Interneten edo irratiaren, gizartearen egungo arazo larrien berri entzuten dugu, hala nola pandemia eta haren ondorioak, gosea, gatazkak, arrazakeria, genero indarkeria, larrialdi klimatikoa... Kezkatzen gaituzten eta gure gizartean eragiten duten arazoak dira. Balioen narriadura erakusten duen etapa gogor bat igarotzen ari gara, eta, batez ere, harmonian bizitzen uzten ez duguna. Arriskuan dagoena gure familia da, guren lanaren duintasuna, zintzotasuna, hezkuntza, askatasuna, besteeiko errespetua, elkartasuna, tolerantzia, gure planeta... Laburbilduz: zer egin dezakegu? Gutako bakoitzak ere hausnartu behar du gertatzen ari den guztiaz, eta hobetzeko egiten dugunaz. Izan zaitez guraso, seme-alaba, lankide eta lagun hobe. Gure misioarekin konprometitutako profesional duinak ere izan behar dugu. Gizarteak eraiki diren oinarriaren isla besterik ez da, eta azken urteotan arazo ekonomiko eta sozialak areagotu egin dira hainbeste desberdintasunekin. Gure gizartean gertatzen ari den honen guztiaren aurrean dugun jarreraren inguruan hausnartu behar dugu, indibidualki eta kolektiboki.

## Bihar inauguratuko dute Labegaraietako rokodromoa

Labegaraietako kiroldegi berri-tua ireki eta bederatzi hilabete- ra inauguratuko dute rokodromo berria. Bihar, azaroak 6, inauguratuko dute, Udaleko eta Pol Poleko ordezkariekin. 10:00etatik 13:00etara herritarrentzat zabalik egongo da; azaroaren 6tik 14ra, eta Labegaraietak zabalik dagoen ordutegian, sarrera libre izango da.



Rokodromo berriaren itxura. B.U.

## OHARRAK

### Bergara Oinez ekimenaren hurrengo irteera

Azaroaren 11n egingo dute aurretan hamaikagarren irteera. Agorrosinen elkartuko dira, 11:00etan. Izena emateko: San Joxepén (943 76 21 40) edo Agorrosinen (943 77 70 95).

### San Joxepe: abesbatzarako kide berrien bila

Erretiratuaren elkarteko koruan gero eta kide gutxiago dagoela, dei egin dute izena emateko: "Korua egoera zailean dago kide faltagatik, eta badakigunez Bergaran jende askok oso ondo kantatzen duela, horiek guztiak koruan sartzerantz animatzen ditugu". Izena emateko elkartera bertaratzeko edo 943 76 21 40 eta 685 75 74 02 telefono zenbakietara deitzeko eskatu dute.

### 'Érase una vez en Euskadi' filma: emanaldiak

Azaroaren 5ean (20:30), 7an (19:30) eta 8an (20:30) ikusi ahaliko da Manu Gomez arrasatearraren pelikula Seminarixoa. Sarreraren prezioa bost euro da eta [seminarixoa.eus](http://seminarixoa.eus)-en eskura daitezke.

### 1939an jaiotako ospakizuna hilaren 21ean

Aurretan 82 urte beteko dituzten bergararrek azaroaren 21ean Zumelaga jatetxean bazkalduko dute (14:30). Izena emateko: 943 76 13 30 (Rosarito) edo 943 76 24 79 (Eulali).



# Otsailean estreinatuko dute 'África' musikala

Donato Goyenecheren musika piezak oinarri dituen musikala otsailaren 12an eta 13an estreinatuko dute Bergaran. Guztira, 40 lagun inguru arituko dira Seminarixoan: Bergarako Musika Eskolako ikasleak, gonbidatutako artista ugari eta dantzariak

**Jone Olabarria** BERGARA

Asteon egin dute otsailean estreinatuko duten *África* musikaren aurkezpen prentsaurrekoa Seminarixoan, eta, musikaleko eszena zuzendari Valen Moñuxek bertan azaldu duenez, 40 pertsona inguru arituko dira: "Hortaz, ez da orain arte ohituta egon garen musikalak bezain handia izango. Zazpi musikari, bost protagonista eta figuranteak izango dira taula gainean; eskalan ez da musikal erraldi baten tamainakoa". Orain arte herrian egin diren musikalak frontoian izan direla azaldu du Moñuxek, eta oraingoan, aldiz, Seminarixoan egingo dute.

## "Aitzindariak musikaletan"

Otsailean estreinatuko duten obrak beste berezitasun bat ere baduela azaldu du Valen Moñuxek: "Aitzindariak gara musikalak euskaraz egiten, hori da gure berezitasuna, eta, hain zuzen, errazagoa da guretzat horrela egitea. Kasu honetan, kanpotik etorritako enkargua da, eta obra originala gazteleraz eginda dago, eta, hainbat elkarriketa eta abesti gazteleraz egongo diren arren, elkarriketak eta kantuak Afrikako hizkuntzetan ere izango dira".

## 2016a ezker lanean

Libretoaz arduratu diren Elena Ibarbiak eta Donato Goyenechek –musikaz ere arduratu da– azaldu dutenez, "ohore handia" da Bergaran estreinatzea lana: "Pandemiak eraginda hainbeste itxaron ostean, ezin dugu sinistu azkenean musikala egiteko aukera izango dugunik. 2016tik gabitza honekin lanean, eta ostean ere Valenekin batera asko landu dugu nola eszenaratu". Obrak afrikar lo-kanta bat du oinarri, eta kanta nagusi horretatik abiatuta "iragan bat eta etorkizuneko egoerak eta istorioa" sortu dituztela azaldu



Martitzen goizean egin zuten aurkezpen ekitaldia, Seminarixoan. J.O.

## LANAK AFRIKAR LO-KANTA BAT DU OINARRI; BERTATIK ABIATZEN DA GAINERAKO ISTORIA

du libretoaren ardura izan duen Elena Ibarbiak.

### Bergaran izatea, "ohorea"

Bergarako Udaleko Kultura zinegotzi Kristina Markinak ere azaldu du "herrian eta herrikit sortutako halako ekimen potoloa" Bergaran aurkeztea "ohorea" dela: "Denbora dezente pasatu da Udalera proposamena iritsi zenetik eta hasieratik argi izan genuen proiektua babestuko genuela".

Musika Eskolako zuzendari Marije Ugaldek azaldu duenez, musikala estreinatu bai, baina bertako obra ugari ezagunak dira dagoeneko: "Orfeoia erekin, formatu sinfoniko koralean, Bergaran bertan eta beste hainbat herriaren interpretatu ditugu *África* obrako lanak, baita gure bailarako beste herri batzuetan ere".

### Jantziak, Afrikatik ekarriak

Ndank Ndank elkarteko Eli Dominguezek azaldu duenez, laguntza eskatu eta berehala egon ziren prest herriko eragileekin elkarlanean aritzeko; kasu honetan, jantzien ardura hartuta: "Beti da plazer bat herriko eragileekin halako proiektuak partekatu ahal izatea. Duela pare bat urte etorri zitzaigun Valen Moñux lan honetarako laguntza eske, eta orduan Senegalera egin behar genuen bidaia bat aprobetxatu genuen oihalez eta jantzi hornitu eta horiekin musikalerako arropak egiteko".

### Kultura ondarea erdian

Era berean, Afrikak duen kultura ondareari balioa eman dio Dominguezek: "Askotan iristen zaigun kulturaren eta historia inguruko informazioa kolonialismoan eta esklabotzan oinarritutakoa da, eta halako ekimenek ere ahalbidetzen dute Afrikako aberastasuna guganaino heltzeko".

Oraindik ere hainbat kontu zehazteko dituzten arren, laster eskainiko dute informazio gehiago, baita musikaleko sarrerei dagokienez ere.



AGUSTIN AMASORRAIN

## Bi kide numerario berri Bergaran

Laboratorium museoko zuzendari Rosa Errazkin eta Miguel Angel Elkoroberezibar ikertzailea kide numerario izendatu zituen Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak Seminarixoan egindako batzar orokorrean. Errazkinek museoaz jardun zuen, eta pinturaz Elkoroberezibarrek: Bergarako pintoreen eta eskolaren ibilbidea azpimarratu zituen.

## 'Erbesteko gutunak Victor Hugori' liburua kartzela zaharrean

Martxanterek eta Angiolillo liburutegiak antolatuta, liburuen sorkuntzan aritu diren idazleak gonbidatu dituzte aza-roaren 10erako, 18:00etan, kartzela zaharrera. Hala, Hedoi Etxarte, Amaia Lasa eta Nora Arbelbide izango dira bertan. *Erbesteko gutunak Victor Hugori* liburuari esker, Louise Michel-en idatziak Michele Angiolillok

"Germinal!" oihukatu zuen lekura ekarri, elkarren hitzak eta pentsamenduak berriz lotuko dituzte. *Zein lotura dago Parisko Montmartrearen eta Bergarako kartzela zaharraren artean?* Galderari horri erantzuna ematen saiatuko dira Bergarako aurkezpenean. Azaldu dutenez, Louise Michel borrokalari anarkista eta feminista ezagunaren bizitza eta pentsamendura hurbilpen bat egingo dute, Parisko komunaren 150. urtemugan, hain zuzen ere.

## 'Ameriketako bidaia' antzezlanaren bihar Seminarixoan

Tantaka taldearen lana Patxo Telleriak idatzi eta Mireia Gabilondok zuzendutakoa da. Zapatuan iritsiko da Seminarixora, 19:00etan, eta hamar euroren truke ikusi ahal da. Antzezlanak Ameriketako Estatu Batuetara ikasturtea egitera doazen bi neska gazteren historia kontatzen du, Miren Arrieta eta Nerea Mazo aktoreen eskutik: Jone eta Maria AEBetara joan dira ikasturte osorako. Oso desberdin dira, eta ez dira ondo konpontzen. Batak *amerikarren bizimodua*-ri buruzko iritzi ona dauka; besteak, ordea, yankiekiko aurrititzi asko. Urtebete igarota, baina, betirako lagunak izango dira.

## Monzon Ganuza sariko artista aukeratzeko epea zabalik da

Monzon-Ganuza Euskal Utopikoei Saria ekimenak sari berezia eskaintzen die saridunei: euskal artista berri baten obra artistikoa. Zalao Ipiñak egindako *Amnesia kolektiboa* lanaren ostean, bigarren edizioako artista gaztea aukeratzeko epea ireki dute. Bi moldetan hautatu liteke saria: aurretik egin duen obra bat eman edota artista bati obra berri bat diseinatzeko aukera eskainiz. Bi kasuetan, 3.500 euroko ordaina eramango du artistak. Lanen berri emateko, Olaso Dorrea Fundaziora hurbildu behar da 2021eko abenduaren 31 baino lehen. Zalantzak argitzeko, [fundazioa@olasodorrrea.eus](mailto:fundazioa@olasodorrrea.eus) helbidera idatzi.



Aurretik Elgetan egindako memoria tailerretako bat, Lorea Errekalde terapeutak gidatuta. L.Z.L.

# Arreta eta oroimena lantzeko saioak

Eguenean emango diote hasiera funtzio kognitiboak aktibo mantentzeko tailerrari. Amaia Olariagak gidatuko ditu astean behineko saiook eta oroimena, arreta, orientazioa, edota lengoaia moduko gaitasunak landuko dituzte, besteak beste

**Larraitx Zeberio Lekuona** ELGETA  
Psikologoa eta animazio sozio-kulturaleko teknikaria da Olariaga, eta Legazpiko Eguneko Zentroko langilea da. "Zahartza-ro guztiak ez dira berdinak, baina garrantzitsua da etorkizunean egon daitezkeen nahasmendu kognitiboak atzeratzea. Alde horretatik, gaitasun fisi-

koekin gertatzen den moduan garrantzitsua da gaitasun kognitiboak ere entrenatzea", azaldu du. Ahanztura ohikoenetako batzuk dira izenak ez gogoratzea, nonbaitera joan eta zertara joan den ahaztea edota medikazioa hartu izana zalantzan jartzea. "Egunerokoan gertatzen diren nahasteak dira eta zerikusia

dute askotariko funtzio kognitiboekin. Nik garrantzi berezia ematen diet oroimenari eta arretari. Lengoiarekin, arrazoibidearekin eta pertzepzioarekin oso lotuta daude, baina arreta memoriaren atea da. Ate horretatik sartzen ez dena ezingo dugu gogoratu, eta gertatzen da adineko pertsonak oso hauskor

sentitzea zenbait egoeratan. Funtzio kognitiboak aktibo mantentzeko estrategiak garatuko ditugu tailerrean. Garrantzitsua da autonomo izaten jarraitzeko".

Musikari eta erlaxazioari ere denbora eskainiko diela azaldu du Olariagak, eta, horrekin batera, etxean egiteko moduko ariketak ere proposatuko dituela. "Irakurtzea oso garrantzitsua da. Hizki-zopak eta sudokuak egitea ere bai", azaldu du.

Taldearen ezaugarriak ezagutzeko eta bakoitzak dituen perspektibak eta beharrak identifikatzeko, galdetegi labur bat proposatuko du lehenengo saioan. Hortik ateratako ondorioetatik egingo du tailerraren plangintza zehatzagoa.

## Pandemiaren eragina

Pandemiak eta pandemiak eragindako itxialdiak ondorioak izan ditu adineko pertsonen artean. "Eragina ez da bera izan denendako. Itxialdiaren nolokotasunak, norberaren ezaugarriak eta ingurukoengandik jasotako babesak zeresan handia izan dute, baina pandemiak, oro har, inpaktu handia izan du antsietate eta estres mailetan, eta antzerako tailerrak ondo etorri daitezke harreman sozialak aktibatze eta isolamendu soziala saihesteko".

Pandemiak gauza asko aldatu ditu herritarren egunerokoan, eta pertsona nagusiei dagokienez gehiago, adituaren esanetan.

"Funtzio kognitiboei dagokienez, egoera ez da behar zen moduan landu, eta isolamendua eta autokonfiantza falta garatu dira hainbat kasutan". Teknologia berrien eragina aipatzen du Olariagak: "Pertsona nagusi asko baztertuak sentitu dira. Normalean, denok dugu telefonoa, baina eduki ez dutenak ezin izan dira ingurukoekin kontaktuan jarri, eta horrek ondorioak izan ditu". Autokonfiantza arazoak ere sortu direla ohartarazten du Olariagak. Legazpiko Eguneko Zentroan izandako esperientziatik egiten du berba: "Saiatzen ginen jarduera fisikoa egin ahal izateko erabiltzaileen dako bideoak prestatzen eta bidaltzen. Edo funtzio kognitiboak lantzeko fitxak eta ariketak helarazten, baina egoera eta baliabide guztiak ez ziren berdinak".

## Izena emateko aukera zabalik

Oraingoz, zortzi lagun daude izena emanda. Interesatuak udal-etxean egin behar dute eskaera, hilaren 8a baino lehen. Parte hartzea doan da eta saioak eguenean egingo dituzte, 10:00etatik 11:30era, hain zuzen.

## "GARRANTZITSUA DA ETORKIZUNEAN IZAN DAITEZKEEN NAHASMENDUAK ATZERATZEA"

## Perretxiko berezia

Jose Ramon Sarasua Txapel-ek bidali du argazkia. "Hemen inguruan bakarrik ikusi izan dut nik perretxiko mota hori, eta etxe ondoan atera da egunotan. Uste dut okela ustela esaten zaiola euskaraz. Duen usain txarragatik dela esango nuke. Ondoan ikusten den borobil zuria perretxiko jaioberria da. Mota arraroa da. Ez dakit jende askok ikusi ote duen".



JOSE RAMON SARASUA

## OHARRAK

### Azaroaren 20ko mobilizaziorako autobusa

Aske eta berdinen Euskal Herria lortu arte lelopean deitu du EH Bilduk mobilizazioa Bilbon. Elgetatik ere autobusa antolatuko dute. Prezioa 5 euro da. Izen-ematea zabalik da Haizea tabernan.

### Erretiratuek gaztaina-erre jana barikuan

Xalbadorpe elkarteak antolatuta, erretiratuak 17:00etan elkartuko dira Ozkarbi elkartearen.

### Errigora saskiak eskatzeko azken egunak

Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari laguntzeko kanpaina azaroaren 11ra arte egongo da martxan. Eskaerak egin daitezke online, liburutegian, Haizea tabernan eta Lola jatetxean.

### Ozkarbi elkarteko Gabonetako loteria

Dezimoak eska daitezke elkarteko ordenagailutik hilaren 10era arte. Hortik aurrera, hilaren 12an 18:30etik 20:00etara eta hilaren 13an 11:00etatik 13:00etara, elkartearen bertan.

### Garbigune ibiltaria

Mankomunitateak Salbador kalean ipiniko du garbigune ibiltaria, eguaztenean, 10:00etatik 21:00etara.



# Mendian gora ere, nolako zura, halako ezpala

Aldapan gora eta behera antxintxika egitea dute gustuko Iñaki Egizabalek eta Eleder Lozanok, eta, itxura guztien arabera, afizio hori ondorengoei ere transmititu diete. Asteburuan Galdames herrian jokaturako lasterketan, bost elgetarrek egin zuten topo

**Larraitx Zeberio Lekuona** ELGETA

Gazteak indartsu datoz, baina, Bizkaiko proban, nagusiago direnak iritsi ziren lehenago helmugara. "Ez da beti horrela izaten", azaldu du Iñaki Egizabalek. "Ondo entrenatzen bada, irabazi egiten didate biek. Duela bi urte, Pablo nire aurretik sartu zen". *Bizitzaren legea*, esango dute askok, baina bai Egizabal bai Lozano sasoi onean daude. Emaizak ikusi besterik ez dago.

Galdamesen jokaturako igoe-  
ran izan ziren bostak domekan. Probak 6,5 kilometro ditu, eta 651 metroko desnibela. 55 parte hartzaile izan ziren eta bost elgetarrek lehen hamabost postuen artean sailkatu ziren. Eleder Lozanok bigarren egin zuen sailkapen orokorrean eta lehenengo beteranoa izan zen, 45.20 denborarekin. Iñaki Egizabal (48.21) laugarren sailkatu zen eta bigarren beteranoa izan zen. Bosgarren sartu zen helmugan Martin Egizabal (49.04) eta zortzigarren Pablo anaia (50.08). Antzerako lasterketa batean lehen esperientzia zuen Urko Lozano (52.16) hamabosgarrena izan zen.

## Lasterketa gutxi

"Ez dugu lasterketa askotan parte hartzen", azaldu du Iñaki Egizabalek. "16 urte behar dira izena emateko, eta Pablok ez dauzka oraindik. Hilabete barru beteko ditu. Galdames berezia da. Baimena eskatu genuen eta baietz esan ziguten. Lauzpabost aldiz hartu dugu parte". Egoera berean dira lozanotarrak. "Nik jokatu ditut lasterketa batzuk, baina Urkorendako lehena zen. 15 urte ditu".

Herri mailakoa den Intxortako Igoeran parte hartutakoak dira guztiak. Gaur-gaurkoz, Eleder Lozanorena da markarik onena gizonetzkoetan, eta aurretik Iñaki Egizabalek zeukan.



Iñaki eta Martin Egizabal, Eleder Lozano, Pablo Egizabal eta Urko Lozano. O. V.

## LEHEN HAMABOSTEN ARTEAN SARTU ZIREN ELGETARRAK; LOZANO ETA EGIZABAL, BETERANO ONENAK

"Nire ustez, Intxortako Igoeran animatu zen gure semea", azaltzen du Eleder Lozanok. "Martinek eta Pablok Galdamesko lasterketaren berri eman zioten, eta izena eman nahi zuela esan zuen etxean".

## Nork bere erritmoa

Mendian sarri ibili arren, oso gutxitan egin dute topo entrenatzerakoan. "Hemen dauden bidezidor eta pista guztiekin, oso zaila da", esan du Eleder Lozanok. "Adibidez, niri gustatzen zait semeekin entrenatzea, baina beraiei, aldiz, gutxiago nirekin joatea", azaldu du Iñaki Egizabalek. "Nork bere erritmoa joan nahi du, eta ez dira erritmo berak. Beraiek ere ez dira beti elkarrekin joaten; Martini gehiago gustatzen zaio asfalto eta Pablori, berriz, mendia, aldapa eta lokatza".

## Neguko atsedenaldia orain

Udaberrira arte amaitutzat ematen du denboraldia Eleder Lozanok. Iritzi berekoa da Iñaki Egizabal: "Neguan gutxiago ibiltzen gara. Egia da aurrekoan dezente ibili ginela. Elurra egin zuen eta sekula baino gehiago gozatu genuen. Intxortara eta Anbotora joan ginen. Gogoan dut nola igo ginen Intxortara belaunetarainoko elurrarekin, eta praka motzetan".

Bai Egizabalek bai Lozanok gustuko dute afizioa semeekin konpartitzea. "Gure kasuan, nor bere aldetik entrenatzen da, eta lasterketa ere nork bere erritmoa egin zuen. Horrela eskatu zidan semeak, eta bakean utzi nuen", azaldu du Lozanok. Mendian gauza kurioak gertatzen direla gaineratu du Egizabalek. "Etxean gauza gutxi kontatzen dituen mendian berotutakoan askotariko kontuak kontatzen hasten da. Sinesgaitza da, eta oso interesgarria. Une berezi asko egoten dira". Mendiak, bestetik, alde positibo asko dituela uste du. "Umeek ikasten dute sufritzen, helburu bat lortzeko ahalegintzen, aldamenekoari laguntzen... Polita da".



Mikel Fernandez de Arroiabe, Andoni Gutierrez eta Mikel Beretxinaga. SEA LEVEL

## Uretako motorren munduko txapelketan mekanikari lanetan

Sea Level taldearendako asistentzia lanak egiten izan da Mikel Beretxinaga, eta lehiaketa irabazita itzuli dira

**L.Z.L.** ELGETA

"Ez naiz mekanikaria, baina ondo moldatzen naiz motorrekin, eta zazpi bat urte diziplina honetan lehiatzen diharduen Andoni Gutierrez abadinarrak eskatuta izan naiz Mallorcan jokaturako txapelketan", azaldu du Mikel Beretxinagak. Urriaren 17tik 24ra izan da Balearretako uhartean abentura berean eta antzerako betebeharreran lagun izan duen Mikel Fernandez de Arroiabe gatzagarrarekin batera. "Esperientzia oso ona izan da. Konfiantzazko jendea behar zuten asistentzia lanak egiteko, eta ondo moldatu gara taldeko gainerako kideekin. Taldeko pilotuek, gainera, txapelketa irabazi dute. Ez dago gehiago eskatzerik".

Andoni Gutierrez eta Enrique Garcia (Altea) izan dira txapelketa irabazi duten Sea Level taldeko bi pilotuak. "Lehenengo

egunetik izan genituen arazo mekanikoak; dezenteak, gainera. Pentsatu genuen ez genuela txapelketa amaituko, baina jakin genuen buelta ematen. Gero, itsasoa gaiztotu egin zen, eta Gutierrez hobeto moldatzen da horrelakoetan".

## Otsailean Karibera

Abenturak jarraipena izango du, ziurrenik. "Eskatu digute otsailean Karibeko Guadalupe artxipelagoan jokatzekoa den txapelketara joateko", azaldu du Beretxinagak. Antzerako lanak egitera joango dira Fernandez de Arroiabe eta biak. Gustura, gainera. Bien bitartean, hurrengo auto lasterketa prestatzen dihardu Beretxinagak; Azpeitian du jomuga, hilaren 27an.

Mallorcako abenturaren inguruko xehetasun gehiago gaurko *Puntua* aldizkariako *Motorra* atalean jaso du GOIENAK.

## Potx eta Lotx, laster herrian

Pailazoez *Kaleak bizirik!* ikuskizuna egingo dute antzokian azaroaren 14an. Sarrerak salgai daude, 5 eurotan, Julianen kioskoan zein udal webguneko loturan. Kaleko musikaria, TAO sistema zaintzeaz arduratzen den umore txarreko udaltzaina, Izaskun eta Xabi Sound, Auskalomendiko alkatea... Ez dira bakarrik etorriko, ez eta abentura gutxiarekin ere.



POTX ETA LOTX





Movember Antzuola taldearen aurkezpena Zurrategin, iaz. GOIENA

## Heldu da bibotea azaleratzeko sasoia

Movember Antzuola taldeak antolatuta, prostata eta barrabiletako minbizia prebenitzeko asmoz, hainbat hitzaldi egingo dira. Hala, azaroaren 16an, Xabier Odriozola antropologo eta psikoterapeuta Torresoroan izango da, 18:30ean

### Maidar Arregi ANTZUOLA

Duela hiru urte aurkeztu zuten Movember Antzuola taldea, eta, prostata eta barrabiletako minbizia prebenitzeko asmoz, hainbat ekintza egin dituzte urte hauetan guztietan herrian. Aurtan ere, ildo berean, Movember kanpainarekin bat egiteko aukera egongo da. Horregatik, biboteak azaleratzeko dei egin diete herritarrei antolatzaileek, eta antolatuko diren ekintzetan parte hartzeko gonbidapena egingo ere aprobetxatu dute.

### Gizarte eredu berritzailea

Azaroaren 16an, martitzena, Xabier Odriozola antropologo, psikoterapeuta eta irakasleak hitzaldia egingo du. Odriozola azken urteetan gizon eta emakume taldeekin aritu da lanean, eta hamarnaka hitzaldi eta ikastaro partekatu ditu berdintasuneko gizarte eraikitzeke eredu berritzaileak proposatzeko. Hainbat artikulu idatzi ditu maskulinitatearen inguruan, baita 2014.

urtean argitaratutako liburu bat ere: *Gizonezkoen sexismoa, maskulinitasuna eta askapena: Berdintasunerantz* (Metaziri, 2014). "Gizonok, izatea egokitu zaigun gizaki taldea edo kolektiboa garelako, jaso ditugu hainbat agindu, ohitura, iguripen, sasi-arau, esapide eta abar. Nolakoak izan behar dugun argi adierazten dutenak eta, noski, baita nolakoak ez dugun izan behar zuzen eta garbi markatzen dutenak. Gizon izateko era tradizionala izan da duela gutxi arte—eta, zoritxarrez, oraindik orain, indarrean dagoen eredu biza da— onargarritzat, balekotzat eta zuzentzat edo egokitatzat eman dena, eta, jakina, bere baitan jokabide, ideario eta ohitura zein agindu eta iguripen

**AZAROAREN 20AN, ZAPATUA, ELORREGIN BATUKO DIRA HERRI GUZTIETAKO ORDEZKARIAK**

sexistaz josia egon da. Ez dugu beste eredurik izan gure hezkuntzan ez gure hazkuntzan ere, eta hari leialki atxikiturik hazi, hezi eta heldu-zahartu egin gara modu egokiena, zibilizatuena, zelakoan. Baina eredu egokia izan al da? Onura ala kaltea, zer ekarri digu guri gizonezkoai, eta, noski, ondorioz, emakumezkoai, haurrei, eta genero esteotipo ohiko hauetatik at gertatzen direnei?", hausnarrarazi du Odriozolak. Horiez guztiez jardungo du psikoterapeutak hilaren 16an Torresoroan, arratsaldeko sei eta erdietan.

### Prebentzioa da gakoa

Jon Belloso urologoak prostatako minbiziaren prebentzioaz ere jardungo duela aurreratu dute antolatzaileek—eguna zehazteke dute oraindik—. Eta azaroaren 20an, zapatua, Elorregin bailarako gainontzeko herrietako Movember ekimenetako kideekin topaketa egingo dela jakinarazi dute.

## Errelebo aldaketarako bidea abian jarri du Anelkarrek

Azaroaren 10ean, eguaztena, Anelkarrek herritarrei irekitako batzarra egingo du Torresoroan, 19:00etan

### M.A. ANTZUOLA

23 urteko ibilbidea du Anelkar elkarteak, eta pixkanaka batzordea berritzeko asmoa ere badutela aitortu dute kideek. Hori dela-eta, azaroaren 10erako, eguaztena, elkartearen egoeraren berri emateko herritarrendako batzar irekia deitu dute. "Batzordekideen artean dagoeneko bi aldaketa ditugu, eta, alde batetik, horiek jakinaraziko ditugu batzarrean. Bestetik, COVID-19a dela-eta azken bi urteetan ezer egiterik izan ez dugun arren, urte hauetan guztietan egindakoaren berri ere emango diegu herritarrei", azaldu du Anelkarko Jabi Etxanizek.

Aurrera begirako ekimen, erronka eta asmoen berri ere emango dute Anelkarko kideek. "Batzarra ez da izango bazkideendako soilik; antzuolar orori irekia da, eta, Anelkarren



Anelkarren Elkartasun festa. GOIENA

egoeraren berri emateaz gain, errelebo aldaketarako bidea ere egin nahi dugula azalduko dugu bertan. Ateak irekita daude be-laualdi aldaketa hori gauza dadin, eta lerrook aprobetxatu gura ditut herritarrek animatzeko", nabarmendu du.

## Rock doinuak nagusi bihar Zurrategin egingo den jaialdian

Dena gertu dute Antzuolako Rock Eguna ospatzeko bihar, zapatua. Herriko musikariak izango dira protagonista, eta hainbat estilo entzuteko aukera izango da, Zurrategi plazan, gaueko bederatzieta hasita. Esandako moduan, herriko musikariak eta sortzaileak izango dute ahotsa: Spinalonga, Udazken taldea, Irati Jauregi eta Irati

Gardoki, Ainhoa eta Nahia, Koldo eta Irati Lizarralde, eta Lemak, besteak beste.

Rock-and-roll gauaz gozatzeko dei egin diete antolatzaileek herritarrei. Izan ere, herrian dagoen musikarekiko zaletasuna eta sormena azaleratzea ere badu xede ekimenak. "Elkarlanean musikarekin harremana duten herritarrek antolatutako emanaldia izan da. Herrian dauden musikariak ikusarazteaz gain, giro ederrean elkartu gura dugu", diote.

## Liburutegiko bi ikasgela erabilgarri dituzte herritarrek

Antzuolako Udalak bi ikasgela egokitu ditu Torresoroako liburutegian bertan. Gela biak orduetegi arruntetik kanpo erabili ahal izango dituzte erabiltzaileak. Baina aurrez eskaera-orria bete beharko dute, baldintzak onartu eta baimena eta giltza jaso. Informazio gehiago udaletxera edo liburutegira jota izango dute erabiltzaileek.

## Ekainberrira irteera antolatu du Landatxope elkarteak

Azaroaren 17an, eguaztena, Zestoako Ekainberri kobara irteera egingo dute erretiratuek. Izena emateko aukera dago azaroaren 8an eta 9an—16:00-18:00—. Bazkideendako 35 euroko kostua du; gainontzekoendako, 40koa. Hararretakoa Zestoan egingo dute eta bazkaria, Zumaian, Marina Berri jatetxean. Irteera: 08:45ean, Antiguatik; 09:00etan, Sagastitik.



# "Ipuin ilustratuari forma eman diot, oraingoz"

IONE LARRAÑAGA GORRITXO ILUSTRATZAILEA

Txepetx batek amets baten bila egiten duen bidaia kontatuko duen ipuin ilustratu bat egiten ari da antzuolarra, Alkizako Udalaren Sormenaren Kabia bekari esker

Imanol Beloki ANTZUOLA

Ione Larrañaga Gorritxo Antzuolako ilustratzailea Alkizan izan da, Sormenaren Kabia bekari esker txepetx bat protagonista duen ipuin ilustratua sortzen, hiru aste iraun duen egonaldi artistikoan. Txori batek egiten duen bidaia kontatuko du, eta argi du sortze-prozesuaren bidean ere disfrutatu daitekeela, eta baita asko ikasi ere. Lortzen duen azken emaitzari hainbeste erreparatu barik, egiten duenari balioa emanda.

**Alkizako Sormenaren Kabia beka-ko irabazleetako bat sara, eta saria ipuin ilustratu bat sortzea da. Saria ederra da, baina erronka ere hala-koa, ezta?**

Hala da, baina gustuko erronka da. Hiru astez izan naiz Tolo-saldeko Alkiza herrian ipuin ilustratuarekin buru-belarri, eta joan den astean bueltatu nintzen egonaldi artistikotik. **Nolako lana izango da? Zein baldintza ezarri dizute ipuin ilustratua gauzatzeko?**

Proiektua aurkeztu behar zen, eta beraiek aukeratzen zuten. Hala, espazio bat uzten dizute Alkizan, eta denbora bat ematen dizute lana gauzatzeko, nahiz eta hiru asteko egonaldi horretan lana bukatzea ezinbesteko ez izan. Berez, amaitu



Ione Larrañaga ipuin ilustratua egiten. UNAI SORARRAIN

duen egonaldia, eta oraindik lana dut aurretik.

**Zer da zuretzat Sormenaren Kabia beka jasotzea?**

Proiektu propio bat sortzeko denbora bat hartzea ekarri dit. Pribilegio bat da hori; izan ere, askotan, enkarguei erantzun behar izaten diet, eta, oraingo honetan, nik neuk sortutako zerbitzu izango da. Bestelako lanetan ez dugu hainbesteko denborarik segidan gauza batean soilik zentratzeko.


**Natura eta denbora elementuak izaten dituzu presente zure lan**

**askotan. Horiek ardatz jardungo duzu ipuin ilustratuan?**

Ez, bereziki. Kasu honetan, txori baten istorioa da, eta bere bidaiaaren kontakizuna.

**Ipuin ilustratua sortzeko abiapuntua zein da? Eta, horrekin batera, ondorengo prozesua?**

Alkizan eman ditudan lehenengo egunak antolaketaarako baliatu nituen. Istoria kontakatzeko, *storyboard* batetik hasten naiz, modu eskematikoan. Hortik saiatzzen naiz irudiak ateratzen, nahiz eta, nire kasuan, askotan, irudiak aurretik



Kaxiano gogoan daraman horma-irudia. '@ANTZUOLAKOUDALA'

## Kaxiano gogoan, horma-irudia

Eguzki auzoaren osteko zubiaren pareko horman Kaxianoren omenezko murla margotu zuten Oier Peñagarikano eta Ione Larrañaga artistek. Kaxiano Antzuolako baserri batean jaio zen, eta herritarren artean presente egotea nahi izan zuten artistek.

pentsatuta izaten ditudan. Burura lehenago etortzen zaizkit irudiak testua bera baino. Marrazkiak paperean eta arkatzeg egiten ditut, eta, paperean egindako hori digitalizatu ondoren, ordenagailuan lantzen ditut: lehenengo, marrazkiak garbitu, eta, ondoren, koloretatu. 32 orri inguru ditut eginda, oraingoz, baina 40 orrialde-tara iristea da nire asmoa, kontuan hartu barik azala eta kontrazala.

**Azkeneko ukituak eman ondoren, noizko izango duzu prest ipuin ilustratua?**

Ez dut eperik, eta eskertzen da proiektu bat patxadaz egiteko aukera izatea. Gabonetan erakusketa bat egingo da eta aurkezpen bat egingo da abenduaren 17an Alkizan, eta, ordurako, lana aurkezteko, eginda izan beharko nuke.

**Kasu honetan, ipuin ilustratu bat egiten ari zara, baina kaleko muraletan ere ari zara?**

Oier Peñagarikano eta biok ari gara Antzuolako horma-irudiak egiten, eta, zenbait egin ditugun arren, bukatu barik ditugu. Guztira, zortzi horma-irudi izango dira, eta horietan erakutsiko ditugun gaiek izango dute Antzuolarekin zerikusia: Kaxiano soinu-joleari nolabaiteko aitortza, bertakoa zelako; pilota ere landuko dugu; mural feminista bat ere bada, *Euskaraz blai* leloa sartu dugu haurrak ibiltzen diren ur parkean...

**"NIRE KASUAN, ASKOTAN, BURURA LEHENAGO ETORTZEN ZAIZKIT IRUDIAK TESTUA BERA BAINO"**

## Aiherra eta Antzuola bat eginik, festa eguna azaroaren 13an

Aiherrako zein Antzuolako dantzarien jarduna ikusteko aukera izango da, herri bazkaria eta abar

Imanol Beloki ANTZUOLA

1984. urte inguruan hasitakoa da aihertarren eta antzuolarren arteko harremana, eta bi herri herri txiki hauen arteko adiskidetasuna gorpuztuz joan da ordutik. Pandemiak behin baino

gehiagotan geratu du bi herrietakoak batzeko asmoa, baina berriro elkar ikusi, besarkatu, dantzaz gozatu, bazkaldu eta dantzatzeko aukera izango dute azaroaren 13an egingo duten jaiegunean.

11:00 inguruan harrera egingo diote antzuolarrak Aiherratik datozei. Ongietorria egin, eta hamaiketako izango dute, eta segidan, Aiherrako eta Antzuolako dantzariak emanaldia egingo dute. 14:30ean, berriz, herri-bazkaria izango dute, eta bazkalostean erromeria.

Eguraldiaren arabera erabakiko dute dantzak eta bazkaria non egin. Hala ere, herri-bazkarirako txartelak aldeztu aurretik erosi beharko dira, udaletxean edo liburutegian.

## Ongi Etorri jatetxean kontzertua eskainiko du Patxi Luquek

Zapatuan, zuzeneko egingo du Patxi Luque musikari eta konpositore antzuolarrak Ongi Etorri jatetxean. Emanaldia 00:00etan izango da, eta Luquek eskaintzen duen rock-and-rollaz eta heavyaz disfrutatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek. Sarrera doakoa izango da, eta, gitarrarekin sortzen dituen bertuosismoez gain, gi-

tarra riff gogorak eta bertsio ezagunak ere eskainiko ditu ohol-tza gainean, *Keep on rocking* esaldiari men eginez.

Urriaren 22an Puntaik Punta jaialdian egin zuen azken emanaldia, eta orduan sorpresa ere izan zuten ikus-entzuleek. Izan ere, 10 urteko iloba igo zen agertokira, eta Maluren *Blanco y negro* abestia eskaini zuten elkarrekin. Oraingoan, ez da aurreikusten halakorik, baina emanaldi paregabea izango da, hori seguru.



Anik Zubizarreta eta Onintza De Andres, martizenean egindako aurkezpenean. JULEN IRIONDO

# Topaketak, elkartearen sarea indartzeko

Ehunetik gora erakunde, elkarte eta kolektibo daude Oñatin, eta horien arteko elkarlanerako espazioa izan nahi du Udalak aurkeztu duen Aulkiak ekimenak. Oñatiko elkartearen topaketak egingo dituzte Eltzian azaroan, eta jarraipena izango du

## Oihana Elortza OÑATI

Herriko elkartearen elkarlanerako espazioa gura du izan Aulkiak egitasmoak. Udaleko arduradunen esanetan, ekimenaren helburua da ahal beste elkarte eta gizarte-ekimen ezagutzea eta horiek elkarren berri izatea, Oñatiko elkarte eta gizarte-sarearen egungo egoerari buruz gogoeta egitea eta ideiak, proposamenak eta iritziak trukatzeko. Jardunaldi hauek kolektiboen esperientziak elkarbanatzeko espazio izatea gura da.

## Nahi beste elkarte bakoitzetik

Topaketa horiek egiteko hiru egun jarri dituzte; azaroan hirurak. Elkarrekin hiru egunetako bat aukeratu beharko dute. Eltzian izango dira topaketak, erakunde bakoitzetik nahi beste pertsonak hartu ahaliko du parte, eta izen-ematea [www.onati.eus](http://www.onati.eus) helbidean, [partaidetza@onati.eus](mailto:partaidetza@onati.eus) helbide elektronikora idatzita edo kultura etxean egin ahal izango da. Azaroaren 15a

izango da izena emateko azkeneko eguna.

Ekimena martxan jarri aurretik, asmoa partekatu zuen Oñatiko Udalak herriko elkartearen lagin batekin, eta jasotako ekarpenekin diseinatu dute Aulkiak izeneko topaketa hau. Ekimena asmo orokorrako baten parte da, gainera: "Ez da izan gauza solte bat, aterki handiago baten

azpian kokatzen da; arlo komunitarioan lantzen ari garen proiektuaren barruan dago. 2020ko otsailean hasi ginen honekin lanean", azaldu du Anik Zubizarreta zinegotziak.

## Aulkiak elementu hartuta

Topaketaren aurkezpena egi-terakoan, askotariko aulkiak irudikatu dituzte biribilean jarrita, elkarren artean desberdinak; Oñatiko Udaleko Partaidetza eta Garapen Komunitario batzordeko buru Anik Zubizarretak azaldu du zergatik: "Topaketaren metafora modura da; izan ere, bakoitza bere ibilbidearekin, bere bizipenekin, bere kezkekin eta bere pozekin joango da topaketa horietara, gainerakoekin hori partekatuz. Bestalde, irudikatu nahi dugu norbere eguneroko jardute horretatik kolektiboa den zerbaitera batzen dela".

Hilabete honetako hiru saioen ostean, proiektuak jarraipena izango du.

## Hiru egunetan egingo dira

### Topaketak

- 17:00etik 20:30era, azaroaren 19an.
- 10:00etatik 13:30era, azaroaren 20an eta 27an.

Oharra: Eltzian dira eta izena emateko azken eguna azaroaren 15a da



Bixente Urrutia eta Karmelo Guridi. OÑATIKO UDALA

## Karmelo Guridik ordezkaturako du Bixente Urrutia Udalean

"Arrazoi pertsonalak eraginda" utziko du zinegotzi kargua Urrutiak. Batzordeetan aldaketak egongo dira

### O.E. OÑATI

"Arrazoi pertsonalengatik", Oñatiko Udalean duen zinegotzi kargua eta gainerako ardurak utziko ditu Bixente Urrutiak, eta Karmelo Guridi izango da haren lekua hartuko duena, EH Bilduko zinegotzi berria. "Eske-rrak eman gura nizkieke udal taldeko gainerako ordezkariak, herrikideei, auzotako ordezkariak... urte hauetan guztietan euren konfiantza emateagatik. Datorrenak ere ondo egingo du, seguru", dio Urrutiak prentsa oharrean. Izaro Elorzak nabarmendu du Urrutiak izandako

konpromisoa, eta Guridik bada-kiela "lan egitea zer den". Guridik berak ere lanerako gogoz dagoela esan du: "Udaleko zenbait alor ezagutzen hasiko naiz orain. Lanerako gogoz nago. Ziur naiz egungo lantaldeak asko erraztuko didala bidea".

Hilaren 25eko osoko bilkuran egingo da aldaketa. Hortik aurrera, Xabier Igartuak hartuko du egun Urrutiak daroan Zerbitzuak eta Landa Garapeneko batzordea. Karmelo Guridiren esku geratuko da Sozioekonomia eta Turismokoa. Kirolekoan ere parte hartuko du.

## GORA ETA BEHERA



## Portu kalean sarritan ikusten ei den irudia

Portu kalean "egunero" ikusten duenari argazki atera eta GOIENARA bidali du irakurle batek, minduta. Eskaera bat eta galdera bat ere egin ditu: "Hondakinak tokatzen diren egunetan atera, mesedez. Denok berdin eginez gero, zelan egongo litzateke herria?".

### EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

[berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus)  
edo 688 69 00 07.





Izaro Elorza martitzenean Goiena telebistako platoon, *Harira* saioa grabatu ostean. O.E.

# Elorza: "Eraberritzeari lotuta dago igoera"

Kiroldegiko tasaren argibideak ez ezik, futbol zelai berria HAPOnen barruan landuko dutela adierazi du Izaro Elorza alkateak Goiena telebistako 'Harira' saioan. Olakuan, San Martinen eta Uribarrin zuntz propioa hedatzeko asmoa ere badute, auzotarrekin

## Oihana Elortza OÑATI

Agintaldiaren lehen erdian egin-dakoaz eta bigarren erdian egiteko asmoa duten proiektuez mintzatu da asteen Izaro Elorza Arregi, Oñatiko alkatea (EH Bildu), Goiena telebistako *Harira* saioan. Ainhua Galdos EAJ-ren bozeramailea ere gonbitatu zuten, baina Oñatiko EAJk uko egin dio saioan parte hartzeari. Honenbestez, alkateak bakarrik erantzun ditu Eneko Azkarate kazetariak eta herritarrek egin-dako galderak.

## Lehentasuna, herri programak

Orain arte agintaldian egindako lanaz eta egoerak sortutako gorabeherez galdetuta, pozik dagoela erantzun du Elorzak, eta baikor datozen hilabetei begira. "Egia esan, bi urte zail izan dira denondako. Testuinguru ezezaguna izan da eta momentuko beharrei erantzun azkarrak eman behar izan dizkiegu. Baina bi urte hauek aztertuz, uste dut kudeaketa txukuna egin

dugula, beharrei erantzunez eta, era berean, proiektuak eta zerbitzuak martxan jarritz. Datorrena oparoa izango dela iruditzen zait, ilusioz gaude gauzak egiteko".

Egingo dituzten proiektuen artean, jakinekoak ziren musika eskolaren eta Emakumeen Etxearen proiektuak aipatu ditu, eta azaldu du zergatik aukeratu dituzten proiektu horiek eta ez, adibidez, futbol zelai berria egitea. "Herri programa lantzerakoan Haritu prozesua jarri genuen martxan, parte-hartze prozesua, eta hor garbi ikusi zen musika eskolak kokapena, irisgarritasuna eta eraikina aldatzea eskatzen zituela. Berdintasun arloan, berri, emakumeen etxearen behararen diagnostika jaso genuen. Lehentasunak jartzerakoan, herri programari egin diogu kasu eta ikusi dugu bi proiektu horiek estrategikoak direla, musika eskolak herritar askori erantzuten diolako eta berdintasun politikak martxan

jartzea badelako gure nahia. Gainera, oreka bat bilatzen dugu martxan jartzen dugun horretan; kirola eta osasuna bai, baina besteak albora utzi barik". Futbol zelaiari dagokionez, bestalde, ez du baztertu berria egiteko aukera: "HAPO aztertzen ari gara, eta hor landuko dugu hori. Dagoen tokian mantentzen bada, dena dela, ingurua ere egokitu beharko da, eta bigarren fasean aztertuko dugu hori".

## Zergen igoera, sarreretako

Kiroldegi berrituari dagokionez, datorren urterako tasa %20ko igotzearen arrazoia eman du Elorzak *Harira* saioan. "Lehendik ikusten zen abonamenduen berregituraketa behar zela, bai-

**ELORREGIKO KOMUNARI DATORREN URTEAN IRTENBIDE "DEZENTE" BAT EMAN GURAKO LIOKETE**

na eraberritzea mahai gainean zegoen, eta erabaki zen biak batera egitea. Orain, aldatu egin dugu, eta sinplifikatzera joan gara, gizarte taldearen eta norbanakoaren egoeraren arabera, eta hobariak aplikatuko dira errentaren arabera. Proiektu honetan lan handia egon da atzetik eta obraren jarraipenean, baina emaitza oso ona izan dela uste dut. Bestalde, zerbitzuak hobetzen diren heinean logikoa ere bada igotzea, baina kontuan hartu dugu igoera gehiegizkoa ez izatea; inguruko herrietakoak begirata, gutxiago ordainduko da Oñatin". Zergen igoera orokorrari dagokionez, %2,5. Elorzak adierazi du inbertsioak egiteko ahalmena izan gura duela Udalak, eta zergak direla horietako bide bat, foru funtsarekin eta dirulaguntzekin batera. Udalaren egoera ekonomikoari buruz, ona dela esan du eta gaineratu kiroldegirako eskatutako maileguaren ordainketa aurreratuta dutela.

## Zuntz propioaren hedapena

Bestalde, Onaro herriko telekomunikazio operadorearen harre-ra ona izan dela dio Oñatiko alkateak: "Landaguneari erantzutea zen lehentasuna, eta 50 familia ari dira erabiltzen dagoeneko; herrigunean 120 bezero daude. Orain, zuntz propioa bota gura dugu Olakua, San Martin eta Uribarri auzoetan. Proiektu komunitarioa jarri gura dugu guzuz horietan, eta harremanetan gaude auzotarrekin".

## Komuna eta espaloiak

Herritarrek egindako galderei erantzunez, Elorregiko komuna jartzeko lanean ari direla erantzun du Izaro Elorzak, beste udal eta erakunde batzuekin batera. Datorren urtean irtenbide "dezente" bat emateko moduan egon gurako lukeela aitortu du. Kanpoko igerilekurik ez dutela egingo ere esan du, eta entzun du Kanpantxoko espaloia konpondu beharrean dagoela. Bonuak azokan erabiltzeari buruz, oraingoak, behintzat, ezin dira han erabili. Azokari lotuta, Gipuzkoako Azokan Sarean dago Oñati eta indarguneekin eta ahuleziekin egindako ekintza plana nola gauzatu aztertzen hasiko dira. Berezaoko bidea HAPON landuko dutela ere esan du.



NIRE USTEZ

MANU EGAÑA

## Er(resisten)tziak

Font-en *Clint Eastwood* kanta entzunez irakurri:

Atzera egiten dit. Erresistentziak eta oztopoak aurkitzen ditut. Eta, zergatik ez aitortu, beldurra ematen dit. Nire barruan begiratzeari eta zer aurkitzen dudana jakiteari beldurra diot. Askotan, gizontasuna estoizismoen, menderakuntzen, agresibitateen, lehiaketen eta sexismoen kontzeptuetan korapilatuta gelditzen da. Gizonen psikean ezaugarri ezberdin bat aurkitzen dugu: tristura, esperantzarik eza edo haserrea ez den beste emozio bat sentitzen dugunean, lotsa sentitzen dugu. Gizon asko maskara baten barruan bizi gara. Handitzen goazen heinean, gure burua zentsuratzen dugu, gure emozioak erreprimatuz, eta, orokorrean, gure zaurgarritasuna eta sentimenduak gordetzen ditugu. Negar egiteari uzten diogu, ez dugu gure emozioekin konektatzen, ez gara zaurgarritasunez erakusten. Erreferente inspiratzaileak eta ezberdinak behar ditugu. Konpetentzia, agresibitatea eta botereen ezaugarriez aparte, afektuak, zaintza edota gatazkak elkarriketaren bitartez konpontzen dutenak balioan jartzea behar dugu.

## Arantzazun jokatu dira asteburuko orientazio probak

Asteburuan jokatu da Oñatiko orientazio proba: zapatuan distantzia ertainekoa, 13:00etan hasita, eta domekan distantzia luzekoa, 09:30ean. Arantzazun egingo dira biak, Iturrigorri, eta Gandiaga Topagunea izango da erreferentziatzeko gune orokorra; han hartu beharko dituzte, esaterako, pintzak parte-hartzaileek. Ligako probak dira.



Domekan emanaldia egingo duen Arturo Duo Vital haize-boskotea. ADV

# Domekan hasiko da musika klasikoko zikloa

Aurtengo Musikegunak egitasmoaren barruan, kontzertu berezia egingo da hilaren 21ean, apirilean hil zen Juan Carlos Irizar musikari oñatiarra omentzeko. Sarrerak ohiko tokietan daude salgai; lau emanaldietarako bonuak ere har daitezke

## Oihana Elortza OÑATI

Joan den urtean egoera berezian ospatu zen musika klasikoa oinarri duen egitasmoa, eta aurren bide berari eutsiko dio, osasun eta segurtasun baldintza zein mugak malguagoak diren arren. Formatuan, baina, ez da aldaketarik aurreikusten, eta ohiko lau osagaiak uztartuz osatuko da jaialdia: Santa Ana Antzokian, azaroko domeketan, 19:00etan eta musika klasikoa.

## Santa Zezilia bezperan

Kantabriako Arturo Duo Vital haize-boskotea izango da aurtengo Musikegunak egitasmoa lehen taldea. Domekan du emanaldia. Azaroaren 14an, Maria Besarate etorriko da, beste hiru musikarirekin batera. Eta hileko azken domekan, dantza eta musika, biak uztartuko dituen emanaldia egingo dute, ganbera-musika eta dantza garaikidea. *Bazen behin* emanaldia izango da, euskal tradizioa abangoardiara ekar-

## Kontzertuen egitaraua

### Azaroak 7

- Arturo Duo Vital. Haize-boskotea.

### Azaroak 14

- Maria Berasarte. David Azurza, Joseba Irazoki eta Igor Telletxea izango ditu ondoan.

### Azaroak 21

- Juan Carlos Irizarren omenezko kontzertua. Arantzazu Saiz Trio eta gonbidatuak.

### Azaroak 28

- Arah. Ganbera-musika eta dantza garaikidea.

Oharra: Emanaldi guztiak Santa Anan izango dira, 19:00etan.

tzeaz gain obra berriak aurkeztea helburu duen lana.

Aurtengo berezitasun nagusia, baina, musikarien zaindaria den Santa Zezilia egunaren bezperako kontzertuan izango da; azaroaren 21ean. Apirilean hil zen Juan Carlos Irizar musikari oñatiarraren omenezko kontzertua egingo dute; musika ondare handia utzi zuen piano-jole, konpositore eta abesbatza zein orkestra zuzendaria. Arantzazu Saiz Triok eta hainbat gonbidatuk hartuko dute parte kontzertu horretan. Horien artean, adibidez: Karmelo Bengoetxea, Iker Orozco, Xabier Ugarte, Jesus Mari Aranburu eta Aita Menniko apaiz Egoitz Zabala. Zubillaga auzoan jaio zen Irizar, eta 30 diskotik gora eta partitura-liburu asko argitaratu zituen, baita hamaika herri eta tokitako ereserkiak sortu ere. Emanaldietarako sarrerak ohiko tokietan daude salgai. Bat zortzi euro da eta lau emanaldietarako bonua, 22 euro.

## Arrikruzeko lehoiari buruzko azken liburua kalean da

Zubeldiaren 'Lehoiaren atzaparretan galduta' lanarekin batera, irteera, kontaketa eta tailerrak antolatu dituzte

### O.E. OÑATI

Iñaki Zubeldiak eta Jesus Mari Marotok aurkitu zuten Arrikruzten duela 55 urte, 1966ko udazkenean, haitzuloetako lehoiaren hezurdura, eta aurkikuntza hori eta espeleologiarekin eta espeleologoeekin lotutakoak jaso ditu Zubeldiak liburu berri honetan: *Lehoiaren atzaparretan galduta*.

Ia 200 orrialde dituen liburua da eta zientzia ikuspegitik garrantzi handia duen aurkikuntzaren nondik norakoak azaltzen ditu; Iberiar penintsulan aurkitutako animalia horren hezurdura osoena da, ia-ia hezur guztiak ditu. Liburu dendetan eta ohiko tokietan dago salgai, hamabi eurotan. Jabier Erosarbak diseinututakoa da.

Liburuaren egileak berak, Iñaki Zubeldiak, kontatuko du bizi izandakoa azaroaren 25ean, Turismo Bulegoan, azaroaren 28an eta abenduaren 8an eta 26an.



Liburuaren azala. J.I.

batera, udalak prestatutako egitarauko ekitaldietako bat da hori. Hilaren 19an, irteera egingo dute Gordailura, Irunera, hezurdura ikustera, eta *Lehoiaren tailerrak* egingo dira Arrikruzten eta Turismo Bulegoan, azaroaren 28an eta abenduaren 8an eta 26an.

## Lehen Lerroa taldeak hasiko du gaztetxeko azaroko egitaraua

Oñatiko Lehen Lerroa eta Gasteizko Dirty Old Gasteiz taldeek joko dute Antixena gaztetxean bihar, zapatua. 21:30ean hasiko da kontzertua, eta horrek zabalduko du azarorako gaztetxean prestatu duten egitaraua.

Hilabete honetan zehar izango dira musika emanaldi gehiago gaztetxean. Azaroaren 13an, esaterako, Oñatiko Mantertz eta

Lizartxo taldeek joko dute, baita Gora Etorrik eta DJ Azidok ere. Ernairen eguna ospatuko da egun horretan Antixenean, eta iluntzean izango dira kontzertuak. Aurretik, mahai-ingurua, bazkaria eta Oñatiko Ernairen aurkezpena egingo dituzte.

Azaroko azken domekan, berriz, *matinee*-en itzulera izango da, 12:30ean. Hegazkin taldeak joko du orduan. Musika emanaldiez gain, hilaren 19an egingo duten mus txapelketa ere badator gaztetxeko azaroko egitarauan.

## Bach-en piezak entzungo dira bihar Arantzazun

Johann Sebastian Bach musikariaren kantatak eta moteteak eskainiko dituzte Ganbarak eta Aequus Ensemblek bihar, zapatua, Arantzazun, *Total Bach* izeneko ikuskizunean. Guztira, 58 partaide izango dira: 45 ahots, lau bakarlarri eta bederatzi musikari. Sarrerak hamar eurotan daude salgai ohiko tokietan; Arantzazun ere egongo dira.

## Lope Agirreri buruzko antzerkia ari da prestatzen Olaitturri

Olaitturri antzerki elkarteak Lope Agirreri buruzko herri antzerkia prestatzen ari da. Abenduan izango da emanaldia, eta ordu-rako antolatu duten hamabostaldi kulturalari amaiera emango dio. Abenduaren 26an izango da, Santa Ana antzokian. Aurretik, konkistatzaile oñatiarren gaineko hitzaldiak egingo dituzte.



GOIENA TELEBISTA  
SASOI BERRIA



BESTELAKO  
OLATUA!



IZENEN IZANA  
TXOMIN MADINA  
ASTELEHENETAN

"Abizenak eta  
Debagoieneko  
kale-izendegia izango  
ditugu ardatz"



AKORDEAK  
AITZIBER ARANBURUZABALA  
MARTITZENETAN

"Hainbat estilotako  
musikariak izango ditugu  
protagonista"



OKM GIDA  
JONE OLABARRIA  
EGUAZTENETAN

"Debagoiensean  
baldin badago,  
hemen dago"



"Eduki  
berriekin gatoz,  
orain artekoa  
eta gehiago  
eskaintzeko"

LARRAITZ ZEBERIO LEKUONA



DEBAGOIENDARRAK MUNDUTIK  
ENEKO AZURMENDI  
EGUENETAN

"Munduan  
zehar bizi diren  
debagoiendarrendako  
leihoa"



LUZAPENA  
MIREIA BIKUÑA  
EGUBAKOITZETAN

"Bailarako kirolariak gertutik  
eta beste modu batera  
ezagutuko ditugu"



ZUBIAK  
UXUE IGARZA  
HAMABOSTEAN BEHIN

"Musikari, kirolari eta bailarako  
aurpegi ezagunek gizarteko  
erronkekin nola konektatzen  
duten ikusiko dugu"

**HEMEN  
DEBAGOIENA**

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA  
18:00 / 20:00 ETA 22:00

**goiena**

Zu hemen zaude.



Xabier Urzelai ARRASATE

Futboleko Hirugarren Mailara igo berri zen Abetxuko talde gasteiztararekin kontratua sinatzeko puntuan zegoenean erabaki zuen saskibaloira salto egitea. Duela hiru urte, berriz, Urrezko LEB mailan nahi zuena baino gutxiago jokatzen zebilelako saskibaloia uzteko erabakia hartu zuen. Azken orduan konbentzitu zuen Iñaki Ogara *Arri-k* Arrasatera etortzeko, eta dagoeneko laugarren denboraldia hasi du talde morean. Dani Lorenzok (Gasteiz, 1993) saskibaloiaz egin du berba GOIENArekin, baina baita bestelako kontuez ere; besteak beste, Esports bideo-jokoetan eta bestelako ekitaldietan egiten dituen esatari lanaz. Hori gutxi balitz, ostalaritzan ere badihardu. **Saskibaloia utziko zenuela iragarri, eta laugarren denboraldia hasi duzu. Domekan 40 minutuak jokatzen zenuen, eta 24 puntu lortu.**

Eta ondoren, lanera joan nintzen, diskotekara. Tutankamon ematen nuen; kar, kar, kar. Espero dut min hartuta ditugunak erreku-peratzen joatea, erritmo horretan ezingo diot-eta luzaroan eutsi. **Jokalari garrantzitsu bilakatu zara talde morean.**

Bai; oso gustura nago taldeari egiten diodan ekarpenarekin, garrantzitsu sentitzen naiz, eta horrek motibatu egiten nau. Hori guztia da Urrezko LEB kategorian egin nituen bi urteetan galdu nuena. Ordura arte, minutu asko jokatzen nituen, eta kategoria horretan beste saskibaloia batekin egin nuen topo. Talde lana eta esfortzu kolektiboa beharrean, norbere interesengatik lehiatzen zen jendearekin egin nuen topo; izan ere, kategoria horietan halakoxea da saskibaloia, bakoitzak bere estatistikei begira jokatzen du. Araberriko entrenatzailearendako ez nintzen lehen aukera, kilometro asko egin behar genituen errepidean eta jokalaria profesional baten bizimodua eraman behar nuen. Alaia naiz, baina bi urte haietan umorea ere aldatu egin zitzaidan. Horregatik utzi nuen. **Arri-k Arrasatera etortzeko proposamena egin zizun arte.**

Nire entrenatzailea izan zen maila nazionalen, eta azken orduan konbentzitu ninduen. Urtebeterako etorri nintzen, ez oso konbentzitututa, eta laugarrena dut. Oso garrantzitsua izan zen Martin [Buesa] ere Arrasatera etorri izana, gaztetako lagunak gara eta. Arrasaten osterara ere lehengo

# "Garrantzitsu sentitzeak motibatu egiten nau jarraitzeko"

DANI LORENZO MU SASKIBALOI TALDEKO JOKO ANTOLATZAILEA

**SASKIBALOA** 2018an baztertu zuen jokalaria profesional izateko ametsa, eta, erretiroa hartzekoa zela, talde morearen eskaintza jaso zuen. Ez da etorri izanaz damutu



Muko jokalaria Dani Lorenzo, erasoko jokaldi bat antolatzen. GOIENA

saskibaloiarekin egin dut topo. Familia bilakatu diren taldekideak, ze giro dugun, taldeko lana...

**Eta urte politak egin dituzue kantxan, jakinda EBAtik gora egiteko aukera txikiak dituen taldea zaretela.**

Egia esango dizut, liga hasieran kosta egin zait motibatzea. Anbizioa daukadan jokalaria naiz eta badakit talde honek ze muga dituen, gorago egiteko diru asko behar da. Eta galdera horixe egiten nion neure buruari: "Zergatik jarraitzen dut saskibaloian jokatzen?". Igoera fasean, Saloun, goiko kategorietako ezagunekin egin nuen topo, aurrekontu galanta duten taldeen kontra jokatzen nuen, eta apenas izan genuen ezer egiteko aukerarik. Baina liga hasi dugu eta ondo sentitzen naiz, gozatzen nabil osterara ere. **Inoiz damutu zara futboleko kontratu hura sinatu ez izanaz?**

Bai eta ez. Arrarora da azaltzen: gustuko dut futbola, baina ikusteko, ez nik jokatzeko. 16 urte egin nituen arte, ibilbide polita neraman futboleko, baina nire balioekin bat ez datozen gauza asko ikusten nituen, eta ez nuen hor jarraitu nahi.

**Entrenatzaile aldaketa izan duzue.**

Enekok [Mata] pasioz bizi du saskibaloia, beldurrez ibiltzen naiz, egunen batean bihotzekoak eman behar dio kantxan; kar, kar, kar. Pena da, saskibaloian dagoeneko minutu onenak eman ditugun Martinekin [Buesa], Martxelekin [Balanzategi], nirekin... egin duelako topo, eta berak talde txapelduna izateko egiten du lan. Jokalari gazteek hartu behar dute errelebo hori.

**Gazteak ere txukun dabilta.**

Begira, iaz ez nuen esango gurekin egoteko nahikoa maila zutenik, ez nituen ikusten horretarako gauza. Eta sekulako aurrerapausoa eman dute, batek baino gehiagok zur eta lur utzi nau; Ekaitzek [Madinabeitia], esaterako. Eta gero, badira Alex Lorenzok moduko jokalaria, lan izugarria egiten dabilzanak.

**Azal izaguzu streamer moduan egiten duzun lana...**

Koarentenan hasi nintzen, Esports-ak *estrimeatzen*; hau da, bideojokoetara jokatzen pantaila batean zeure burua azaltzen den bitartean eta txat batean jendearekin hartu-eman izaten zabiltzan bitartean. Eta mikrofonoak gustuko ditudanez, bideo-jokoetako partidak komentatzen hasi naiz. **Horren ezagun egin den Ibai bezala.** Ibai Messi da, eta besteok langileak gara; kar, kar, kar. Baina bai, eta Esports-etako ekitaldietan ere lanean hasi naiz. Duela aste-bete, Madrilan izan nintzen halako ekitaldi batean publiko aurrean esatari lanak egiten, eta partidak komentatzen.



Dani Lorenzo, *gamer*-en ekitaldi batean esatari lanetan. D.L.



# Guenetxea, Linazisoro eta Osés podiumean

**ESKALADA** Debagoieneko hiru lagun igo dira Espainiako txapelketako podiumera. Nabarmentzekoa da Aretxabaletakoak eskuratutako urrezko domina. "Urduri ibili nintzen aste osoan, baina merezi izan du lanak", adierazi du Irati Guenetxea

## X.U. ARRASATE

Kolore banatako hiru domina jantzi dituzte debagoiendarrek urriaren 28tik azaroaren 1era Iruñeko Rokopolis eskalada zentroan jokatu dituzten Espainiako abiadura, bloke eta zailtasun eskalada txapelketetan. Hainbat mailatan eta espezialitateetan, podiumaren gorengo koskara igo zen Irati Guenetxea aretxabaletarra, zilarrezko domina jantzi zuen Mikel Linazisoro bergararrak eta hirugarren izan zen Haizea Osés arrasatearra.

Abiadura probako finalean, Irati Guenetxea podiumaren gorengo koskara igo zen emakumezkoen 18 urtez azpiko mailan. Finalean 12,92 segundoan igo zuen 15 metroko horma, aurkari zuen Lucia Perezek baino 0,58 segundo azkarrago. "Oraindik ez dut barneratu txapelketa irabazi dudarik. Urte osoko lana dago atzean. Astean behin edo birritan Iruñera joaten naiz, bereziki abiadura entrenatzera; modalitate honetan, erresistentzia baino gehiago indarra behar da, eta aparteko lanketa egin behar da berau entrenatzeko", adierazi du Aretxabaletakoak. "Aste osoan urduri egon nintzen, bereziki bezperan, baina, zorionez, finalean dena joan zen ondo".



Guenetxea, podiumaren lehen koskan. FEDME

Osés ere gustura geratu da zailtasun modalitatean brontzea jantzita, nahiz eta txapelketa "arraroa" izan zela adierazi duen. "Sailkapen fasean berdindu egin genuen denok, eta halaxe pasa ginen finalera. Finalean, pausobat oso zaila zen, eta gutako inork ez zuen gainditu. Hala, gutxi eskalatu izanaren sentsazioarekin geratu ginen denak; sailkapen faseko puntuazioagatik erabaki zituzten dominak".

Gizonezkoen maila nagusiko blokeko modalitatean, berriaz, Mikel Linazisoro bigarren sail-

katu zen, eta podiumean izan ziren Extremadurako Alejandro Crespo eta Javier Cano.

## Espainiako absolutuaren zain

Debagoieneko eskalatzailerek oraindik ez dute atsedetik hartuko. Asteburuan Euskadiko txapelketa jokatu dute, osterarekin Espainiako txapelketa absoluturako zain daude. Oraindik, baina, euskal selekzioak hautatzaileak ez du erabaki zeintzuk izango diren hiru aste iraungo duen txapelketan.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

#### O. ERREGION. GIZON.

#### Oiartzun-Bergara

Zap. 15:30. Karla L.

#### Zarautz-Mondra

Zap. 16:00. Asti.

#### Hernani-UDA

Zap. 16:00. Zubipe

#### Aloña Mendi-Elgoibar

Dom. 16:30. Azko.

#### O. ERREGION. EMAK

#### Leintz Ariz.-Amaikak

Zap. 12:45. Moja.

#### Urola-Bergara

Dom. 16:00. Argixao.

#### GORENGO M. GIZON

#### Mondra-Antzuola.

Zap. 16:00. Mojateg.

#### Aretxabaleta-Soraluze

Dom. 18:30. Ibarra.

#### GORENGO M. EMAK.

#### Leintz Aloña-Goierrri

Dom. 13:30. Azkoag.

#### GAZTEEN EUSKAL LIGA

#### Aretxabaleta-Añorga

Zap. 16:00. Ibarra.

### ARETO FUTBOLA

#### MAILA NAZIONALA

#### Eskoriatza-Jarrilleros

Zap. 18:00. M.Muñoz.

#### Sasikoa-Mondrate

Dom. 12:00. Durango.

#### EUSKADIKO TXAPELKE.

#### Aretxabaleta.-Usanzolo

Zap. 17:00. Ibarra.

#### GIPUZKOAKO SENIORRA

#### Ostiko-Mondrate

Egub. 21:45. Errenteria.

#### SENIOR EMAKUMEZKO.

#### Eskoriatza-Lazkao

Dom. 12:00. M.Muñoz.

### ESKUBALOIA

#### EUSKADIKO TXAPELK.

#### Deusto-Fagor Indust.

Zap. 17:45. Oiardo.

#### Mugarri Ing.-Galdakao

Zap. 17:45. Iturripe.

#### EMAKUMEZ. EUSKADI.

#### Cons Aloña.-Urduliz

Zap. 18:00. Zubikoa.

#### GIPUZKOAKO TXAPELK.

#### Donib.-SoraluzeBKE

Zap. 16:00. Pasaia.

### SASKIBALOIA

#### EBA

#### Valle Egues-MU

Dom. 12:30. Sarri.

#### MAILA NAZIONALA, GIZ.

#### MU-Ardoi

Zap. 20:00. Iturripe.

#### BIG. NAZION. GIZON.

#### Getxo-Mekalki Aloña

Dom. 12:00. Getxo.

#### BIG. NAZIO. EMAK.

#### MU-Lizeo Mon.

Zap. 18:00. Iturripe.

#### GIP. SENIOR GIZO.

#### B. Soraluze-Askatuak

Zap. 20:00. Labegara.

### PILOTA

#### GIPUZKOAKO TXAPELK.

#### ONATI

Egubakoitza, 19:00, hiru partidu, kadete eta seniorrak. Zapatuan, 16:00, lau partidu.

#### ARETXABALETA

Egub. 19:00, bost partidu, infantil, alebin eta gazte mailakoak. Dom. 11:00, partidu bat alebinak.

#### ARRASATE

Egub. 20:00, partidu bat infantil mailakoa.

#### BERGARA

Egub. 19:15, bi partidu, alebin eta infantil mailakoak.

#### ANTZUOLA

Egub. 19:00, bi partidu, infantil mailakoak

#### ARAMAIO

Zap. San Martin txapelketako finalak.

### ERRUGBIA

#### EUS. TXAPELKETA. GIZ

Durango-Kanpanzar

Azaroaren 14ko

asteburuan.

#### EMAK

#### Gaztedi-Arrasate/Ore

Domeka. Zehaztu gabe.

Gasteiz.

#### TRIALSINA

Dom. 10:00. Open Oztopo txapelketa.

#### ORIENTAZIOA

Zapatua eta Domeka.

Arantzazun, Iturrigorrin

hasita.



ARTko jokalaria elkartuta. JOSU BILBAO

GOIENA TELEBISTA  
SASOI BERRIA



BESTELAKO  
OLATUA!

**ZARRAMARRA**

IKER PLAZAOLAK GIDATUTAKO  
UMOREZKO SAIOA  
AZAROAREN 5EAN, EGUBAKOITZEAN,  
21:00ETAN ETA 23:00ETAN

goiena  
Zu hemen zaude.







Iker Martinez eta Zaldi Herrenak taldeak Goiko Benta baserriko ganbaran eman zuten kontzertua. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO ETA MAIDER ARREGI

# Elkarri begira, gertukoari balioa emanda eta distantziak gaindituta

Goienakidek antolatuta, zapatuan bi emanaldi berezi egin zituen Iker Martinez eta Zaldi Herrenak talde oñatiarrak. Goiko Benta baserriko ganbaran "luxuzko kontzertuaz" eskusiban gozatzeko aukera izan zuten bertaratutako debagoiendarrek

**Maidar Arregi** OÑATI

*Gauza txikiak ospatuta, poliki eskutik helduta, isiltasunaz gozatzea, zugaz... orain itxi begiak hobeto ikusteko zein handia den guretzat bizia...* dio Iker Martinez de Zuazok *Hegaldiak* (2021) lan berria irekitzen duen *Itxi begiak* kantuan. Hala, txikitasun horrek handi egin zituen *Marti* eta *Zaldi Herrenak*. 200 urteko gure arbasoen historia gordetzen duten egur eta oholen azpian barnebilduta, distantziak distantzia, batzen gaituena inoiz baino gertuago dagoen isla.

Eskusiban Goienakideen begiradapean, eta urrutit dagoena eskura gertututa, giro goxo eta intimoan, bi emanaldi egin zituzten oñatiarrek. Hasi eta buka lehen laneko kantu alaiekin egin bazuten ere, kantu zerrendaren hezur-muina aurreko bi diskoetako *-Itzalen*

*mundua* (2017) eta *Lurralde berriak* (2019)– gustukoen zitzuten kantuek osatu zuten. Eta, nola ez, Lenao talde kuttunaren *Geltokian* kantuak bere momentua izan zuen. Atzera begirako dotorea eta leuna oñatiarrena.

Egindako esfortzuak merezi izanda iritzita, gustura agertu zen Iker Martinez de Zuazo sortzailea: "Aurrelan handia egin dugu elkarlanean, eta emaitza ikusita oso pozik gaude". Iñigo Ugarte gitarristak gaineratu zuen elkarri begira jo izana berezia izan zela: "Publikoari begira jotzera ohituta gaude, eta formatu hau berezia izan da. Ikerrek ideia hori irudikatua zuen, eta gurekin partekatu nahi izan zuen. Detalle zainduko emanaldia izan da, eta Goienakide ekimenari esker izandako eskusibotasun horrek are bereziago bilakatu du zuzeneko".

Emanaldiak, zalantzarik gabe, musikarien lanari eta ibilbide emankorrari balioa eranstean lagundu dio. "Ospakizuna izan da taldearendako. Honaino iritsi gara, bata bestearengandik ikasi dugu musika egiten, eta lekuak hori bistaritzen lagundu du", esan du Iker Martinez de Zuazok.

**Komunitatearen indarra**

Guztiok batzen gaituena zero kilometroko distantzia dela aintzat hartuta, komunitateari eutsi egin behar zaion aldarria egin zuten musikariek. "Geure sentitzen dugun jendea egon da gaur. Komunitate bereko kide gara, ezagunak. Hemen sortutako musika izan da protagonista hementxo herriarrek; baita langileekin ere; kalitatezko sorkuntza kalitatezko lekuan... Gurea dena dugu lehenetasun, eta ondoren

mundura zabaltzea posible bada, aurrera", dio *Marti*-k.

**200 urteko historia**

Euskal baserriaren izaerari eusten dio Arantzazuko Goiko Benta baserriak. Izan ere, emanaldiaren kokaleku 200 urte baino gehiago dituen egurrezko ganbara izan zen. Etxeko alaba Miren Maiztegi gogorarazi zuen euskal kulturagintzarentzako beti dituela ateak irekita Goiko Bentak: "Gure txoko bat horrelako leku magiko bilakatzea ohorea izan da. Euskal Herriko arte eta kulturaren mugimenduari irekita egon gara betidanik, eta horrela izaten jarraitzea nahi dugu, kulturaren arloa sustatzen. Musikarien, idazleen, abeslarien... babesleku izan da gure etxea, eta oraindik ere jarraitzen dugu horietako askorekin harremanetan".

**Gonbidatu berezi bi**

Etxeko giroan egindako emanaldia izan zen zapatukoa, eta oso etxekoak diren kolaboratzaileak izan zituen taldeak bidelagun: Ander Etxaniz eta Juan Valls. Denen arteko *feeling* hori igarri zen akordeetan, eta ikusleek ere bere egitea lortu zuten. "Aspaldiko partez, lagun zaharrek jotzeko aukera izan dut, eta oroitzapen ugari etorri zaizkit. Lenaoren *Geltokia* kantua oso neure sentitzen dut, zuzenekoetan nik abesten bainuen. Gainera, euskal baserriaren ardatza ganbara hau izatea oso



Iker Martinez de Zuazo musikaria.



Ander Etxaniz eta Juan Valls.

**"GEURE SENTITZEN DUGUN JENDEA IZAN DA; KOMUNITATEA LEHENESTEN DUGU"**

IKER MARTINEZ, MUSIKARIA

**"AURRELANA HANDIA IZAN DA, BAINA EMAITZA IKUSITA OSO POZIK GAUDE"**

IÑIGO UGARTE, MUSIKARIA

**"KOMUNITATEARI JASOTZEN DUGUNA BUELTAN ITZULTZEA IZAN DA HELBURUA"**

JON IRIZAR, GOIENAKIDE

**"GURE ETXEKO ATEAK BETI EGON DIRA ETA EGONGO DIRA KULTURARI IREKITA"**

MIREN MAIZTEGI, GOIKO BENTA





Goiko Bentako emanaldian parte hartu zuten musikariak.

esanguratsua izan da niretzako", kontatu du Etxanizek.

Juan Valls musikariak, berriz, *Marti*-rekin *Arima askatuta* kantua abestu zuen. "Lagun artean beti ondo moldatzen gara, eta testuingurua musikarentzako ezin hobea izan da. Sorpresa ederra hartu dut kokalekuarekin. Izan ere, ez nekien nolakoa izango zen, eta bertara etorritakoan harritu egin nau. Ekimen honek jarraipena izan beharko luke, zalantzarik gabe, gure komunitatea indartzen segi dadin", azpimarratu du Vallsek.

### Askoren artean lehena

Jon Irizar Goienakideko kudeatzaileak adierazi zuen helburuak bete egin direla: "Komunitatetik guk jasotzen dugun hori berriro bueltan ematea zen asmoa, eta uste dut bete egin dugula. Xarma berezia duen leku batean elkartu gara, eta gerturatu diren herritarrak gustura geratu dira kalitatezko emanaldiarekin. Horregatik, nik uste dut helburua bete egin dugula gaur". Eta aurrera begira zer? Komunitatearendako ekintza gehiago egin egingo direla aurrerratu du Iri-



Iñigo Biain baxu-jolea, Jaime Irizar bateria-jolea eta Joxeba Aranburu gitarrista.



200 urte baino gehiago dituen egurrezko habepean egindako emanaldia.

zarrek: "Askotariko formatuak ditugu aukeran, baina argi dugu eskusibotasun horri eutsi gura diogula komunitateari eskaintzeko. Lehen ekimen honek harri oso ona izan du eta komunitatea indartzeko nahia badago

herrian. Kanpaina luzea izango da eta datorren uztaile arte iraungo du".

Hala, hiruzpalau astean behin ekintzak egongo dira bailarako hainbat herritan. Hurrengoa, esaterako, azaroan Antzuolan



Goienakideak emanaldia jarraitzen.

egitea aurreikusita dutela aurrerratu du Irizarrek, eta Gabonen aurretik Bergaran ere egongo direla esan du, Oñatin indartuta geratu den komunitatea beste herrietan ere hedatzeko ahaleginean bidea eginda.

### Bost kamerarekin grabatua


Goiena telebistak bost kamerarekin grabatu zuen zuzeneko, eta azaroaren 12an, egubakoitza, izango dute ikus-entzuleek kontzertuaz gozatzeko aukera: 21:00etan eta 23:00etan, hain zuzen ere.

## Goienakide izatearen balio erantsia




TXUS MARTINEZ

"Gutiz txundituta nago. Atetik sartzeaz bat harrituta nago inguruan dagoen guztiarekin. Ganbara honetan gitarra sorta ikustea ikaragarria izan da. Pribilegiatu hutsa sentitzen naiz eta asko gozatu dut. Gauza politak ikusteko ez daukagu oso urruti joan beharrik; batzen gaituzten altxor ederrak bertatik bertara ditugu bailaran".




AMAIA UGARTE

"Bitxia, polita eta oso berezia. Gutxitan izaten dugu, gainera, musikariak hain gertu izateko aukera. Ikaragarri gozatu dut eta txoko ezberdin bat ezagutzeko aukera izan dut. Goienakideren ekimenak asko harritu nau, onerako. Zero kilometroren zentzuaz gutiz bat egin du ekimenak: lekua, musikariak eta gertutasuna, hain zuzen ere".




JOXE LAZKANO

"Leku ederrean, talde bikaina. Oso gustura egon naiz, eta asko gozatu dut emanaldiarekin. Kontzertu laburra, baina polita. Horrelako emanaldiak ez dira egunero-egunero ikusten, eta luxua izan da musikariak horren gertu edukitzea. Formatua asko gustatu zait. Ekimen honen bitartez, bailaran egiten dena ikustarazten da, gainera".



EGOITZ OLALDE

"Holako leku batean emanaldia egiteko aukerak ez dira asko izaten; luxua izan da. Musikari gisa inbidia pixka bat ere eduki dut. Iker eta taldekideak gertukoak ditut, eta badakit lan handia egin dutela dena prestatzeko. Horrelako altxorak badaude, eta herritarrei bertara etortzeko aukera emateari ezin hobeto deritzot".



ISMAEL ZUBIA

"Hunkituta eta oso gustura, ekimen bikaina izan da eta giro berezia sortu da. Gertuko lagunak dira, eta asko jarraitu ditugunak, baina inoiz ez horrelako leku batean. Komunitatea sortu eta indartzen duen ekimena oso garrantzitsua dela deritzot; GOIENAK egin duen moduan batzen gaituen hori babestea, alegia".

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE

"Hiru egun oso politak izan dira guretzako; hemen etxean, gainera. Oso intentsuak. Publikoa eserlekuetatik altxatuta bukatu ditugu hiru emanaldiak. Oso pozik eta hunkituta atera gara lantalde osoa", kontatu du La Dramatica Errante konpainiako kide eta *Altsasu* antzezlaneko zuzendari Maria Goirizelaiak, aurreko asteburuan Bilboko Arriaga antzokian egin zuten estreinaldiari buruz.

Amaia antzokian eskainiko dute etzi, domeka, 19:30ean. Sarrerak *Arrasate.eus* atarian eta Amaia antzokiko leihatilan eros daitezke, hamar eurotan.

### "Fikzioa da"

Argi utzi gura dute hori. "2016an Altsasuko Koxka tabernan bi guardia zibilekin eta haien bikotekideekin izandako liskarrak eta ondoren etorri ziren atxilotetak eta epaiketa dira istorioaren oinarria, baina fikzio bat sortu dugu. Egia da 350 orri dituen ahozko epaiketaren transkripzioa izan dela gidoia idazteko abiapuntua, baina hainbat lizentzia hartu eta moldaketa batzuk egin ditugu, kontakizuna sinesgarriagoa izateko asmoz. Adibidez, Inauteri egunean kokatu dugu gertaera, kartzelan dauden gazteek euren familia-koekin eta lagunekin dituzten elkarrizketa batzuk ere sortu ditugu, eta guardia zibilen eta euren bikotekideen arteko mai-tasun istorioak ere gaineratu ditugu", dio zuzendariak.

Antzezlanaren egiteko gogoia eta asmoa Espainian erreferente den Nuevo Teatro Fronterizo antzerki laborategiaren *Cicatrizar* proiekturen barnean sortu zela azaldu du Goirizelaiak. "Nazioarteko proiektu horretan Euskal Herriko zauriei buruz jarduteko gai aproposa iruditu zitzaidan Altsasuko gertaera. Antzerkiaren bidez memorian esploratzeko nahia eta bizikidetzaren bultzatzeko baliagarria delakoan gaude".

Urtebete inguru ibili zen Goirizelaia informazioa eta dokumentazioa biltzen, ahozko epaiketaren transkripzioa aztertzen, liburuetan eta bestelako argitalpenetan eta ikus-entzunezkoetan arakatzen, eta horiekin guztiekin osatu zuen dramaturgia osoa. "Behin gidoia idatzita, La Dramatica Errante konpainiako bazkide dudan Ane eta



Aurreko astean Bilboko Arriaga antzokian estreinatu zuten *Altsasu* antzezlanaren une bat. LA DRAMATICA ERRANTE

# Epaiketa oinarri, antzezlan orain

Bilboko La Dramatica Errante konpainiak "arrakastaz" estreinatu berri duen 'Altsasu' antzezlanaren Amaia antzokian ikusteko aukera izango da domekan, 19:30ean; eszenografia xumea du eta agertokian dauden lau aktoreen interpretazioa da muina

biok aurrera egitea erabaki genuen; hala, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza batzuetara aurkeztu, eta testuaren idazketarako eta ikuskizunerako laguntza jaso genuen. Hilabeteetako lana izan da".

### Lau aktore parez pare

Egoitz Sanchez, Nagore Gonzalez, Ane Pikaza eta Bergarako Aitor Borobia aktoreak daude taularen gainean, eta hogeit hamar pertsonaia antzeztzen dituzte. "Aktoreen lana da, duda barik, antzezlanaren muina. Ez nuen zalantzarik izan lau horiek aukeratzeko orduan. Laurekin egin dut aurrez lan, La Dramatica Errante konpainiaren bueltan osatutako familiakoak dira; hortaz, erraza izan zen talde artistiko egitea. Ane bazkidearekin lan asko egiten ditut, eta asko miresten dut. Eta beste

hirurak ere aproposak iruditu zitzaizkidan pertsonaia horietarako, elkar ondo ezagutzen eta ulertzen dugulako".

Apenas dago dekoraturik, eskegitako lanpara bat eta sei aulki besterik ez. "Eider Ibarondo eta Isabel Acostak diseinatutako eszenografia oso minimalista da. Argiztapenak eta musikak, baina, pisu handia dute. Adrian Garcia de los Ojosek sortu du musika; gure sustaiekin lotutako doinuak sartzea nahi nuen, eta, hortaz, guztiok ezagutzen ditugun kantuen bertsoak entzungo dituzue. Ibon

Agirrerekin batera soinu-atmosfera polita sortu dute, oso gureak diren soinuekin jolastuta".

### Bi bertso elebidun

Euskarazko eta gaztelarazko bertsoak ditu antzezlanak, nahiz eta bi hizkuntzak erabiltzen dituzten bietan. Honela azaldu du euskarazko itzulpena egin duen Aretxabaletako Kepa Errasti aktoreak: "Bi hizkuntzak erabiltzeak kontatzen den horri konsistentzia ematen ziola iruditu zitzaidan; era berean, bi munduren isla edo adierazle ere bada. Guardia zibilek, epaileak eta fiskalak gaztelaraz egiten dute antzerkiaren bi bertsoetan, sinesgarriagoa iruditu zitzaidan, eta, bestetik, gaztelarazko bertsoan ere euskarazko pasarte batzuk sartu ditut, eta osatuago geratu delakoan nago".

**LA DRAMATICA  
ERRANTE KONPAINIAK  
LABETIK ATERA BERRI  
DUEN 'ALTSASU'  
AMAIA ANTZOKIAN**

### Azaleratzeko gaiak

Antzerkia entretenitzeko edo ondo pasatzeko izateaz gainera, hausnarketak bultzatzeko tresna baliagarritzat dute Goirizelaiak eta Borobiak. "Uste dut antzerkiak galderak egin eta pentsarazi egin behar duela. Hainbat helburu genituen; pentsaraztea, horien artean. Egia da *Altsasu* ikustera datozen askok gaiarekiko aurreiritzi bat dutela, baina justiziak nola funtzionatu duen, zein den, orokorrean, justiziaren esanahia, eta zelan amaitu den oso mediotikoa izan den epaiketa batean hori guztiari buruz hausnartzea izan da hasieratik dugun asmoa. Eta, era berean, zigorra zelako desproporzionala izan den salatzea", dio zuzendariak, eta zera gaineratu du Bergarako aktoreak: "Gizarte hobia izateko baliagarria da antzerkia, eta kultura adierazpen guztiak, orokorrean, eta Arriagako emanaldien ondoren ikusi dugu berba egiteko eta eztabaidatzeko gogo handiz ateratzen direla ikusleak areto-tik".

Altsasuko auzia, baina, beste hainbat ikus-entzunezkoren gaia ere izan da aurrez; besteak beste, Asier Urbietak zuzendu zuen eta Euskal telebistan iazko abenduan estreinatu zuten telesaila. Aitor Borobiak ere parte hartu zuen, Koxkako tabernariaren rolean orduan. Urko Fernandez de Bikuña auzipetutako gaztearen azalean sartu zen, berriz, Osintxuko Jon Olivares aktorea. "Beharrezkoa iruditzen zait niri ere gizartean pil-pilean dauden gaiak azaleratzeko kultur adierazpen ezberdinen bidez. Ez nuen Arriagara joateko aukerarik izan, eta Arrasateko emanaldira joateko aukerarik ere ez dut izango, Madrilen nagoelako orain lanean, baina oso presente izan dut antzezlanaren sortzeko prozesu osoa, ezagutzen ditut-eta lantaldekoak, eta badakit mimo eta kontu handiz landu dutela. Aitor Borobia, herrikoa eta gremio berekoa izanik, aspalditik ezagutzen dut, eta orain dela urte batzuk elkarrekin antzezlan bat egin genuen. Askok estimatzen dut Borobia, eta seguru nago primeran egingo dutela. Ez dut ikusteko aukera galduko eta jendeari ere ikusteko gomendatuko nioke; Euskal Herrian dagoen kultura ekoizpen handi eta onaren beste erakusle bat dela uste dut".



## "Egin dudana antzezlanik konplexuena da 'Altsasu'"

AITOR BOROBIA AKTOREA

La Dramatica Errante konpainiak domekan eskainiko duen 'Altsasu' antzezlaneko aktoreetako bat da Aitor Borobia. **Estreinaldiko urduritasunak gaitututa, zer moduz zaude?** Lasaiago bai, nahiz eta nerbio puntu hori beti egoten den, eta, are gehiago, honako hau bezala, antzerki konplexua izanda. Hala ere, sentsazio oso onak ditugu. Arriagan publikoak ikaragarri ondo erantzun zuen eta oso kritika onak jaso ditugu, orokorrean.

**Aktoreen lana da muina. Zein pertsonaia antzeztzen dituzu?**

Fikzio bat dela azpimarratu nahiko nuke, nahiz eta Altsasuko kasua oinarri duen. Bost pertsonaia egiten ditut: Altsasuko gazte bat, guardia zibil bat, aita bat, tabernari bat eta lekuko bat.

**Bereziki gustuko duzu pertsonaia bat?**

Ez dakit, denak dira politak. Egia da gaztearekin, tabernariarekin edo lekukoarekin, adibidez, nire pertsona gertuago dagoela eta, bestalde, zailagoa egiten zaidala guardia zibilaren paperean sartzea, baina xarma berezia du rol horrek, ahalegin handiagoa eskatzen didalako pertsonaia sortzeko orduan.

**Aktoreek akituta bukatuko duzue emanaldia, ezta?**

Bai, hala da; ordu eta berrogei minutu ditu eta ez gara agertokitik ateratzen, une oro bertan gaude, pertsonaia eta arropa aldatetarako publikoaren bistara egiten ditugu. Uste dut antzerki arloan egin dudana lanik



AITOR BOROBIA

konplexuena dela, kontzentrazio handia eskatzen du.

**Zer da aktore batendako bizirik dagoen gertakari bat antzezteko, errespetu handia?**

Errespetua, eta ez bakarrik hori, istorioa ahalik eta fidelen eta egiaarekin ahalik eta estuen kontatzen saiatu gara.

**Maria Goirizelaiarekin lan asko egin dituzula kontuan hartuta, samur eman zenion lan honetarako baiezkua?**

Mariak beti dauka nire baietza. Oso konprometitua da bere lanarekin eta kalitateko lanak egiten ditu. Besteak beste, Lorcaen *Yerma* obraren moldaketa eta *Ama kuraia* izeneko egin ditut harekin. Oso erraza da berarekin lan egitea, oso erraz jartzen ditu gauzak, eta ondo moldatzen gara. Talde-lana bultzatzen du, familia giroa sortuz horrela.

**Eta zer diozu taularen gainean lagun dituzunei buruz?**

Ane eta Maria La Dramatica Erranteko bazkideak direnez, askotan egin dut Anerekin lan. *Arri, orri, ar* ikuskizuna egin nuen Nagorekin eta Egoitzekin estreinakoz partekatu dut oholitza. Madrilen bizi da orain, eta hainbat antzezlanetan bere ordezkaria izaten naiz.

**Altsasu-z gainera, ze proiektu gehiago dituzu esku artean?** Hainbat konpainiarekin ibiltzen naiz aldi berean. Bakarriketa estiloko *Piskolabis* komedia musikatu ere antzeztzen ari naiz, Ibon Belandia eta Maria Urzelai bergararrarekin.

**Zure konpainia, Lastima Teatro, ere baduzu. Zertan da?**

Albo batera utzita ditut lan horiek, ez dut-eta denerako astirik. Arimatore izeneko areto txiki bat ere badugu, Barakaldon.

**Orain dela hogeitaz bizi zara Bilbon; Bergarara etortzeko ohiturarik baduzu?**

Domekan familiari bisita egin nahiko nioke, baina autoan elkarrekin joaten gara taldekideak, eta zaila dut Bergaran geldialdia egiteko, baina espero dut Amaia antzokiko emanaldian izango direla familiakoak eta lagunak Bide batez, animatu zaitezte zuek ere, ez zarete esku hutsik aterako.



Biain eta Astulez zuzendariak. EHGA

## Sari nagusiak, Euskal Herriko Gazte Abesbatzak

Polifonian eta folklorean lehen sariak irabazita, eskuetan abesbatzen Grand Prix-erako txartela

A. Aranburuzabala OÑATI

"Gogor egin dugu lan bi urte hauetan. Lehiaketetan lehiaketena da hau, etxean jokatzeko dugulako eta Grand Prix zirkuituko lehiaketarik konplikatuenetakoa delako. Oso pozik gaude lehen saria irabazita. Sariarekin, 2023an jokatzeko den Grand Prix-en parte hartzeko aukera izango dugu, Europako lehiaketa onenetako irabazleekin batera. Oso pozik gaude egindako lanarekin eta jendeak ere gustura hartu du guk emandakoa. Talde indartsua da, soinu eta musikaltasun handikoa, eta bi urte hauetako lana ederra izan da, amaiera bikainarekin", azaldu du Euskal Herriko Gazte Abesbatzako zuzendarietako bat den Aitor Biain oñatiarrak.

40 abeslarik osatutako proiektua da EHGA, eta horien artean daude Debagoieneko Uxue eta Alba Bellido, Maria Izaga, Idoia Asurmendi eta Aitor Garitano. Bost urteko ibilbidea du eta zuzendariak aldatzen joaten dira. Esteban Urzelai oñatiarrak eta Isabel Mantecone zuzendu zuten ekimena abiatu zutenean, eta gaur egun, Aitor Biain oñatiarrak eta Basilio Astulezek dute horren ardura, nahiz eta laster lekukoa pasatuko dutela adierazi duten.

## Goienakideen txokoa

### Urriko irabazleak!

**KOBO LIBURU IRAKURGAILUA**  
Ana Arturo Sukilbide (Oñati)

**HARREMAN DENDAKO OTARREA**  
Juan Carrillo Montoya (Eskoriatza)

**ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK**  
Luis Eraña Gallastegi (Bergara)  
Xabier Madariaga Muguruza (Arrasate)  
Oihana Solupe Amozarrain (Aramalo)

**BI PERTSONARENDAKO OTORDUA**  
Iker Urkia Martínez de la Hidalga (Aretxabaleta)  
Ainhoa Etxabe Okina (Arrasate)  
Aitor Ezkurra Uribetxeberria (Arrasate)

**GOXO GOXUA GOZOTEGIAREN TARTA BAT**  
Iñigo Martínez de Zuazu (Oñati)

**AMAIA ANTZOKIKO SARRERAK**  
Ainhoa Díez Iturricastillo (Arrasate)  
Xabier Zubizarreta Lasagabaster (Arrasate)  
M. Asunción Anduaga Agirre (Arrasate)  
Leire Zumarraga Azkarate (Bergara)  
Iker Aranburu Eraña (Oñati)  
Maritene Galdos Urzelai (Oñati)

### SARIAK JASOTZEKO:

**Arrikrutzeko sarrerak.** Goiena Klubeke tartea eskuzatuta, bihurtu sarrera bango dituzue Arrikrutzeko tartetxerik. Sarrerak hiru hilabeteko operagutegira dute: **ARRIKRUTZ KOBIAK**. Asteleke, 9:00-11:00. 943 25 05 05. Oñati. Oñatitako: astelekeko gozotegiaren 10:00 - 11:00 (sarrerak hiru hilabeteko operagutegira dute). **Harreman dendako otarrea.** Otarrea jasotzeko, jo zutenean, bakoitza tartetxerik. Harreman dendako: Aretxabaleta Eroski hipermerkatuan duen dendak. **Kobo liburu irakurgailua jasotzeko,** tartetxerik. Harreman dendako: Otarrea jasotzeko, jo zutenean, bakoitza tartetxerik. Harreman dendako: Aretxabaleta Eroski hipermerkatuan duen dendak. **Goienakideen txartela.** Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA eratu eta BAZKIDE ZENBAKIA eratu eta eman behar da. GOIENA Oñatiko Lizeoaren 31. Asteleke, 943 25 05 05. Oñati. Oñatitako: astelekeko eguna: 09:00 - 18:00. Egubakoitzean: 08:00 - 14:00.

## Irabazi bi lagunendako sarrerak

**Arrasateko udalari esker**

"Toundra" musikeldirako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amaia Antzokia | Azaroaren 13an | 19:30ean

**PARTE HARTZEKO:**

**E-postaz:** goienakide@goiena.eus **WhatsApp:** GOIENAKIDE "Toundra"

[berbidetaren zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira

**"goiena app"-a / zozketa atalean.** Parte-hartzailearen artean egingo da zozketa. Irabazlearen izena 10/10/2021 lehenengo astearen bukaeran zuzendariaren bidez jakinaraziko da. Zozketaren emaitza 10/10/2021 lehenengo astearen bukaeran zuzendariaren bidez jakinaraziko da. Zozketaren emaitza 10/10/2021 lehenengo astearen bukaeran zuzendariaren bidez jakinaraziko da. Zozketaren emaitza 10/10/2021 lehenengo astearen bukaeran zuzendariaren bidez jakinaraziko da.

## Irabazi bi lagunendako otordua

**LAPIKOGORRI JATETXEARI ESKER**

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!

Parte hartzeko azken eguna: azaroak 9



943 25 05 05



goienakide@goiena.eus



"Goiena app"-a / zozketa atalean.



GOIENAKIDE Jatetxea



[berbidetaren zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



**BAZKIDETZA KUOTA: 15€**  
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRI! ▶

**goiena**  
**kide**

Okm: batzen gaituen distantzia.



## IRAGARKI SAILKATUAK

## 1. ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Aramaio.** Oletan, etxea lursailarekin salgai. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 648 06 65 24

## 102. EROSI

**Arrasate.** Lau logela dituen etxebizitza erosiko genuke erdialdean. Berritu behar bada ere, prest gaude ikusteko. 653 72 23 42 edo 686 17 06 15

## 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Errentan hartzeko pisu baten bila nabil. 606 64 16 09

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan hartzeko. 680 87 38 66

**Bergara.** Erdialdean kokatutako etxebizitza baten bila nabil. Telefonoa: 666 07 42 98 (Claudia)

**Bergara.** Laster guraso izango garen bikote bat gara. Denboraldi luzerako etxebizitza errentan hartu nahiko genuke. Eskerrik asko! 605 74 78 29 edo 608 44 04 82

## 2. GARAJEAK

## 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Bergara erdialdean, Zabalotegi, Burdinare, Espoloia edo Ibargarai aldean, garajea hartuko genuke errentan. Telefonoak: 656 70 13 72 edo 650 74 55 91

## 4. LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Menpekotasuna duen 76 urteko emakumeari oinarrizko zereginetan eta irteeretan lagundu eta etxeko lanak egiteko emakumezko baten bila gabilta. Goizez 3 orduz, eta menpekotasuna duten pertsonet laguntzeko ziurtagiri ofizialduna. Jarri harremanetan Whatsapp bidez 15:00ak eta 21:00ak bitartean: 680 61 96 99

**Ume zaintzaile bila.** Kai-xo, gure bi ume txikiak zaintzeko pertsona baten bila gabilta. Interesik baduzu, edo norbait eza-gutzen baduzu, mesedez,

deitu zenbaki honetara. 635 00 68 84 (Amaia)

## 402. ESKAERAK

**Arrasate eta Bergara.** Neska adinduak zaintzeko eta garbiketarako lan bila. Arratsaldez edo asteburuetarako. Telefonoa: 666 10 21 53

**Arrasate.** Emakume arduratsua orduka edo egun solteetan garbiketarako edota nagusiak zaintzeko gertu. Legezkoa agiriekin, titulazioarekin eta erreferentziekin. Telefonoa: 612 51 42 99

**Arrasate.** Goizez edo arratsaldez lan egiteko gertu nago: pertsona nagusiak zantzen, garbiketarako eta abarrean. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606 64 16 09

**Arrasate.** Neska arduratsua gertu orduka eta gaueetan lan egiteko. Soziosanitario titulazioa eta legezko agiriak dauzkat. 680 87 38 66

**Bergara edo inguruak.** 15 urteko esperientzia duen sukaldaria lan bila. 676 19 84 51

**Bergara.** Mutil gaztea asteburuetan pertsona nagusiak zaintzeko lan bila. Paseatzeko edo etxean egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 94 25 11

**Bergara.** Neska gertu pertsona nagusiak zaintzeko edota etxeko garbiketarako egiteko. Orduka egunez edota gauzez.

Kontakturako telefono zenbakia: 666 07 42 98

**Bergara.** Neska gertu pertsona nagusiak zaintzeko edota etxeko garbiketarako egiteko. Orduka egunez edota gauzez. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 641 99 15 85

**Debagoiena.** Esperientzia eta titulazioa dauzkan neska nagusiak etxean zaintzeko gertu. Sukaldari edo sukalde laguntzaile moduan ere lan egingo nuke. 688 72 88 97

**Debagoiena.** Esperientzia handia duen mutila nagusiak zaintzeko edota etxe,

atari, lantegi eta abarrak garbitzeko gertu. Baita zerbitzari lanetarako ere. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Autorekin. 638 85 43 36

**Debagoiena.** Esperientzia handia duen neska nagusiak zaintzeko edota etxe, atari, lantegi eta abarrak garbitzeko gertu. Baita zerbitzari lanetarako ere. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 654 11 15 14

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egin nahi dut. Soziosanitario titulazioa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 87 98 63

**Debagoiena.** Garbiketarako egiteko gertu nago, etxean orduka eta baita hoteletan ere. Zerbitzari lanetan ere bai. Legezko agiriak dauzkat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 615 94 16 44

**Debagoiena.** Gauzez etxean edo ospitalean nagusiak zainduko nituzke. Dokumentuak egunean ditut. 647 31 48 17

**Debagoiena.** Goizeko 8:00etatik 11:00etara, gaueetan edota asteburuetan, nagusiak zaintzeko gertu nago. Soziosanitario titulazioarekin. 659 93 85 13

**Debagoiena.** Mutila nagusiak zaintzeko eta denetarik garbiketarako egiteko gertu. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 631 98 39 36

**Debagoiena.** Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Deitu 672 55 67 35 telefonora.

**Debagoiena.** Nagusiak eta umeak zaintzeko gertu nago, orduka. Ordutegi arazo barik. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 631 11 87 57

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzeko gertu nago. Erizaintza titulua. Orduka, egunean zehar edo gaueetan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 69 40 90 (Nacira)

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke asteburuetan edo etxean bertan bizi izaten. Intere-

satuok deitu zenbaki honetara: 602 01 32 58

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusi edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko gertu. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. Berehala hasiteko moduan. Telefonoa: 631 09 46 89

**Debagoiena.** Neska gaztea lan bila, pertsona nagusiak edota haurrak zaintzeko eta baita garbiketarako ere. Arratsaldez eta astebukaerretarako. 698 91 18 63

**Debagoiena.** Orduka zein etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke, nagusiak eta umeak zaintzen edo garbiketarako egiten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 643 29 75 77

**Debagoiena.** Pertsonak zaintzeko edota etxeko lan eta garbiketarako egiteko gertu nago. 641 51 13 06

**Debagoiena.** Soziosanitario titulua daukat eta pertsona nagusiak zaintzen lan egiteko gertu nago. 696 84 19 51

**Debagoiena.** Zerbitzari moduan, umeak edota nagusiak zaintzen eta garbiketarako egiteko gertu nago. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 642 10 87 45

**Eskoriatza.** Lehen Hezkuntzako magisteritza egiten ari den neska euskalduna naiz. Haurrak zaintzeko edo beste lan mota bat egiteko prest nago Eskoriatzan. Goizetan klaseak ditudanez, eguerdi-arratsalde aldera izango litzateke. Telefonoa: 618 43 38 96

**Eskoriatzan haurrak zaindu.** 19 urteko neska arduratsua, Haur Hezkuntzako goi mailako zikloa dut eta orain haur hezkuntzako gradua egiten nabil Eskoriatzan. Hauaren bat zaindu ahal-nuke goizetan Arrasaten, Eskoriatzan edota

Aretxabaletan. Nahi izanez gero, nirekin kontatuan jar zaitezke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 673 07 85 96

**Oñati edo Bergara.** Asteburuetan nagusiak zainduko nituzke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 602 01 32 58

**Zerbitzaria.** Asteburuetan lan egingo nuke zerbitzari moduan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 676 87 99 48

## 5. IRAKASKUNTZA

## 501. JASO

**Eskoriatza.** Pertsona bat behar dugu DBH2-ko ikasle bati eskola partikularrak emateko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617 88 96 81

## 7. ANIMALIAK

## 703. EMAN

**Txakurkumea.** Txakurkume bat ematen dugu dohainik. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 675 71 25 78

## ASTEA GOIENA TELEBISTAN



IMANOL SORIANO

## 'ZARRAMARRA', UMOREZKO SAIOA

'Bereziak' Egubakoitza, 21:00 eta 23:00



GOIENA

## AITOR OTAMENDIRI ELKARRIZKETA

'Harmailatik' Astelehena, 21:30 eta 23:30

| EGUBAKOITZA, 5                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  | ZAPATUA, 6                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           | DOMEKA, 7                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
